

**MANUEL DE LEKUONA**

# **AOZKO LITERATURA**

(LABURPENA)



**KARDABERAZ BILDUMA**

**22 - A**

# ARDABERAZ BILDUMA

- 1 **KARDABERAZ AITARI OMENALDIA**  
(Zenbait idazle) ... .. 1972. 198 of.
- 2 **NEURRIZTIA**  
(Luis Egia) ... .. 1972. 323 "
- 3 **SUGE GORRI**  
(François Mauriac - "Uxola") . 1973. 169 "
- 4 **EZPALAK**  
("Uxola") ... .. 1973. 191 "
- 5 **AITONAREN IPUIAK**  
(Ramón Murua) ... .. 1974. 140 "
- 6 **ERREKA ZULOAN ETA...**  
(Anastasio Albisu Ayerdi) ... 1974. 339 "
- 7 **SHAKESPEARE - KOMEDIAK, I**  
(Larrakoetxea'tar Bedita) ... 1974. 322 "
- 8 **LANDARE-JAKINTZA (Botánica)**  
(Larrañaga, Guillermo) ... .. 1975. 183 "
- 9 **GARTZI-XIMENO, eta...**  
(Anastasio Albisu Ayerdi) ... 1975. 258 "
- 10 **EUSKALERRIA ETA ERIOTZA**  
(Anastasio Arrinda Albisu) ... 1974. 290 "
- 11 **SHAKESPEARE - KOMEDIAK, II**  
(Larrakoetxea'tar Bedita) ... .. 1975. 271 "
- 2/13 **SHAKESPEARE - DRAMAK, I-II**  
(Larrakoetxea'tar Bedita) ... .. 1977. 468 "
- 14 **SHAKESPEARE - TRAJEDIAK, I**  
(Larrakoetxea'tar Bedita) ... .. 1976. 358 "
- 15 **SHAKESPEARE - TRAJEDIAK, II**  
(Larrakoetxea'tar Bedita) ... .. 1976. 293 "
- 16/17 **GRAMÁTICA VASCA**  
(Dos vols.). ("Umendi") 1976. 584 ta 208 of.
- 18 **TXIRULIRUKA-OLERKIAK**  
(Loidi'tar Paben) ... .. 1977. 145 "
- 19 **LEKUONA'TAR MANUEL JAUNAREN OME-  
NEZKO IDAZKI-BILDUMA, I** 1977. 341 "
- 20 **LEKUONA'TAR MANUEL JAUNAREN OME-  
NEZKO IDAZKI-BILDUMA, II** 1977. 323 "
- 21 **LEKUONA'TAR MANUEL JAUNAREN OME-  
NEZKO IDAZKI-BILDUMA, III** 1977. 396 "
- 28 **EUZKAL-BETEKIZUNAK**  
("Umendi") ... .. 1977. 222 "

600, -

ΛΟΖΚΟ ΛΙΤΕΡΑΤΥΡΑ

MANUEL DE LEKUONA

# AOZKO LITERATURA



KARDABERAZ BILDUMA

MANUEL LEKUONA

OBRA  
COMPLETA



SEPARATA

de

MANUEL LEKUONA. - OBRAS COMPLETAS

Vol. I. - Págs. 1-186

Colección: KARDABERAZ BILDUMA

# Aozko Literatura

(LITERATURA ORAL)

Ikastaldia Iruña'n, Nafarroa'ko Ikastoletako Andereñoai, 1973.

## I IKASGAIA

### ZER TA NOLAKOA DAN

Idatzi gabeko Literaturari esaten zaio "Aozko Literatura".

Idatzi, eskribi gabeko Literatura.

Ba dirudi ezin leikeala izan, Literatura idatzi-gaberik. Literaturaren *littera* orrek *letra* esan nai du; ba dirudi, beraz, Literatura danak, beti ere, letraz idatzia bear lukeala izan.

Erri asko dira, ordea, munduan, ezertxo ere idatzi ez dutenak, eta, ala ere, Literatura ederraren jabe diranak.

Ala, Afrika'ko zenbait tribu, eta Ameriketa'ko zenbait indio-jende.

Europa'n bertan zenbait ipui —Polifemo'rena bezelakoak— millaka urte askoz kontatu izan bide dira artzai europarren artean; eta, ibillian-ibillian Homero'k-eta beren Poematan sartu dituzten arren, sortu, ez bide ziran idatziz sortu, kontu-kontari esanaz baizik; eta, oraindik ere baztarretan kontu-kontari esaten diran guztiak, ez daude danak liburuetara jasoak.

Berdin gertatu da, Euskalerrian kontatzen diranakin ere: gure Polifemo dan Tartalo artzai begibakarraren ipui bildurgarriarekin adibidez, eta gure Mitolijia'ko Mari eta Atarrabi ta Mikelats'en mitogaiakin.

Gure errietan kanta oi diran asko ta asko koplarekin eta bertsorekin ere berdin gertatu da. Eunka ta eunka urtez, inork idatzi gabe, kanta ta kanta gure baserrietan bizi izan diran literatura-gaiak dira, orain berrogeitamaren bat urte gure D. Jose Migel Barandiaran'ek bere Eusko-folkloren bildu ta argitaldu dituanak.

Eta asko polit askoak. Adibidez :

Arantzazu-mendiko  
krabelin gorria ;  
neskatxa musu-gorri  
engañagarria.

*Tiriki-tauki-tauki*  
malluaren otsa ;  
laister ezkontzen dala  
gure neskamotza.

Arin-arin eiten dau  
soloan erbiek ;  
utsean eiten dituz  
punturik erdiek.

Abarketa txuriak,  
zinta ta ebilla...  
Ez giñala etorri  
txotxolo orren billa.

Zapata txuri, paperez,  
audi danean bat-ere-ez.

Au aizearen epela!  
aidean dabil orbela...

Eder zeruan izarra,  
errekaldean lizarra...

eta *kristikin-kraskitin*,  
arrosa-krabelin...

Orra or, gauza politik polikitxo esaten dituzten kopla batzuek, eun-  
ka urtez gure trikiti-billeratan-da kantatu izan diranak, eta sortu ere,  
asko dantzatu-alean, bapatean koplariak sortuak, eta eunka urtez idatzi  
gabe bizi izan diranak.

Izan ere, Literatura, Arte bezela, gauza politik poliki esateko artea da. Esateko. Literaturak, berez, bere izatez, ez du zer-ikusirik letra idatziarekin. Literatura, Arte Ederretan bat da, Musikarekin eta Dantzarekin batean, Arte Eder Dinamikoa; eta, berez, idaztearekin ez du zer-ikusirik.

Idazteak Literaturaren iraupenari, bai, lagun dezaioke. Iraupenari; bañan ez Literaturaren beraren muñari.

Bere sorkarien, bere lanen, iraupena, Literaturaren problema bat da. Eta idazteak literatura-lanari iraupen ematen dio. Bañan orregatik ezin esan bait liteke Aozko Literaturak bere sorkarientzat iraupen-garririk ez daukanik. Aozko Literaturak ba du bere sorkarientzat iraugarri. Iraugarri benetan arrigarria: entzuleen memoria, entzuleen oroimen arrigarria; Aozko Literatura-giroan izugarri aberatsa izan oi zan eta oi dan oroimen memoria.

Izan ere, orrenbeste aldiz entzun izan bait degu, nolako memori aundia zuan olako ta olako baserritako amonek; ordutan ta ordutan eten gabe kantuan ari izaten zala, alegia, kanta-ta-kanta, eta beti kanta berri... Ala berean, olako ta olako aiton zaarrek Billafranka Ordizia'ko perian emezortzi-ogei bertso-aldi bi aldiz kantatzen entzunda, beste gabe, gero etxera joanda, emeretzi-ogeiak banan banan buruz kantatzen zituala.

Olako memoriak garai batean etzuten iñor arritzen, gaur ainbat idazkortz eta idazkolarik etzan garai artako aiton-amonak, gauzak buruz ikas-teko guk ez bezelako oitura ta indarra bait zuten.

### *Oroimenaren laguntzalle*

Ori bai: oroimen-memoriaren laguntzalle, Aozko Literaturak zenbait xuxpergarri berezi ba zuala; zala

- a) kantua; zala
- b) ritmoa; zala
- d) rima, puntua; zala
- e) dantza.

Lau gauza auek memoriaren laguntzalle aundi ta indartsuak bait dira, gaurko Sikolojiak eta Pedagojiak aitorturik daukaten bezela.

Aurrak berak ematen digute neurri ta eredu gai ontan:

a) Aurrak beren memori-gauzak, kanta egin oi dituzte; eta ortarako berak duten sen ederrez,



b) kantu-gaia zatitu egin oi dute, itzai beren barruan duten "ritmo" ezkutua arkituaz; eta aizkenik, gorputzaren ibilli xume batez ere,

d) memori-gauza dantzatu oi dute. Guzti orri asko laguntzen bait dio baita bertsoaren rimak, puntuak ere.

Lau gauza oietaz baliatu izan da beti Aozko Literatura, gizonaren oroimenari lagunduaz, bere sorkariak iraunkor egiteko.

## II IKASGAIA

### AOZKO LITERATURA ETA LITERATURA "IDATZIA". IRU ALDE-DIFERENTZI

Olerkietan, bata "idatzia" eta bestea idatzi gabea izateak, sortzen du zenbait diferentzi.

1) Ageri-egeriko diferentzi bat, bata kantatua izatea da, eta bestea ez, rezitatua baizik. Aozkoa, kantuan eta kanturako sortzen da, eta kantuz bizi.

2) Bigarren diferentzia, bata bapatekoa izatea, eta beste ez. Idatziz lan-egiten duan olerkariak, asti luzeago artzen du, bere sorkaria ondo pentsatzeko eta bertsoa biribiltzeko. Gure bertsolariak, ordea, segundo ale-ale batzutan egin bear du bere lana. (Gero ikusiko degu nolako teknikaz).

3) Irugarren diferentzia —lenengo ta bigarren ortatik datorrena—: bertsolariaren pentsamena batetik bestera askotaz ere azkarrago ibiltzen dala.

Sakon ditzagun pixka bat, iru diferentzi auek.

\* \* \*

#### 1) KANTA, MELODIA

Kantaz, ez goaz gauza berezirik esatera; olerkariak ez bezela, bertsolariak bere sorkaria kantari sortzen duala; kantuak ematen diola ortarako neurri ta ritmo; kantuak esaten diola, bertsoa "puntu motxekoa" dan, ala "puntu luzekoa", eta zenbat puntuko: bi, iru, lau, bost... bederatzi puntuko.

Orra, bi puntuko eredua :

*Tiriki-tauki-tauki,*  
 malluaren otsa...  
 Laister ezkontzen dala  
 gure neskamotza.

Iru puntukoa :

Nere andreak ekarri zuan  
 Aranaz'tikan dotia ;  
 obe zukian ikusi ez balu  
 Berdabiyo'ko atia ;  
 orain etzuen ark idukiko  
 dadukan pesalunbria.

Lau puntukoa :

Morerira juan, ta  
 sutan bear det asi ;  
 emplio txarrerako (bis)  
 ez ninduten azi ;  
 zer egingo degu, ba ?  
 ill artian bizi...  
 Adios, aita ta ama (bis)  
 ta Mikeliñazi.

Bostekoa :

Uso txuria, errazu,  
 norat joaiten ziren zu ?  
 Espaiña'ko portuak oro  
 elurrez beterik dituzu ;  
 gaur gaberako ostatu  
 gure etxean ba dezu.

Seikorako :

Ango sukal-bazterrak  
 ikustekuak ;

labatzik bat-ere ez,  
 palta auspuak ;  
 alki zenduak,  
 iru edo lau arri  
 kintalekuak ;  
 ango zokuak  
 ezkondu ezkeroztik  
 garbitzekuak.

Zazpikorako :

Ikusten duzu goizean,  
 eguna asten denean,  
 menditto baten gañean,  
 etxe ttipitto aintzin xuri bat  
 bi aitz andiren artean  
 —iturriño bat aldean,  
 txakur txiki bat atean—?  
 An bizi nuzu pakean.

Zortzikorako :

Prantxisku : zer dakarrek  
 ik gure erritik?  
 Aspaldiyan ez diyat  
 ango berririk.  
 Zerbait jakin nai nikek  
 alderdi artatik ;  
 aserria niagok ;  
 ez dek milagrorik ;  
 ez diat egunik,  
 ez eta arratsik  
 —sinista nazak ik—  
 pentsamentuz etxera  
 juan gabetanik.

Bederatzikorako :

Ostegun joan danian

amabost, Ernani'n,  
 betroi baten tratua  
 genduen egin.  
 Saltzalle, Inazio ;  
 erostuna, Premin.  
 Emeretzi ezkutu  
 genion eragin.  
 Sabelian du min,  
 iñork ase ezin,  
 artuari muzin  
 —ez du nai edozin—...  
 Atzetik bear dittik  
 zazpi medezin.

Ez diogu ezer geiago.

\* \* \*

## 2) BAPATEKO BERTSOGINTZA

Auxe da, seguru asko, olerkariaren eta bertsolariaren artean diferentziarik arrigarriena: bapateko bertsogintza, *improvisación* esan oi dana.

Leen, bapateko bertsolaritza geiago zan baztarretan; gaur, Europan beintzat, Euskalerrian bakarrik arkitzen degu, onen ederrik eta bizi-bizirik.

Erromatarren olerkari famatu Berjilio'k, ba dirudi, bapateko bertsolaritzaren berri ba zuala; bere Egloga batean beintzat ipintzen du, bi artzairen arteko bertsolari-gudu bat, sariketa-eran.

Testamentu Zaarrean askotan aipatzen da bapateko bertsolaritza, kantatua gure artean bezela eta dantzatua gañera. Moises'en arreba Maria'k bertsotan kantari eta dantzari goratu zuan Jauna, ixraeldarrak Itxas Gorria oñez igaro zutenean.

Testamentu Berrian Zakarias'ek ere berdin egin zuan, bere seme Juan'en jaiotzean; eta Ama Birjiñak, herriz, bere *Magnificat*'ean, Santa Isabel'en bisitaldian.

Afrika'n orain-oraindik, Sahara Desertuko "touaregtarrak" ba dituzte beren bertsolari jatorrak; eta berdin, baita, madagaskartarrak ere; eta

berdin Asia'n afgandarrak. Ameriketan ere ba da olakorik zerbait, Tierra del Fuego dalakoan.

Europa'n zerbait-zerbait Galezia'n, eta Ingalterra'ko galestarren artean.

Bañan, gurea bezain autentiko ta bizi-bizirik, Europa guzian ez iñun. Ez da aundi-uste, ez arrokeri. Egi-egia baizik. Guztiok gera testigu. Bi bertsolari, ordu ta ordutan, bertсотan elkarrekin demandan aritzea, ori gure bertsolarien artean bakarrik ikusten da. Eta ori, edozein bertsolari-saiotan ikusiak gaude danok.

\* \* \*

#### BAPATEKO BERTSOGINTZAREN TEKNIKA

Bapateko bertsogintza, aldez aurretik prestatu gabea da.

Bertsogintzak, prestakizun zerbait ba du : urrutikoa.

Bertsolariak ba dute beren eskola. Bertsolariari Jaunak ematen dio bertsoetarako gustu eta zerbait errextasun. Bañan errextasun eta gustu orren barruan, gañerakoa, berak egin bear du. Zer? Lenengo, beintzat, entzun,entzun, bertsolariari entzun. Eta bertsolari-odolekoa baldin bada, bereala asiko da bera ere entsaioak egiten, bere indarrak besteran batekin neurtzen.

Ortik aurrera, dana, ari ta ari ta ari izango da.

Orixe da bertsolaritzaren urrutiko prestakizuna. Kantatzeko unean, ordea, bertsolariak ezin lezake artu, idatzizko olerkariak artzen duan betarik. Bapatean asi bear du kantatzen. Orri esaten zaio "prestakizunik gabe kantatzea", "bapatean kantatzea".

Ala ere, bertsogintza ez da ariera mekaniko bat; giza-lana da. Eta giza-lana danez, pentsakizun-lana da; arrigarrizko pentsakizun-lana dala ezik: segundo-ale-ale batzutan egin bearreko buruzko montaje-lana. Eta ez azkar egin bearra bakarrik; teknika berezi-berezia duana gañera... Atzekoz-aurrerako teknika...

Bertsolariak azkena esan bear duana pentsatzen du lenengo; eta azkeneko itz arekin "rima egingo duten" —"puntu-egingo duten"— iru itz asmatu bear ditu bereala. Eta ondoren, kantatzen asi puntu egiten duten itz aietatik; eta aizkenik, lenengo pentsatutako itzakin bukatu... Dana, atzekoz-aurrera, goikoz-beera. Dana, segundo ale-ale batzutan...

Orixe da bapateko bertsogintzaren teknika. Teknika arrigarria benetan. Bañan ori ere, ez, berak aukeratutako gai batean; bestek —dala beste bertsolariak, dala “maikoren batek”— ezartzen dion gaiean...

Adibide:

Morerira jua-da  
 sutan bear det *asi*...  
 Enplio txarrerako (bis)  
 ez ninduten *azi*.  
 Zer egingo degu, ba?  
 Il artian *bizi*.  
 Adios, aita ta ama (bis)  
 ta *Mikeliñazi*.

### 3) PENTSAMENTUEN IBILLI AZKARRA

Irugarren ezagugarri berezia, auxe da: bertsoaren barruko pentsamenaren ibilli, azkar, muturia.

Olerkariaren olerkia, bertsolariaren bertsoaren aldean patxarazko gauza da: Horatio Retorikoak eskatuko lukean patxarazkoa: bertso klasikoa; gure bertsolariarenari, bertso “barrokoa” eritziko genioke aren aldean. Bata geldia da; bestea, arin ibilkaria —lorerik-lore dabillen mitxeleta antzo—...

Gauza au adierazteko, argigarri bat ipintzea izango degu onena. Jose Zapirain'ek bere emaztearen eriotzean jarri zituanetan bat ipiñiko degu emen.

Kantak jarriko ditut  
 artzen badet betik,  
 neri gertatu zaidan  
 motibuagatik.  
 Eztet esango egiten  
 etzidala faltik  
 —biyotza kontsolatu  
 ezin penetatik—  
 iya atera nintzan  
 nere onetatik.

Nere sentimentuak  
 bear ditut esan :  
 suerte txarrerako  
 mundu ontan izan ;  
 gripek arrapatuta  
 emaztia il zan  
 —errezatutzen diyot  
 al dedana Elizan— ;  
 bederatzi umekin  
 alargundu nintzan.

Edozeñek igertzen dio bertso ontan, leen aipatu degun, pentsamena-  
 ren ibilli azkarrari, batetik besterako ibilli ariñari. Ibilli ariña alde ba-  
 tetik, eta retorikazko goxogarririk gabea bestetik... Bañan ori ta olako  
 beste zerbait, urrengo Ikasgaiari esango degu sakonago : Koplak Zaarrari  
 dagokion Ikasgaiari.

Ikustagun oraindik beste eruditxo bat ere, benetan pentsamen-ibilli-  
 -azkarduna, “Amalau eriyotzen” bertso-paperetik artua :

Ikusi zitunian senarra ta alaba  
 Katalina gaxuak, ai ! ura negarra !  
 Ez bazuan jarri nai bestiak bezala,  
 dirua nun zeguan “esan bereala” ;  
 ondo banekiyela dirurik etzala.

Eta, aizkenik, aditz berboaren bi elipsis polit egiten dituan arako  
 koplak ezagun-ezagun ura :

Donostia'ko neskatxatxuak  
 kalera (joan) nai dutenian : (esaten dute)  
 “Ama : piperririk ez dago, eta  
 ba nua salto batian...”  
 Eta *kriskitin-karkitin*, arrosa krabelin ;  
 Ba nua salto batian.

## III IKASGAIA

## AOZKO LITERATURA-SALLAK

Aozko Literatura, beste Literaturak bezain luze ta zabal da; beste ainbeste sail ditu. Eta bat geiago gañera. Literatura idatziak ez du bapateko bertsolaritzarik. Eta, ain zuzen, bapateko bertsolaritza da gure Aozko Literaturaren sallik berezi ta arrigarriena.

Bertsolariak kantari. Ori da gure Aozko Literaturaren lenengo salla. Eta orrekin batean beste sail bat: ipui-kontatzalleak kontari. Arta-ttxuriketari eta liñu-lanetan eta sukaldeko "supazter-txokoetan" eta ostatu ta sagardotegietan, inguruko jendea txoraturik entzuten eukitzen dituzten —zituzten— gure ipui-kontariak.

Bigarren salla bertso-paperen salla; A. Antonio Zavala'k millaka ta millaka pillaturik dauzkan bertso-paperak; bertsolari jator batek, agerian ez, bestela baizik jartzen dituan bertsoak, alegia; errietan zerbait aipagarri gertatzen danean-da, jartzen bait dituzte, edo-ta berai gogoratuta, edo-ta besteren baten aginduz, gero inprentatuta, kaleetan kantatzeko...

Irugarren salla, Koplak Zaarrena: dirala dantzarako koplak - trikiti-dantzarakoak - dirala errondakoak - Gabonetan eta Urte Zaarretan edo Santa Ageda, aterik-ate kantatu oi diranak, sail benetan berezia.

Laugarren salla, Azkue'ren, A. Donostia'ren, Salaberry'ren, Hiriart'en Madama Aristia'ren eta oien Kanta Bildumak, Bilduma benetan arrigarriak, bai ugariz —Azkue'k "milla ta bat" aitortzen zituan, askoz geiago izanik— bai edertasunez; dirala Maite-kanta, dirala Eztai-kanta, dirala Eliz-kanta, dirala Edale-kanta, dirala Eresiak...

Aozko Literaturaren sail osagarri bezela aipa ditezke baita, or aipatu ditugun Arta-txuriketaz eta Liñu-lanaz gañera, bereziki errietako Jostundegiak, ainbeste ta ainbeste kantu eder ikasi izan diran neskatzen Jostundegi gogoangarriak.



## IV IKASKAIA

## NUN TA NUN: JEOGRAFIA

Azkue'ren eta A. Donosti'ren Kanta-sortak aipatu ditugun ezkerro, esan dezagun zerbait, Aozko Literaturaren Geografiari buruz. Nun ta nun bildu dituzte gure Folklorezaleak, gure Aozko Literaturaren dokumental berezi-berezi diran kanta eder oiek? (Bildu, bildu, nunai bildu bait dituzte; bañan nun, batez ere? nun bereziki?).

Gai jakingarrria da, benetan, auxe! Galdera bera egin bait liteke bertsolarietaz ere: Nun sortzen dira bertsolariak? nun batez ere?

Nun au, ordea, bi eratan konprendi liteke: "nun" Jeografiaz? "nun" gizarte-mallaz? zein giza-kultura-barruan? Nik, azken oni begiratuko bait diot batez ere.

\* \* \*

Neretzat arantzuna garbia da: Aozko Literatura gure artean, dirala bertsolariak berak, dirala bertsolariak inoiz kantatu eta gero erriaren go-goan gelditu diran koplak ta kanta zaarrak, neretzat artzai-kulturaren barru-barruko gauzak dira. Eta euskal-kultura, bereziki, artzai-kultura izan bait da, Aozko Literatura Euskalerrri guzian zabaldurik arkitzen da; alderdi batzuetan geiago, besteetan gutxiago; bañan, arkitu, leku danetan; bañan artzai-lurretan —larre-lurretan— batez ere: erriberatan baño mendietan areago: Nafarroan, Pirene-mendi-artean... Eta, nafarren artean mintzatzan ari geran ezkerro, esan dezagun guztion pozetarako, Nafar-Pirenetan kokaturik arkitu dutela gure Folklore-zaleak, aozko gure Literaturarik ugariena eta ederrena: bai musikaz, bai itzez, letraz.

\* \* \*

Ola ez bait da arritzeko, gauza orren señaile bezela ikusten dana: gure kanta asko ta askotan, mendietako Portuak, Bortiak, ain maiz aipatzea, alegia.

Artzaiaren bizia, Bortietan, Portuetan, kokatzen da. Artzaiarentzat mendia da bizi-iturri: mendiaren bi aldeak; mendiaren bi aldeetan alaitzen bait ditu artzaiak dere ardiak. Mendia artzaiarentzat ez da muga be-

reizgarri; ibaiak dira artzaiarentzat bereizgarri; mendiak lokarri dira artzaiarentzat; bañan ori bai, lokarri, Portuen bitartez; Portua artzaiarentzat gauza benetan aipagarria da; orregatik kantatzen die ain maiz artzaiak Portuai. Ikusi besterik ez dago :

“*Bortian* ahuzki - hur hunak osoki

kantatzen zuan Etxaun’go arlote aundiak ;

“Espainia’ko *Portuak* oro

aipatzen ditu, gure artean, bear bada ezagunena dan “Uso txuria”ren kanta politik ;

“Arranoak *Bortietan* gora dabilta egaletan

berriz, gure kantarik arrotuenak ;

“Tru Kapitainek - *Bortian* eneganaturik

berriz, gure kantarik erromantikoenetan bat danak :

“Tru Kapitainek - *Bortian* eneganaturik,  
Paris’at ekarri ninduten  
aitak eta amak jakin gaberik.

Eta nork ez du ezagutzen, arako beste kanta pinpirin ura?

“Txorittua, norat hua - bi egalez aidean?  
Nafarra’lat yoaiteko - elurra duk *Bortian*.  
Junen guttuk elgarreki - ura eltu denian.

Olaxe kantatzen dute —kantatzen diote— artzai-kantak, artzantzako leku diran Portuai ; bai musikaz, bai itzez benetako txoragarri diran gure artzai-kantak.

\* \* \*

Eta itzak, letrak, aipatu ditugun ezkerro, uki dezagun letraren puntu au pixka bat astiroxeago.

Letra oiek erderazko loxikoa geitxo erabiltzen dutelako, gure gazte-denboran, begi okerrez begiratzen zitzaien —begiratzen genien—.

Neroni entzunik nago A. Donostia bati, lantua jotzen “Arranoak Bortietan” aztartzean; eta lantua joaz nola esaten zigun itzaldi polit batean, lastima aundia dala kanta egalari eder ortan, arranoaren egada gaingirozkoa pintatu ondoren, olerkariak giro orri ez eustea, eta jeistea, gero esaten dituan uskerietara. Gero ikusiko degu, nola ta zergatik jeisten zan bertsolaria, goi aietatik, itz auek esatera :

“Ni ere lehen andereki - ebiltan kanberetan.  
Orai, aldiz, ardura - ardura - nigarra dizut begietan.

Aita Donostia’ri, bere garaiko giroari jarraikiz, bukaera sentikor orri nolanaiko uskeria zerizkion.

Azkue’k ere, zenbait kantu erdera-kutsukoai egiten dizkion muxiñak, oso ezagunak dira. Olako giroa zegon orduan. Gaur gauzak beste era batera irizten ditugu. Itzari baño pentsamentuari obeto begiratuaz.

\* \* \*

Portuez eta Bortiez gañera, gure kantak aipatzen dituzten beste gaiak ere, aipagarriak dira. Kanta oiek, mendi goretako zugaitzak aipatzen dituzte —pagua batez ere—.

Larre gorrian epherrak haide,  
pagodietan usoak...

Beste bat :

Arboletan den ederrena da  
oihan beltzian pagua...

Elizanburu’k bere “Solferino’ko itsuan”, “ur-axalean dohan ainhara” aipatuko zuan —behéretako gauzak, alegia—. Elizanburu etzan artzaia; artzaiak, Portu goretako gauzak aipatzen dituzte, eta zugatz artean, pagua batez ere... eta ainhararen ordeez, usoa, uso ego-azkarra :

Larre gorrian epherrak haide ;  
pagodietan usoak.

\* \* \*

Nekazaritza gure artean gallendu zanean, ordea, bertsolaritza nekazarietara ere zabaldu zan. Nekazarietara eta langilleetara.

Nekazaria zan Etxaun; eulea Xenpelar; errotaria Pello Errota; Nekazaria Udarregi; argiña Txirrita; nekazaria da Mattin, eta artzaia Xal-bador...

## V IKASKAIA

### KOPLA ZAARRAK

Kopla zaarren zaartasuna jakin nai degunean, asko ta asko gotiko-kutsuz beteak arkituko ditugu orain zazpireun urteko gotiko-oituretan sartu-sartuak. Adibidez, etxeko seme zaldunez mintzatzen dan ura, eta etxeko Jaunaren urrezko bizarrez eta, etxetik Elizarako bidea estaltzeko aña zillarrezko errealhikoz mintzatzen diranak... Dan ori Erdi Aroko giro jator-jatorra bait da.

Bañan Kopla Zaarrak ez dira zaar, gaiaz bakarrik; zaarragoak dira oraindik koplaren beraren teknikaz.

\* \* \*

### KOPLA ZAARRAREN TEKNIKA

Kopla Zaarrak, ba dakizute nolakoak diran. Koplaren lenengo erdian, arako gauza polit bat esaten du, koplak dakarren gauzarekin zer-ikusirik ez duan gauza polit bat; eta bigarren erdian, koplak esan nai duana, bere arian datorrena.

Adibidez: Gabonetan koplariak etxeko jendeari diosal-egin nai dio, eta bere kopla itz oiekin asten du :

Au aizearen epela!  
Aidean dabil orbela...

eta gauza polit orren ondoren, onela jarraitzen du :

Etxe ontako jende leiálak,  
gabon Jainkoak diela.

Kopla Zaarretako asko ta asko, ola eratuak daude.

Kopla Zaarraren teknika au, izugarri zaarra da. Ain zaarra, uste bait det nik, len-leengo bertsolariak beren bertsoak beti ola egiten ziuztela, eta gauza onek, bertsolaritzak berak, ibillian-ibillian egin duan izaera-al-datze bat agertzen digula. Ea alkar aditzen degun.

Neri Ligex bertsolari zuberotarrarekin gertatu zitzaidana esango dizutet. Gerra-aurreko kontu zaarra da. Gure Ligex bertso-saio batean ari zala, aren bertsoak kopla zaarren kutsu zerbait zutela iruditu zitzaidan, eta baita berari esan ere. Bertsoaren asieran, arako zorabiozko zati bat igerri nion kantatzen zuala, eta gero bertsoaren erditik aurrera ematen zuala, bere bertsolari-lagunari eman bear zion erantzun zorrotza - kopla zaarretan egin oi dan bezela-bezelaxe. Eta nik ori berari esan nionezan, berak neri erantzuna, au izan zan: Baietz; berak, Zuberoan, askotan, bertsoaren lenengo erdia, orla betetzen zutela, eta gero beste erdian esan, esan bearrekoa; bertso osoa esan-bearrekoz betetzea, emengo oitura zala eta gauza zallagoa; aien lana, soseguzkoagoa zala... Soseguzkoago, bai, bañan, neretzat baita politagoa ere; politagoa eta baita zaarragoa ere... eta, emengo bertso gintza, leengo artatik guk aldatua ez ote dan pentsakizun ematen duana... emen ere, leen, ola egiten ez ote genduan, alegia.

\* \* \*

#### KOPLAREN BARRUKO "ETENA"

"Etena": koplaren erdiak, beste erdiarekin zer-ikusirik ez izatea da... itxuraz zer-ikusirik ez, barru-barrutik bai arren...

Aztertu dezagun gauza au. Ikus ditzagun eredu batzuek.

Au aizearén epela!  
Aidean dabil orbela...  
Etxe ontako jende leialak:  
gabon Jainkoak diela.

Aizearen epeletik asten da kopla; eta ari ortan jarraitzen du erdiraño. Bañan bigarren erdian beste gauza bat, lenarekin zer-ikusirik ez duan beste gauza bat esaten digu:

Etxe ontako jende leialak :  
gabon Jainkoak diela.

Orixe da “koplaren etena” esaten deguna ; erderaz *incoherencia* esan-go litzakena ; gure koplak *incoherentes*, etenak dirala, alegia... Bañan itxuraz bakarrik bait dira ola ; barru-barruan bai bait da or zer-ikusi bat, lokera bat, lokarri bat ; lokera ori, beste Literaturatan oitua ez dala ezik ; Literatura Idatzietan oitua ez, alegia.

Izan ere, Literatura Idatzi oituetan, lokerak, lokera “buruzkoak” izan oi dira, “lokera horatiana” esango gendukeana ; lokera filosofikoa, “asieratik ondorengorakoa”, “osotik pusketarakoa”, “egilletik egiñerakoa”... itz bitan “lojika horatiana” esango gendukeana.

Quinto Horatio Flacco, erromatarren Retoriko famatua zan ; eta bere beste zenbait gauzaen artean, *Arte Poetica* bat idatzi zuan, olerkariari beren lanerako bide zuzena erakusteko. Eta Horatio onek, bere *Arte Poeticaren* asiera-asieran auxe eskatzen die olerkariari : beren sorkarrietan izan dezatela lojika ; ez dezatela beren sorkaria, buru eder batetik asi, bañan gero buru ederrari zaldi-lepoa erantsi, eta zaldi-lepoari egazti-gorputza, eta egazti-gorputzari, aizkenik, arrai izugarri baten isats-aldea... itz batean, izan dezatela beti ere lojika beren sorkarrietan. Bañan, ori bai : lojika filosofikoa. Eta ortan dago, gure koplarien eta Horatio'ren elkarren aurkako burruka ; gure koplak ez dutela askotan filosofiazko lojikarik... Bañan, ala ere, ezin esan bait liteke, bat-ere lojikarik ez dutenik ; ba dute beren lojika, Filosofiaz bestekoa Horatio'z bestekoa ezik : “Filosofia-lojika” ez baño “Poesi-lojika” baizik.

Filosofia, jekinduria, buru-gauza dan bezela, Poesia, Olerkia, buru-gauza ez baño, irudimen ta biotz-gauza areago bait da : irudimen, fantasi, sentimen-gauza. Eta sentimenak eta irudimenak ere ba dute beren lojika. Eta orixe da, ain xuxen, gure koplaren lojika ; ez Horatio'ren lojika, bañan bai poesi-lojika. Itz bitan : gure Kopla Zaarren “etena” ez dala ain etena ; ba dala tarte ortan lokarriren bat, zer-ikusiren bat, artu-emanen bat, buruak baño areago irudimenak ulertzen duana.

Gauza da, kopla oien barruko lokarri ori, gure erriak beti ulertu ta onartu izan duala. Kopla oiek gure erriak beti kantatu ditu ; eta ez lituzke kantatuko, orren “etenak” balira ; arbuyatu ta baztartuko zituan onezkero, bertsolari ta koplari txarren koplak historitako Juxto ta Longinos batenak arbuyatu izan dituan bezela.

Orain eun urte ta geiagoko kontua da. Eta, ala ere, jendearen gogoan irauten du oraindik. Xenpelar'en egunetan, Errenteri-inguruan ba ziran bi bertsolari txar —oso txarrak—; bañan beren ustez Xenpelar bezin onak. Botatzen zituzten bertsoak, izugarri “aldrebesak” ziran; eta aldrebesak ziralako, jendeak far aundiak egiten zituzten entzutean.

Alakoren batean, norbaiti gogoak eman zion, farrezko ase on bat egitea, bi bertsolarien kontura. Burrukatxo bat eratu zuten Lezo'n Xenpelar'en eta Juxto'ren artean. Zeñi txalo geiago jo jendeak. Juxto, benetan aldrebes ari izan zan; Xenpelar, broman. Jendeak oraindik ere gogoan dauzka orduko bertso batzuek.

Xenpelar'ek aal zuan aldrebeskeriarik aundienak esan naiez, onela kantatu zuan :

Txantxangorri batenak  
sei libra tripaki;  
zazpi ontza labore,  
zortzi arto jaki;  
baiak iriña eio,  
errotak eralki;  
kanibetak erre, ta  
labeak ebaki...  
Oien madria zein dan  
Xenpelar'ek daki.

Justo'ren erantzuna, ola izan zan :

Neguan otzak, eta  
udan txingurriak;  
orbela ta zipotza  
denak ziyatuak;  
subia ta ziraba  
dauzkat inguruan;  
bildur-bildurak nago  
sartzeko mixtua.

Jendearen farrak izugarriak izan ziran, Juxto'ren bertso oiek entzutean.

Erriak bereizten ditu ederkitxo Juxto'ren bertsuak eta Kopla Zaa-

rrak. Juxto'ren eta Longinos'en bertsoak "aldrebesak" dira erriarentzat, egiazko "etena" dute. Kopla Zaarrak, ez. Erriak arkitzen du or "lokarri" bat.

## VI IKASGAIA

## KOPLA ZAARREN BARRUKO LOKERAK

Kopla Zaarren barruko lokera ori osatuko duana batzutan, ez da izango Koplaren beraren gaia, gaiaren inguruko zerbait baizik; bestetan ez da izango gaiaren inguruko zerbait ere, koplariaren eta entzuleen barru-giro zerbait baizik... nik al dakit?

\* \* \*

Kantagaiaren ingurua, ederkitxo ageri da onako Gabonetako Kopla ontan :

Astoak on dik oloa ;  
 idiak arto-lastoa...  
 Gabon-jaietan edan dezagun,  
 Petiri, ekar ardoa.

Kopla au, Gabonetakoa da. Gabon : Jesus'en Jaiotza. Jaiotzan, astoa ta idia, Aurra berotzen... Koplaria ta kantatzalleak, Petiri'ren ostatu-aurrera oraintxe iritxi dira. Koplariak, Jaiotzako astoari ta idiari begira, ala dio : "Asto ta idi oiek ba ditek zer-jan ; gu emen gitxaudek egarri... Petiri, ekar ardoa". Ostatu-giroa da or, koplaren batasun-egille.

\* \* \*

Ikustagun orain beste bat :

Au aizearen epela !  
 Aidean dabil orbela...  
 Etxe ontako jende leialak,  
 gabon Jainkoak diela.

Kopla au ere Gabon-jaietakoa da. Eta, etxerik-etxe gabez kantatzen



da, Gabon-zaleak etxeokoi diosal-egiteko. Koplaren giroa, gaba da; gau otza, bear bada; nolana dala, koplariak gau on bat opa bear die etxeokoi, gau on bat, gau epel bat; orra zergatik dion koplariak: "Au aizearen epela! Aidean dabil orbela"; eta ondoren, etxeokoi Gabon epel goxo bat opa... Berriz ere, kanpoko giroa, koplari batasun-ematen.

\* \* \*

Ikustagun oraindik beste bat ere, ari beretsukoa :

Elizatikan konbenturaño  
egin digute kaltzada...  
Azkeneko eguna da, eta  
guazen guztiok dantzara.  
Txin-txirikitin txilibitu-soñua;  
txin-txirikitin danbolin...

Zer du zer-ikusi Elizatikan konbenturañoeko kaltzadak, azkeneko eguneko dantzatu-bearrarekin? Ikustagun.

Kopla au Erromeri-kopla da; Erromeriren bateko dantza-kopla. Erromerian neskatxa asko dira; bañan aien artean bat, laister konbentura monja joan bearrakoa. Ortixik dator Konbentua ta Konbenturako kaltzادا aipatzea :

Elizatikan konbenturaño  
egin digute kaltzada...

Monja joan bear duanak, ain xuxen, gaur du dantzatzeko azken-eguna :

Azkeneko eguna da, eta  
guazen guztiok dantzara...

guztiok, monja-gaia ere bai...

Orra nundik datorkion, "eten-itxurako" kopla oni ere bere batasun : Koplaren beraren girotik oni ere : monjagai baten despedida-dantza bait da.

(Ondoren datorren "Txin-txirikitin" dalako ori, gero ikusiko degu zer dan).

\* \* \*

Beste eredutxo bat, batasuna, kantatzallearen barruko sentimenetik artzen duana :

Larrosatxoak bost orri daukaz ;  
klabeliñiak amabi...  
Geure seintxo gura dabenak,  
eskatu beio amari.

Beste Kopla “eten-itxurako bat” au ere ; koplariaren sentimenak batasun-ematen diona. Ama batek kantatzen du ; eta bere semetxoa eta larrosak eta klabeliñak aipatzen ditu. Izan ere, ama batentzat bai al da, larrosa ta klabeliña politagorik bere seme txikia baño? Amaren maitasunak ematen dio batasun koplak polit-polit orri ; kanpoko giroak ez baño barruko sentimen jator batek : amaren pozak, amaren biotz ameslariak.

#### MAJIA-KUTSUKO KOPLAK

Inguru-girotik eta barrunbe-girotik batasuna datorkien Koplak Zaarrek ikusi ditugu. Gorago igo bear degu orain, eta ikusi, oraindik batasun garratzagoa duten beste Koplak batzuek : majia-kutsu zerbait duten Koplak, eta kutsu ortatik koplaren batasuna datorkienak.

Ipiñi dezagun adigarri bat :

Eder zeruan izarra ;  
errekaldean lizarra...  
Etxe ontako Nagusi Jaunak  
urre gorrizko bizarra.

Berriz ere “eten-itxurako” koplak bat. Bañan au ere “eten-itxura” bai, baño barru-barruan naiko batasun duana : majia-kutsuko batasun berezi bat. Ikustagun.

Jakiña da, “majia-kultura” deritzan kultura-giroan, gauza bati eta aren irudiari balio bera ematen zaizela. Majia-kulturadun batentzat balio bera du gizon baten irudiak —iñajiñak— eta gizonak berak —balio bera edo beratsua—. Orregatik, majia-kulturadun batek norbaiti eriotza opabadio, gizonaren argizaizko irudi bat egin eta irudia orratzez josi-josi oi du, irudiari egin diona, gizonari berari gerta dakion...

Gauza baten izena, berriz, nolapait gauzaren beraren irudi bat da ;

gauzaren izenak eta gauzaren "izanak" balio bera dute; izenak eta izanak ba dute elkarren artean zerbait balio berdin, zerbait batasun.

Orregatik ez da arritzeko, majia-giroan sortutako koplak batean, balio berdiña izatea gauza batek eta aren izenaren antzeko dan beste edozein izenek, edozein itzek: adibidez, *izarrak*, *lizarrak* eta *bizarrak*. Itz bitan: koplak aietan —majia-kutsudun koplak oietan— bertsoaren batasuna lortua dago, puntu rima bera duten edozein itzen bitartez... Rimak berak —rima soil-sollak— ematen dio koplari bere batasun; ez koplaren giroak, ez koplariaren sentimenak; izen soil-sollak berak baizik. Ola da Koplak Zaar onen batasun berezi-berezia:

Eder zeruan izarra;  
 errekaldean lizarra...  
 Etxe ontako Nagusi Jaunak  
 urre gorritz du bizarra.

## VII IKASGAIA

### APAIN-OLERKIA

Esan-nairik gabeko Olerkia da Apain-olerkia. Esan-naidun Olerkiaren apaingarri izateko sortua da bere izatez. Apaingarri. Plastik Arteetan ere ba da, "Apain-marrakzi" eta "Apain-talla" esan oi dan zerbait ("Artes decorativas"). Berdin, baita, Olerkiaren inguruan ere ba da, gure artean, Olerkiaren apaingarri erabiltzen degun zerbait. Euskalerriaz beste errietan gutxi erabiltzen da. Gure artean, ordea, zabalkunde aundia du, Aozko Literaturan; ez Literatura Idatzian.

Leen aipetu degun arako Koplak Zaar artan ikutu degu olako apur bat:

Elizatikan konbenturaño  
 egin digute kaltzada...  
 Azkeneko eguna da, eta  
 guazen guztiok dantzara.

*Txin-txirikitin* txilibitu-soñua;  
*txin-txirikitin* txilibitu-tsanbolin

Koplaren bukaerako *txin-txirikitin* orri esaten diogu "apain-olerkia".

Gai onen muña bear bezela astertzeko, ipiñi dezagun beste eredu argiagoko bat. A. Donostia'k, nere jaiot-errian, Oyartzun'en bildutako seaska-abesti polit bat aipatuko degu :

Ttunku-rrunku ; ttunku-ttunku ;  
 ttunku-rrunku ; ttuna ;  
 runku-ttunku ; ttunku-ttunku ;  
 runku-ttunku ; ttuna.

Aztertu dezagun Apain-olerki au, Apain-arteen aldean ipiñi-ta.

Apain-arteetan ez dago figurarik ; ezta Apain-olerkietan ere ezer esan-naikorik, argi-argirik beintzat. Apain-arteetan, lerroa (linea) ta margoa ta ore-masa zerbail degun bezela, Apain-olerkian ere berdin degu, Olerkiaren itzen ritmo-ibillia, lerroa, letra bokalen margoa, eta letra konsonanteen ore-masa antzeko zerbait. Eta iru elementu oiek elkarrekin naasiaz, gure kantariak sorkari polit bat sortu digu Seaska-Abesti ortan. Aurra lokartzeko izan diteken sorkaririk egokiena. Ikus dezagun.

\* \* \*

Olerki onen melodia txoragarria alde batera utzirik ere, Olerkiaren silabaen ariak, bi aldetara dabillen ibilli goxo bat gogorazten digu : seaskaren ibilliaren antzeko aruntz-onuntzako ibilli goxo bat. Orra, lerroa, linea.

Olerkiaren izki-bokal illun-antzeko "u" orrek, berriz, lotarako gela illun baten giroa gogorazten digu. Orra, margoa, kolorea. Lo-giro orri, berriz, asko laguntzen bait dio, tartean dabillen "n" orrek ere, bere barrunbe-ots bigunarekin. Orra, ore masa. Aurrari lo-arrerazteko, ezin bait liteke gauza egokiagorik asmatu. Alda dezagun bestela, olerkiaren bi ta irugarren elementu ori, eta ikusiko degu.

Ken dezagun, lenengo, barrunbe-girodun "n" ori, eta ipiñi gero, tarteko "u" bokal illunaren ordeztu, "i" bokal argia ; eta ikusiko degu, nolako beste giro bat sortzen zaigun olerkiaren barruan : len "lotarako" zan kanta, orain "dantzarako" biurtu zaigu. Ez musikaz bakarrik, baita gañerako kanta-giroan ere... Izan ere, len seaskan zegon aurra, orain iñudearen esku-gañean, gora-ta-bera dantzan dabil... Ikus :

Ttiki-riki; ttiki-ttiki;  
 ttiki-riki; ttona;  
 riki-ttiki; ttiki-ttiki;  
 riki-ttiki; ttona.

\* \* \*

#### IZKUNTZA ESTILIZATUA

Apain-olerkian, “esan-nai argirik beintzat ez dagola” esan degu. Argi-argirik, ez; bañan ezkuturik, bai. Azal dezagun zerbait gauza au.

Naiz dala “Ttun-kurrunkuttun”en, naiz dala “Ttiki-riki-ttiki”n, be-ti ere esan-nai zerbait eskutatzen da tarte ortan. “Ttunkurrunkuttun”en, *kuttun* bat; eta “Ttiki-riki-ttiki”n, *ttiki* bat. *Kuttun* eta *ttiki*. Abesti ortako aurrarentzat ezin egokiago diran itzak.

Apain-Arte guztietan —naiz dala Apain-pinturan, naiz dala Apain-Eskulturan ere— berdin gertatzen bait da: ango lerro ta margo ta masa-jokoan, bereala ikusten degula figura zerbait. (Ez bait da arritzeko, izar-lerrotan ere giza-irudiak ikusten bait ditugu; dala “Dabid’en gurdia”, dirala “Iru erregeak” edo “Kolka-txitoak”...).

Berdin baita, gure Apain-olerkian jokuan dabiltzan lerro, margo ta ore-masatan ere, bereala ikusten degu zerbait esan-nai, esan-nai ezkutu naasi bat, itzak mozorrotuaz, deformatuaz sortzen dan izkuntza estiliza-tuan.

Neurri ortan, iru mallako Apain-olerkiak arki ditzakegu:

- 1) esan-nairik ez dutenak;
- 2) esan-narik dutenak, ezkutu-ezkutuan ezik;
- 3) erdia, esan-naidun diranak, eta erdia, esan-narik gabeak...

Ipiñi ditzagun eredu batzuek:

Lenengo mallakoa izan bait liteke, arako, Trikiti-koplatan ain maiz erabiltzen dan estribillo ura:

Lan; lan; lan;  
 laran-laran-laran-laran;  
 Lan; lan; lan;  
 laran-laran-laran.

Edo arako, "Lelo'ren kanta" deritzan beste ura :

Lelolirelo ; lelolirelo ;  
leloa-zarai, leloa.

Bigarren mallako eredu izan liteke, arako, onomatopeyaz eta estilizazioz osatutako, bazkari-menu xeblebre ura :

Xirixiti-mirixiti, gerrena, plat ;  
olio-zopa, kikili-salda,  
ururup edan edo klik !  
Ikimilikili-klik ! !

Edo arako bele-eiza azkar erabateko ura :

Baga, biga, iga,  
laga, boga, sega,  
zai, zoi, bele  
arma, tiro, pun !

Irugarren mallako eredu bezela, aipa dezakegu, arako "Iru damatxo Donostia'ko"ren estribillo poxpolin ura :

Eta *kriskitin-kraskitin*,  
arrosa krabelin...

Ari berekoa da, aizkenik, iru edo lau aldiz aipatu degun, arako "Elizatikan konbenturaño" dion, monja-gaiaren despedidako estribillo bixkor arin ura :

*Txin-txirikitin*, txilibitu-soñua,  
*txin-txirikitin*, txilibitu txanbolin.

\* \* \*

#### ONOMATOPEYA

Estilizazioaz gañera, Apain-Olerkian sartzen da beste osagarri bat era : Onomatopeya.

Onomatopeya, gauza bakoitzak bere ibillian ateratzen duan otsaren antzeko itza da. Adibidez, *trakatan-trakatan*, zaldia adierazteko erabiltzen

deguna; eta *fafa-fafa*, trena adierazteko; eta *txio-txio* txoria esateko...

Gizonaren lenengo izkuntza, onomatopeyaz betea izango zan. Gerora, aurrera joan alean, sortuko zituan gizonak, gauza bakoitzarentzako bestelako itzak.

Bañan gero ta gerora ere, gizonak, erabilli zituan onomatopeyak bere izkuntza arruntean.

Aurra da, beste zenbait gauzai bezela, onomatopeyari geien eutsi dio-na. Gizon egiñak, onomatopeya gutxiago erabiltzen du bere jardurioan.

Ala berean, zenbait izkuntzek, besteak baño geiago erabiltzen dute; eta gure Euskera, onomatopeyatan oso degu aberatsa. Adibidez, *danbatekoa*, itz arrunta degu euskeraz, leioak aizearen indarrez egin duan otsa adierazteko; eta, ala berean, baita *zaplatakoea* ta *kankatekoa* itzetik ortzera erabiltzen ditugu; eta berdin *txirristatu* ta *punpatu* ta *zartatu*, ta *zurrupatu*; eta *tarratara*, *purrustada* eta *tarrapataka*; eta *marraka* ta *zaunka* ta *txorrotxio* ta *txiruliru* etab.

Apain-olerkiaren eredu erabilli ditugun bertsoetan, onomatopeya jator-jatorrak ditugu, arako *urru*! (edan), *klik* (irentsi), *kikili*-salda (egazti-salda), *pun* (tiro) eta *kriskitin-kraskitin* eta *txintxirikitin* (txilibitu-soñua). Eta oiek bezela, beste asko ta asko.

## ERASKIN

### APAIN-OLERKIA TA NEOLITIKO-ARTEA

Gure Apain-olerkia eta Neolitiko-arte, biok ari bereko arteak bide-dira.

Prehistori-zaleak diotenez, Neolitiko-gizonaren artea, arte estilizatu-zan.

Paleolitikoarena, bai, "realistagoa" omen zan, gauzak diran bezelago adierazten zituana. Bañan Neolitiko'ra iristean, gizonaren artea estilizatu-ago egin omen zan: gauzak biziago, bizkorrago, ezurrutsago ematen zitu-ala, alegia: estilizatuago.

Gure Apain-olerkian ere berdin gertatzen zaigu: gauzak azkarrago, bizkorrago, bañan baita ezurrutsago —estilizatuago— esaten dirala.

Gure Apain-olerkia, Txalapartaren antzeko zerbait da. Txalaparta,

Musikaren estilizazioa da, ritmo uts, musika-ezur-uts. Apain-olerkia ere, berdin.

Nik uste, Neolitikoko gizon euskalduna, txalaparta-zalea izango zala, eta, ala berean, baita Apain-olerki-zalea, onomatopeya-zalea ere... euskaldunok gaur oraindik geran bezela.

\* \* \*

Bukatzeko; olakoxe antziñaterik aundieneko gauzak ditugula euskaldunok gure kultura-alor jatorjatorrean.

Munduan aurreratuenetakoak gerala alde batetik, eta antziñate-kutsurik aundienetakoak bestetik.

Iruñea'n, 1973'gn Uztailaren 16-17'an.





## Ume-kantak

Itzaldi, Ernani'ko "URUME" Ikastolak antolatuak. 1976'gn.

Epaillak 24 Erriko Etxean.

### AUR-KANTAK

Jaun-andreok :

"Aur-kanta eta aur-kantaren garrantzia". Orra or nere itzaldi onen gaia. Ez neronek aukeratua; bestek eskatua baizik. Bañan nik pozik aztertuko dedana. Bai bait dago gai ontaz zer-esanik asko, eta, bear bada, baita zer-zuzendurik ere. Gauza aundirik ez baño...

\* \* \*

Izan ere, norbaitek uste lezake, aur-kanta, ximplekeri bat dala, nolainai egin litekean bertso-xorta, ezer sustantzizko gauzarik esaten ez duana, eta, orregatik, ez aztertzerik, ezta jaramonik egiterik ere merezi ez duan ximplekeri bat...

Ola mintzatzea, bai, izan litekeala ximplekeria. Aur-kanta, gizonaren historian, ori baño zain eta zuztar luzeagoak dituan gauza da. Luza-roko urtetan, Erriaren barrunbean, ezarian-ezarian, konturatzeke egosi eta mamitu dan sorkaria. Gogo-sorkaria. Espiritu-sorkaria. Bere legeak dituan giza-lana; lege oiek begi ernez azertu bearrekoak dirala ezik; begi ernez eta maite-begiz...

Gero ikusiko ditugu, pixkatxo bat bederenik, lege oiek.

Bitartean, orra seinalatu, gai ontan izan diteken iritzi okerra: umeen kantak "umekeriak" dirala, ezer balio ez duten gauzak dirala: iritzi okerra.

\* \* \*

Eta oraingotz kantaren beraren muña aztertzea gerorako utzi-ta, ikus dezagun astirotxoago ume-kanta, berè giroan, bere inguruan, bere historian.

## KANTA TA JOLAS

Ume-kanta, beti ere, ume-joku batekin alkartua ikusten degu.

Izan ere, ume-jokuak ez dira ari-utsekoak, jardun-utsekoak; kanta-tuak izan oi dira, kantudunak, beren letrarekin eta beren melodiarekin; melodi-melodia, edo-ta lelo semitonatua bederenik.

Eta, ondo begiratzeko badiogu, jokuak berak aurretik beste gauza bat eskatzen bait du: aukera, elekzioa: lagunena aukera batez ere, eta baita lekuarena ere. Eta aukera ori kantua bitartez egiten da...

Umeen jostaketak —“jolasak” Goierrian esaten dan bezela— geienean —beti ez badira— “zein-geiagokako” jokuak izan oi dira; zein geiagoka, bi sailletan, bi bandotan; eta bi sailak egiteko “zein zeñekin”, “zein ze sailletan” suertez ateratzen da; eta —ontan dago kantaren garrantzia, eta ez txikia— kanta baten bitartez osatzen dirala sailak, kanta baten bitartez egiten da bakoitzaren lagunena aukera. Aukera egin ondoren, danak errespeto aundiz errespetatuko duten suertea; gustokoa dala edo ez dala, danok erespetatuko dutena... Eta orra or —diot berriz ere— ume-kantak duten garrantzi bat, inportantzi berezi bat: umeai gauzak gizonki, demokratikoki egiten erakusten diela; ots! iritzi asko diranean, gauzak arbitrajek egiten erakusten diela, suertearen arbitrajek, bañan suertea kantak erabakitzen dualarik... “Ume-kantaen garrantzia” esan degunean, norbaitek pentsa bait lezake garrantzi pedagogikoa aipatzen degula; “pedagogikoa”, ots! memori-oroimena edo berdin ritmoaren sena ere umeetan bizkorrazteko zerbait, alegia. Garrantzi ortaz gañera kantari beste garrantzi bat ere aitortu bear bait zaio: demokrasi-ezike-tarako garrantzia...

\* \* \*

Guztiok gera gauza onen testigu. Guztiok jolastu izan gera umetan, eta guztiok daukagu gogoan, nola kantuz erabakitzen genduan, bakoitza zein salletako izan.

Onela bait zion kanta oietako batek, arruntenak :

Don, Don, irten ;  
sakati fuera.

Eta beste batek :

Don, Don, kandel ;  
Barriola, Barriola,  
plixt!

Beste batek beste onela bait zion :

Arriyola, Briyola,  
etxala, kamala ;  
bito-bitoria,  
bringun-brangun  
plixt!

Bat dala, bestea dala, nolanai-dala, ume danak errespetatuko duten suertearen formula.

#### JUSTIZI-SENA UMEETAN

Olako formulak umeen artean izateak —jolaserako olako aukera-bideak izateak, alegia— umearen berdintasun-sena, *justicia distributiva* esango gendukenaren sen-instintoa adierazten digu garbi-garbi. Bañan *justicia distributivaz* gañera baita beste sen-instinto bat ere : eta ez ain txarra : aukeramen-sena. Ikusiko degu bereala.

Burrukarako —konpetentziarako— sena, gizonarekin berarekin batean jaiotzen dala esan diteke, gizonaren biotzean. Eta burrukarako senarekin batean, beste sen bat ere : jauntxo-sena, agintari-sena ; eta oiekin batean baita beste bat ere : aukeramen-sena, partido-sena : “ni jauntxo onekin”, “ni onen alde”, “ni onen fabore” ; eta “ni, herriz, beste onekin” : aukeramen-sena, alderdi-sena.

Umeen jolasetan ere berdin gertatzen bait da ; aldeaz aurretik bakoitzak bere aukera egiña euki oi du bere baitan ; bañan jolasa eratzean gerta bait liteke nai zuten danok alderdi batean ez sartzea, ez kabitzea ; orduan, bakoitza zein alderdiko izan, arbitrajez erabaki bear... Umeak beren sen jatorrez arbitraje ori zeñen eskutan uste dezute uzten dutela? Kantu baten eskuetan : formula kantatu baten eskuetan. Ori da, ares-tian esan degun “Don, Don Kandel”en arrazoi-bidea. Kantak erabaki dezala... Eta, leen ere esan degu-ta, umeak kantaren arbitrajea, txinto-

-txintxo —naiz ta pena aundiz— txintxo-txintxo errespetatuko dutela, demokrasi-sen eder-eder baten barruan.

Kanta izango da, beraz, arbitro, kanta juez demokrasi-joku ontan.

\* \* \*

Gauzaren egiteko modua bera, danok ezagutzen dezute.

Jostatu nai duten danak, korro bat egiten dute. Buru egin oi duanak —beti ere izaten bait da norbait, naita edo nai-gabe, jauntxo ibiltzen dana— buru egiten duanak asten du kanta, kantaren silaba bakoitzatza, lagun bakoitzari “tokatzen” zaiola (*Don Don Kan-del*) eta azkeneko silaba (*plixt*) tokatzen zaiona, bando bateko izango da; eta bigarren aldiz kantatuta, azken-silaba tokatzen zaiona, ura beste bandoko, etab. etab. etab. lagun guziak pasa arte. —Eta guzti ori ain zuzen eta ain zintzo, ez bait da zintzoago egingo, ezta erri-basoetan udazkenean egiten dan erriko “suegurraren suertea” bera ere—.

\* \* \*

Nere itzaldi onen izena —leen ere esan det-eta— gutxi-gora-bæera onela da: “Ume-kanta eta ume-kantaren garrantzia”. Orra, bada, or, ume-kantaren garrantzi bat, eta ez txikia, kantaren beraren barruko izae-ran sartzen ez bada ere, kantaren beraren axaetikako gauza gertatzen bada ere. Gaurko ume-jolas demokratikoaren bidez, bigar egin bearko duten beste “giza-jolas” demokratikorako iadanik eta dagoneko prestatzea... Garrantzi txikia, axaleko garrantzia, bear bada; bañan emen aipatzea egoki zana, umeen “betiko mundu txikia” ezagunerazi nai liguken gure gaurko itzalditxo ontan.

NORK SORTU?

Egin dezagun urrats bat aurrera.

Nork sortu du ume-kanta? ume-kanta beti. “ume-kanta” izan al da?

Nolanai-dala, ume-kantaren barrua bear bezela ezagutzen duanak, nekez sinistuko du, olako gauza bat umeak sortua danik. “Olako gauza bat”; gauza arrigarri ori; “arrigarria”, gero ikusiko degun bezela.

Eta, izan ere, ez bait da umeak sortua; ezta, “gizon elduak umeen-izako sortua ere”. Garbi-garbi ageri danez, gizon elduak —eta emakume elduak— “berentzako” sortua da: beren entretenigarri noizpait sortua,

eta gero, gizon elduak baztatu zutenean, umeak berentzako artua, eta, berek dakiten bezela, gaur arte eukia, leen aundien entretenigarri izan zan bezela, orain txikien entretenigarri izan dedin.

Ikusiko degu.

#### ANDRE-SALTO

Neretzat arrigarri izan da beti, “Andre-salto” deritzan jolas bat ume-jolasetan arkitzea; umeak egiten duten jolas-jostaketa bat, ain arrunt eta ximplea, gaur umeak berak ere, ia aaztu bait dute; bañan bere izen jatorra ori bait du, “Andre-salto”. Eta izen orrek agertzen digu, arestian esan deguna: ez dala umeentzat sortutako jostaketa, Andreak berentzako sortua baizik.

Ez dezagun aaztu, ordea, “Andre” itz orrek bere jatorriz esan nai duana: gaur edozein emakumerentzat esan oi dan arren, jatorriz, *Andreak*, ez edozein emakume, *Señora* baizik esan nai duala; “Sí, Señora” esateko, “Bai, Andrea” esaten bait da, “Sí, Señor” esateko, “Bai, Jaurna” esaten dan bezela; eta, neurri ortan, “Etxeko Andrea”, “Etxeko Jaurnaren” pareko da.

“Andrea”, emakumeen malladian mallarik gorenean dagon itza da; mallarik, kategoriarik gorenean... Eta, ala ere, “Andre-saltua” gure artean jolasik xume ta arruntena izan da —bere egiteko moduan maleziapurren bat leen izan zezakean arren, gero-ta salto goragokoa egin bearrekoa bait zan, gonak apur bat jaso bearrekoa, alegia—; nolanai-dala, jolas xume, arrunta, bañan gure erririk gorengoenetan iñoiz, Igande-arratsaldeetan poz batean egingo zana...

\* \* \*

Zuetako batek baño geiagok ikusiko zenduten, nexka kokkorak nola egiten duten oraindik ere, beren jolas ori beren jolas-lekuetan.

Bi nexka —kantuz “suertea” botata, “pago” gelditzen diranak— exertzen dira lurrean, aurrez-aurre, bi oñak elkarren kontra dituztela; eta gañerakoak, illaran, saltoan pasatzen dira alde batetik bestera, exeritakoen oñak ikutu gabe; ikutzen duana, “pago” gelditzen bait da.

Zer esanik ez, nolako farrak egingo dituzten danok salto aietan. Are-ta geiago, lenengo pasa-aldiaren ondoren, “pago” daudenak anka ankaren gañean ipintzen bait dute, eta salto aundiago egiñaz pasa bear

saltalariak; eta irugarrenean ukabilla jartzen bait dute oiñaren gañean, eta laugarrenean bi ukabil elkarren gañean, eta boskarrenean arra, eta seigarrenean bi arrak... orrerazkero ez bait da iñor, balla ura ikutu gabe salta lezakeanik.

Ez dakigu, kantarik zuan ala ez; bañan bai euskeraz zuan izena, “Andre-salto” zala; ori naikoa bait degu, guk orain nai deguna jakiteko: ez umeak, emakume “egiñak” —Andreak— sortua dala, alegia.

Eta jarrai dezagun aurrera.

Ikusten denez, jolas au, salbo-ta, zaldizko hipiko-saltoaren antzekoa da; esia ikutu gabe egiteko saltoa...

Olaxe entretenitzen ziran, orain eunka urte, Igande-arratsaldeetan gure errietako mallarik goreneko Damak, Erriko Plazaren erdian, gizase-meak pelota-lekuan pelotan ariko ziran artean.

Olaxe entretenitzen ziran, bai, Dama gore aiek, arik-eta, aurrera-bearraren aurrera-bearrez, beste jolas aberatsagoak sortu-ta, errexagoko aiek utzi zituzten arte.

#### IPUR-XIMIKO

Andre-saltoa aipatu degun bezela, aipa ditzakegu beste jolas geiago ere, eta oien artean, “Ipur-ximiko”, erderaz “La gallinita ciega” esaten dana. Jolas ori ere, Goya'ren tapizetarako kartoieta azaltzen denez, umeen artean ez baño, emakume elduagokoetan areago ikusten zan; Goya'k, orain berreun urte eskas, ola pintatzen bait zuan jolas ori: emakume elduen artean.

Eta, “Ipur-ximiko” aipatu degun ezkerro, ikus dezagun nolako zere-moniaz egiten zan gure txiki-denboran; zer kanta erasten zitzaion.

Beti bezela, kantuz suertea botata, “pago” gelditzen zanari, begiak pañueloz lotzen zitzaizkion edo buruko txapela ezpañetaraño sartzen genion; eta bera kantuan —rezitatu batean— asten zan, eta besteak erantzun; eta kantua bukatzen zanean, besteak banatzen ziran, bañan aldjian bein, zimikoren bat, —atximurren bat— atzeko-aldean egiten zioten, eta berak bere itsuan norbait arrapatu nai, arik-eta arrapatzen zuan arte.

Ara kanta :

—Ordubata jo du?

—Ez,

—Ordubiyak?...

- Amabiyak?  
 —Bai.  
 —Nere opilla erre al da?  
 —Baita erre-ta jan ere.  
 —Neretzat zer da?  
 —Txakurraren bost arrautzak.

Orren ondoren asten bait zan atximur-aldiya, ipur-ximikoa.

#### ARTATXURIKETAK

Jolas ta kanta oiek Erriko Plazaetan egiten zirala esan degu. Eta dudarik gabe, Igande arratsaldeetan egiten ziran.

Erdi Aroan zan ori.

Gero, Erdi Aroa pasatakoan, emakumeak, bear bada, trukean entretenitzen asi bide ziran.

Gaur zinera joaten dira, bai emakumeak, bai gizasemeak.

Bitarte ortan, “Azkoitia”ko jauntxoak” dantzak eta teatrotxoak eta operetak ere entseatu zituzten errietan.

\* \* \*

Bañan beti ere gogoan euki bear deguna gai ontan, beste au da: gure artean beti izan dan beste Kanta-eskola ta Jolas-eskola jatorra, jostundegiak ere bai, bañan batez ere “Artatxuriketak” izan ditugula: Orixe’k, bere Poema “Euskaldunak”etan aipatu eta bizi-bizi pintatu dizkigun bilkura jator aiek.

Illundu ezkerro etxerik-etxe auzoak biltzen bait ziran etxeko goiko ganbaran, izenak dion bezela artaburuari txurikiña kentzeko lanetarako; bañan baita liño-lanetarako ere, liño-lan ondoren, ardatzean, goruetan aria iruteko eta gero liño-ariz Eundegian miesa ta izara ederrak eiotzeko.

Benetako “beillak” *soireak* bait ziran Artatxuriketeta aiek; beste aldeetako *soireak* baño lan geiagorakoak ezik, bañan nolanai zala, beti ere jolaserako txolartetxoak eratzen zituzten bilkura alaiak; dantza pixka ere egiten bait zan, eta baita Teatro zerbait ere —oso elementala ezik, entremes-itxurako pantomimak— eta tarte ortan esku-joku ta jolas parregarri alai asko ta asko...



Nere esaierarako, Artatzuriketariak sortuak ditugu, arestian aipatu ditugun eta laister aztertuko ditugun kanta ta jolas bitxi oiek; beti ere izan oi bait dira olako bilkuretan, artarako txinpartadun, naiz gizon, naiz emakume jostallu-jostalluak.

“Jostallu” txinpartadun oiek norañoko grazia zuten neurtzeko, olaño Kantatxo bat gogoraziko dizutet, guztiok dakizutena, bañan emen gogoraztea merezi-merezi duana —gizon jostalluren batek emakumeen kontra asmatua seguru asko, letrak adierazten duan bezela, bañan benetan grazi-aundiduna—: “Kukuarena”.

Kukuak kantatzaten du  
 Mayatzean “kuku” (kuku, kuku);  
 Andreak ba dituzte  
 milla matrikula (kuku, kuku).  
 Oyea ez zuten dira  
 gaxorik daudela:  
 estemaungo txulotik  
 sentitzen dutela... (kuku-kuku).  
 —Eta zergatik? (kuku)  
 —Txokolatiagatik, (kuku)  
 mama goxuagatik, (kuku)  
 mixtelagatik, (kuku)  
 kariñenagatik...  
 Bizirik ez al aiz jaikiko  
 su-emanda baizik.  
 Kuku, kuku...

\* \* \*

Eta mixtela ta “mama goxua” aipatu ditugun ezkerre —eta Ernani’ko Plazan gauden ezkerre— farrez-farrez bederenik aipa dezagun, mama goxua edan zuan, eta, ikusten danez, Xole izena zuan ernaniar neskatxa:

Xole ta Xole,  
 Xole gaxua!  
 Xole’k edan du  
 mama goxua.

Kantak gero ola jarraitzen bait du :

Ernani'ko Plazan  
 iru atso dantzan ;  
 irurak etzuten  
 ardit bana poltsan.

Soldado-usaia dariote bi kopla oiek ; soldado-xarraen diana-doñuan kantatzen bait dira ; seguru asko gerrateren baten barruan sortuak... Lenengo karlistatean, bear bada, ernaniarren laidogarri...

Bañan barka dezaiozun. Eta goazen nere itzaldi onen bigarren erdira.

## BIGARREN ERDIA BARRU-AZTERKETA

EZER ESAN GABE, DANA ESATEN

Ume-kantaen axaleko historiari dagokion zerbait lenengo erdian esan degun ezker, pasa gaitezen bigarren ontan, kantaren beraren barruko azterketa zerbait egitera.

Iraizean ikutu ditugun Kanta-ereduak naikoak dira Kantak berak nolakoak diran jakiteko. Gogora dezagun bat edo beste.

Don, don, irten :  
 sakati fuera.

Edo-ta :

Don, don, kandel :  
 Barriola, Barriola,  
 plixt !

Edo-ta :

Arriyola, Beriyola ;  
 etxala-kamala ;  
 bikto-biktoria,  
 bringun-brangun  
 plixt !

Edo-ta :

Arriola-marriola,  
kin-kuan-kin ;  
portazela, portamin ;  
arrixamalet-marrixamalet  
kirun-karun,  
pek!

Olako Kantak entzutean, edozein otutzen zaiona, zera da : ez dutela ezer esan-nairik ; eta, izan ere, askotan ala da ; misteriozko itzak besterik ez dira —gizona beti ere misterioz inguraturik bizi da— ritmo ta pinturazko formula misteriodun batzuek, ezer esan-nairik ez dutenak —umeak ideia gutxi— entzuten dituan bakoitzak bere esan-naia ematen dien formulak. Bañan askotan, formula ritmiko-pintoresko izanaz gainera, beste esan-nai zerbait ere izaten bait dute. Ola, “Xirrixti-mirrixti” esaten diogun, eta eun-da-bere-aldiko oturuntza adierazi nai duan ura :

Xirrixti-mirrixti,  
gerrena, plat ;  
olio-zopa, kikili-salda  
urru-*edan* edo *klik* :  
ikimilikiliklik!

Bazkari aundi bat adierazi nai bait du ; ironiaz adierazi ere ; itxuraz oturuntza aundi, benetan gauza mirritx ; “gerrena” bai, “okelarik” ez : dana “salda” : *urru!* *edan* edo *klik!* Bazkari merke.

\* \* \*

Berdin gertatzen bait da, guk inoiz “olerki abstraktu” esan izan diegun “ume-kantu” batzuekin ; “Ttunku-rrunku” ta “Ttiki-rriki”rekin, adibidez.

Begira :

Ttunku-rrunku ; ttunku-ttunku,  
ttunku-rrunku-ttuna ;  
rrunku-ttunku ; ttunku-ttunku,  
rrunku-ttunku-ttuna.

Ezer esan-nai ezeko itxuran, azpikoz gañerako silaba batzuen tartean, eten gabeko *kuttun*-kate txoragarria egozten bait dio amanatxoak, seaskan lokartzeko daukan illozatxoari...

Eta orren antz-antzeko beste kanta ark ere berdin eiotzen bait du, silaba naasi batzuen barruan, *ttiki-ttiki*'zko kate ukigarria, orain esna-esna dagon txikitxuarentzat.

Begira :

Ttiki-rriki; ttiki-ttiki,  
ttiki-rriki-ttona;  
rriki-ttiki; ttiki-ttiki,  
rriki-ttiki-ttona.

Ezer esaten ez, eta dana esaten. Olerki abstraktoa.

#### ERROMATARREN "NENIAK"

Olako erduen aurrean esan al liteke, ume-kantak umekeriak dirala?

"Neniak" esaten zieten olako kantai Erroma'ko Olerkariak; ezagutzen bait zituzten berak ere olako ume-kantak. Bañan ez bait det uste, gure kantak aien "neniai" zor aundirik zietenik. Nolanai-dala, bai, danok alkarrekin zer-ikusi ba zutela; arritzekoa bait da, guk aurrari "nini" esaten diegun bezela, aiek ume-kantai "neni" esaten zietela. Arrigarria benetan.

Ortaz gañera, olako neniak kantatzeari berari aiek "lalare" esaten bait zitoten, nunbait kanta aietan "la-la-la" asko esaten zutelako, salbo-ta, gaur oraindik gure artean *trikitixen* koplata-tartean esan oi dan bezela :

Lan-lan-lan;  
laran-laran-laran-lan-lan

edo-ta :

Lau-lau-lau;  
dotia ba det baña;  
lau-lau-lau;  
arduak galdu nau.

Edo-ta, gure betiko *leloan*

Lelo, il lelo,

esan oi zan bezela; edo-ta gaur oraindik

Altza Pelipe, *trula-lai*  
*tulalai, trula-lai.*

“*La*” ori, kanta guztien ama bait da, leenagoko errepin batek zion bezela:

La-la-la, kanta guztien ama da.

Olakoxe misterioak dituzte gure kantak, gure ume-kantak, beren barru-barruko tolesturetan ezkutatuak, Erromatarrakin berakin naasten gaituzten misterioak.

#### RITMOA UME-KANTAETAN

Azertu dezagun gauza au beste pixka bat geiago; eta ikusi, zer geiago eskutatzen dan, kanta oien barrunbean.

Bi gauza seinalatuko nituzke nik batez ere gai ontan. Lenengoa, ritmoa, eta bigarren, ots biribillak, ots ozenak. Pinturan, alde batetik aria “linea” esango gendukeana, eta bestetik “kolorea”.

Artu dezagun edozein ume-kanta, eta ikusiko degu guzti ori ederkitxo.

Ikustagun lenengo, linea, ritmoa; bi kantaen bitartez ikusiko degu ederkitxo.

Don, don, kandel;  
Barriola, Barriola,  
plixt!

Kanta onen aria, ritmoa, garbi-garbi, *ritmo binarioa* da.

Ikus dezagun orain, beste bat, lenengo orren kide-kidekoa:

Arriyola, briyola,  
etxala-kamala;  
bikto-biktoria,  
bringun-brangun  
plixt!

Kanta onen aria, ritmoa, kontrara, garbi-garbi, *ritmo ternarioa* da; obeto, lenengo erdian, ternario, eta bigarreanean, binario: *bringun-brangun...*

Nolanai-dala, ondo begiratzten badiegu, beti ere orixe ikusiko degu; ume-kantak oso ritmikoak dirala. Eta, ortaz gañera, ritmoaren bidez ume-kantak marrazki bat, soñuzko dibujo bat egiten digula. Bañan ez ori bakarrik; letraen soñuen bitartez, ez dibujo "monokromo" bat bakarrik, baita koloredun pinturaki kuadro bat eta gorpuztun erreliabe bat ere egiten digula.

Ikustagun.

#### MARGOA, KOLOREA, UME-KANTAETAN

Aurrera jarraitu baño len, esan dezagun, letra bokal bakoitzak ba duala bere kolore, eta kontsonante bakoitzak ba duala bere gorputz. Eta, bokal ta kontsonante, bion artean, ritmoaren bidez, pinta dezaketela pinturaki kuadro bat, edo-ta baita eskulturazko erreliabe bat ere. *U* bokala, adibidez, bokal illuna da; *I*, berriz, bokal argia. *TZ* kontsonantea, letra latza; *X* ta *LL*, berriz goxoak etab. etab.

Ari orri jarraituaz, ikustagun, ritmoaz gañera, ume-kantari aitortu diogun beste gauza: kolorea eta gorputza; silabaen letrak kantari ematen dioten izaera, alegia: kolore-izaera eta gorputz-izaera.

*Ttunku-rrunku, ttunku-ttunku* artan ederkitxo ikusi bait degu gauza au: *u* bokal illunak, eta *n* kontsonante barrunbekoiak kantari ematen dioten kolore eta gorputz-izaera nabarmena; batez ere, beste *Ttiki-rriki, ttiki-ttiki* aren aldean jartzen badegu.

\* \* \*

Euskal-toponimian ba dira izen bi, ume-kantaetan kolore-gauza orotarako leku aundi izan dutenak: *Arriola, Barriola*; iru kantaetan gutxienez arkitzen bait ditugu.

Ikus:

Don, don, kandel;  
*Barriola, Barriola*  
*plixt!*

Edo :

*Arriola, Marriola,*  
kin-kuan, kin ;  
porta-zela, porta-min ;  
arrixamalet-marrixamalet,  
kirun-karun  
pek !

Edo :

*Arriyola, Briyola,*  
etxala-kamala ;  
Bito-Bitoria ;  
bringun-brangun  
*plixt !*

Irugarren onen bukaerako *bringun-brangun* orrek ere grazi berezia ematen bait dio kantari : ots-aundiko grazi berezia. Beste kanta batean ere arkitzen bait degu, ez umeak kantatzeko, umeai kantatzeko baizik, seaskaren onomatopei-otsa iduri :

Begira :

*Bringun-brangulun* eragidazu ;  
laister aziko natzaizu ;  
laister azi-ta, ongi lagundu  
fabore izango nauzu.

Olako ots-aundiko itzak ugari arkitzen ditugu, umeen bizi eta arte-giroan :

Ikus :

—*Din-dan* : nor il da ?  
—Peru zapataria.  
—Zer egin du pekatu ?  
—Erregéren txakurra urkatu.  
—Ori ez duk pekatu.

Edo-ta :

*Din-dan*, boieran ;  
gure aurra koleran ;  
*dingindin-dangandan*

*dingindin-dan ;*  
*dingindin-dangandan*  
*dingindin-dan.*  
*Din-dan, boleran*  
 Elizango kanberan...

Ikusten denez, dana ritmo ta dana ots-aundi. Dana onomatopeya. Eta ots-aundiko onomatopeya jator-jator batekin beste batek ala bait dio :

*Bunbullun-bunbullunete*  
 botillan aguardiente ;  
*bunbullun* bat eta *bunbullun* bi,  
*bunbullun* putzura erori ;  
 edan zituan pitxer bi,  
 etzan orduan egarri.

Gañerakoan, “ots-aundiko” itzen artean, beti ere oituenak, itzaren bukaeran *on* dutenak izaten bait dira ; ola, leen aipatu ditugun

*Don, don*

aiek ; eta aien antzeko besteau :

*Pin, pon, lauseron ;*  
 tres sardinas y un *capón* ;  
 saltsa-pika, tortolika,  
 de *putzon* ;  
 aitona *Martzelón*  
 kiski-ti-kaska  
*kaska-melón*...

#### ONOMATOPEYA

Eta Onomatopeya aipatu degun ezkerre, aztertu dezagun Onomatopeyaren egitekoa, ume-kantaetan.

Bi gai aipatu ditugu orain arte, ume-kantaen gai ta giro bezela : ritmoa (kantaren dibujoa, aria) eta silaba otsaundikoak (kantaren kolore ta gorputz). Bi gai oien ondoren eta errenkada berean, Onomatopeya arkitzen degu, kantaren gai pintoreskoa, bera ere.

Jakiña da “Onomatopeya” esaten zaien itzak, zer diran : gauzak be-



ren ibillian ta bizian ateratzen duten otsaren antzeko itzak: *traka-traka*, adibidez, astoaren onomatopeya, eta *trakatan-trakatan* zaldiarena, eta *kukurruku* ollarrarena; eta, berdín, beste ainbat eta ainbat: *danba!* atea aize-boladarekin ateratzen duana, eta *pil-pil* legatzak kaxuelan egin oi duana, etab. etab.

Ume-kantak asko erabiltzen duan gauza da Onomatopeya. Orain arte aipatu ditugunez gañera —*din-dan*, *bringun-brangulun*, *dingindin-dan-gandan*, *bunbullun-bunbullun*'ez gañera, alegia— beste asko ta asko Onomatopeya azaltzen da, txitian-pitian, ume-kantaetan: txori-kantarena, adibidez, *txin-txirikitin* eta *txiru-liru-li*, etab.

Azkemeko au askotan entzuna bait da, ikustagun orain *txin-txirikitin* dion beste ori, polit askoa, bere Goierriko izaera jatorrean.

*Txin-txirikitin*, txorie,  
txoritxo txilibitarie...  
Erein nuan garie,  
oso arlo aundie;  
uste nuan eun anega,  
imiña bat zan guzie...  
*Txin-txirikitin* txorie,  
txoritxo txilibitarie.

Guztiok askotan entzuna bait dezute onako beste au ere:

*Txin-txin*, txilibitu-soñua,  
*txin-txin*, txilibitu txanbolin.  
Kattalin, nere maitea...

Umetan esaten genduan far-ipui batek, berriz, ola zion:

Exemplo berexi:  
Nik azak egosi;  
egosi ta *klik*.  
—Gexurra diyok ik.

*Klik* orreek, janariak eztarrian pasatzean ateratzen duan otsa esan nai du: *Klik*... Eta eztarri-kontuan izan diteken Onomatopeyarik osotuenaren berriz arako beste ura bait da: *ikimilikiliklik*; bai ritmoz, bai ots ozenez izan diteken osotuenaren. Entzun dezagun beste bein ere kanta osoa:

*Xirixiti-mirixiti*, gerrena, plat :  
 olio-zopa, *kikili*-salda  
*urru*! edan edo *klik* :  
*ikimilikili-klik*!

Eta bukatzeko, gogora ditzagun ollarraren *kukurrukurekin* umeak dituzten jolas-kantak :

- Kukurruku!
- Zer diozu?
- Buruan min.
- Zeñek egin?
- Axerkok.
- Axerko non da?
- Errotapian.
- Zertan?
- Artaliak biltzen.
- Artaliak zertako?
- Olluari emateko.
- Ollua zertako?
- Arrautza eitteko.
- Arrautza zertako?
- Apaizari emateko.
- Apaiza zertako?
- Meza emateko.

Eta orren ondotik, Katekesis-apur bat :

- Meza zertako?
- Gu ta mundu guziya salbatzeko.

Olaxe, Folklore a ta Katekesis a, eta Katekesia ta Forklore a, sorta batean polikitxo bildurik.

*Kukurrukudun* beste jastallutxo bat ere bai bait da, ez ain ezaguna ezik. Iru abereren alkarizketa Gabon-gabe an: Ollarra, idia ta bildotxa.

Ollarrak : —Kukurruku! “Jaio da Jesus!” alegia.

Idiak : —Nuuuun?

Bildotxak : —Beleen; Beleen...

## OLERKI ABSTRAKTOA

Jarrai dezagun aurrera.

Onomatopeyaren bitartez lortu du Ume-kantak Olerki Abstraktoa. Ikusi ditzagun bi Epigrama abstrakto: "Bunbullun"en Epigrama bata, eta "Atxiyo-Matxiyo"rena bestea.

Bir Entzun "Bunbullun"ena :

*Bunbullun-bunbullunete...*  
botillan aguardiente...  
*Bunbullun* bat, eta *bunbullun* bi  
*bunbullun* putzura erori;  
eran zittuen pitxer bi;  
etzen orduan egarri.

Onomatopeyaren bitartez gertakari bat kontatzen du Kanta onek. "Bunbullun" izena zuan batek, bi ttotta-trago aundi xamarrak egin dittu nunbait, eta, jakiña, moxkortu egin da, eta moxkorturik, *bunbullun* putzura erortzen da; eta, egarri bazan-ta egarri, aztu zituan ederki egarriak...

Edan zittuen pitxer bi;  
etzen orduan egarri.

Poema abstrakto txiki bat; Epigrama abstrakto bat.

\* \* \*

Entzun orain "Atxiyo-Matxiyo"rena :

*Atxiyo-Matxiyo, Perolipan :*  
nere semia errotan...  
Errotara ninjoala  
topatu nuan erbi bat;  
kendu nion begi bat,  
para nion berri bat...  
*Errota-pio, klak-klak.*

Gertakari au ez da Bunbullun'ena bezain garratza; bañan ba du bere grazi, batez ere eiza-zale diranentzat. Perolipan'go Matxiyo'k erro-

tara bidali du semea; semeak bidean erbia topatu du; mutil erne-erneak erbiari begia kentzea lortu du; eta gero, *postizua*-edo, ez dakigu, begi berri bat ipiñi dio...

Perolipan'go Matxio eiztariaren ipui ori egia bazan-ezpazan —eiztariak gezurti-fama izan oi dute— tarte ortan egi bat zan benetan egi: Errotak artoa eioten jarraitu zuala: "*Errotapio-klak-klak*": Errotaren onomatoyeya bizi-bizia.

Olakoxe ume-poema abstraktoak topatzen ditugu, umeen Kantutegi txoragarrian. Onomatopeyaren bitartez, onomatopeyaren abstrakzio-indar bortitzez.

#### ERDAL-ITZAK TARTEAN

Beste gauzatxo bat ere ba da ume-kantaetan, umeak misteriozko zerbait bezela oitzen dutena: euskerazko kanta-barruan, aldian bein, erderazko itzak sartzea —dirala gaztel-erdera, dirala prantzi-erdera, dirala latin-erdera—.

Olakoetan ba dirudi, ez zerbait pintoresko bezela bakarrik —bai bait du alako pintoresko zerbait, euskeraren barruan, sorpresan, erderazko itzak sartzeko oitura orrek— bañan baita, magiazko indar zerbait duan misteiozko gauza bezela ee.

Gauza sakratu baten balioa dutela bait dirudi, asieran aipatu ditugun suerte-formula aietan, arako erdal-itzaiek:

*Don, don* irten:  
*sacati fuera.*

Edo: Arriyola, Briyola  
*echala camala,*  
*vito-vitoria,*  
bringun-brangun  
plixt!

Edo: Pin-pon,  
lauseron:  
*tres sardinas y un capón;*  
*salsapica, tortolica* de putzon.

\* \* \*

Latiñetik artutako zenbait itz ere erabili oi bait dituzte aldian bein Eliz-gauzaen imintzioak egiñez : Ola :

*Domina, Domina tua ;*  
il dala Marta'n astua ;  
egin du testamentua :  
lau anka eta burua.

Erderazko itzak tartean sartzeko oiturari jarraituaz, ba dira baita zenbait ume-kantu, umeai kantatzen zaizkienak, Goierri-aldeko onako au bezela :

Loa, loa, *txuntxurrun-berde* ;  
loa, loa, masuste...  
Aita gurea Bitoria'n da  
ama mandoan artu-te.  
Aita gurea Bitoria'n da  
ama mandoan artu-te ;  
aita gureak diru asko dakar  
ama perien saldu-te.

“Berde” itz orrek ez bait dakigu, zer misterio duan umeen jolasetan ; San Juan bezperako suai ere umeak, zenbait lekutan, “San Juan *berde*” esaten bait diote, eta jaiari berari “San Juan *berde* egitea”.

Kantako beste *txuntxurrun-berde* orrek ere ez dakigu zer esan nai duan.

\* \* \*

Ikustagun orain, erdarakadaz osatutako beste eredu berezi au : naa-sixeagoa ; nik esan bear banu, Artatxuriketan egiten ziran pantomimae-tako bat bait da : ama-alabaen arteko dantza-pantomima farragarri bat.

Ikus :

- Mariquita muchacha.
- Qué mandai, marè? Txin-txibirin-txin-txin.
- Quita la manteliña ;

vamos a baile. Txin-txibirin-txin-txin.  
 Bolinen-bolinen,  
 fardin-fardin,  
 gordin-gordin...  
 Ala're baskune.  
 Que burdún, que bardán ;  
 arrua le burdún,  
 turún-tarán,  
 tariari-arán...  
 Ala're baskune.  
 Prantzes-euskaldune.

#### NUMEROAK UME-KANTAETAN

Numeroak, beti ere, zenbait kultura zaarretan garrantzi aundia izan dute; batez ere zenbait numerok, zenbait zenbakik: iruak, adibidez, eta zazpiak eta amabiak...

Gauza onen argigarri, aipa ditzagun emen zenbait zenbaki-poematxo, umeak beren kantuetan erabiltzen dituztenak. Eta aietan bat, arako "Baga, biga" deritzan eiza-poema xume-xume ura :

Baga, biga, iga,  
 laga, boa, zea,  
 zai, zoi bele  
 arma, tiro : Pun !

Beste "Numero-kanta" batek, numeroen misterioa ume-kantaetan pixka bat adierazteko bidea emango digu.

Numeroak ume-kantaetan, beetik gora eta goitik beera kontatzen dira. Zergatik? zertarako?

Izan bait liteke, memoria, oroimena bizkortzeko —mnemotekni-ari-keta bezela, alegia—. Salbo-ta mingaña askatzeko beste kanta bat erabiltzen dan bezela. Danok dakizute :

Akerrak adarrak okerrak ditu ;  
 adarrak okerrak akerrak ditu ;  
 okerrak akerrak adarrak ditu.

Kanta ori, mingaña azkartzeko dan bezela, zenbakiak beetik gora eta goitik beera trukatzeko ori izan bait liteke, umeen memoria bizkortze-

ko. Bañan, ez dakit zergatik, bañan nik beste misteriozko gauza bat ikusiko nuke zenbakien trukatzeko ortan; misteriozko beste zerbait; nik bi kantatan arkitzen bait det joku ori, eta biok amabi numerodunak dira, eta ba dakizute, *amabi* beti ere misteriozko zenbakia dala.

Bi kanta oietan bata, "Gure Jauna bera da bat" diona da; eta bestea "Irun'go mayo" deritzana.

#### IRUN'GO MAYO

Gero ikusiko degu, "Mayo"-kontu ori zer zan. Entzun dezagun lendarabizi kanta bera, dan bezela :

Irun'go mayo; a zer apariya geniken bart! (bis).

Erratilluam eper bat; Irun'go mayo; a zer apariya geniken bart!

Irun'go mayo; a zer apariya geniken bart!

Bi tortollo; erratilluan eper bat; Irun'go mayo; a zer apariya...

Irun'go mayo; a zer apariya geniken bart!

Iru ollo, bi tortollo, erratilluan eper bat; Irun'go mayo...

Irun'go mayo; a zer apariya geniken bart!

Lau antzara, iru ollo, bi tortollo, erratilluan eper bat; Irun'go...

Irun'go mayo; a zer apariya geniken bart!

Bost pirillo, lau antzara, iru ollo, bi tortollo, erratilluan...

Irun'go mayo; a zer apariya geniken bart!

Sei zikiro, bost pirillo, lau antzara, iru ollo, bi tortollo, erratilluan...

Irun'go mayo; a zer apariya geniken bart!

Zazpi zezen, sei zikiro, bost pirillo, lau antzara...

Irun'go mayo; a zer apariya...

Zortzi idi, zazpi zezen, sei zikiro, bost pirillo...

Irun'go mayo; a zer apariya...

Bederatzi basaurde, zortzi idi, zazpi zezen, sei zikiro...

Irun'go mayo; a zer apariya...

Amar karga zardin berri, bederatzi basaurde, zortzi idi...

Irun'go mayo...

Amaika karga erre-kafe, amar karga zardin berri...

Irun'go mayo...

Amabi karga puro erre, amaika karga erre-kafe...

Irun'go mayo...

Amabitan bukatzen zan kanta. Etzan amairurik.

\* \* \*

Mayoen oitura, oitura zaar-zaarra zan. Ez emengoa bakarrik, Europa guztikoa —India'tik asita, Europa guztikoa, esan ditekena—. Eta ba ziran “mayoak”, mutillak, eta ba ziran “mayak” neskatxak.

Nafarroan ia orain arte izan da olako oitura bat. Neskatxak Mayatzaren asieran Erregiña bat aukeratzen zuten; eta beren ura, Igande arratsaldetan, txuriz jantzita, sillatxoan artuta kalerik-kale eramaten zuten, eta Erregiñaren izenean kantari, kalean ikusten zuten edozeiñi txanpon bat eskatzen zioten, ola bildutako txanponakin gero txokolatada bat-edo beren artean egiteko. (Zenbait lekutan, biltzen zutena, Elizako gastutarako izaten zan).

Bañan oitura onen osagarri, ba zan beste oitura bat ere: mutil “mayoena”.

Apirillaren azken-egunean, mutillak bilkura batean suertetara ateratzen zuten —zenbait lekutan “subastan”— erriko neskatxarik ederreña zeñi “tokatuko”, illabetean bere ura kortejatzeko.

“Kortejatzea”, jakiña, illunabarrean neskatxaren ate-ondoan bere arekin izketan egotea izan oi zan.

Bañan gero, illuntzean, mutil guziak sallean, etxerik-etxe ibilliko ziran, erriko neskatxa guzien atetan kantari, bakoitzari bere kopla. Olaxe illabete guzian.

Eta illaren azkeneko egunean, afari aundi bat... Ikusi dezute, nolako izan oi zan Irun'goa: asi eper batetik, eta amabi karga puro erre, bederatzi basaurde, zortzi idi, zazpi zezen etab. etab.

Orra, guk geurok umetan entretenigarri kantatzen genduan “Irun'go mayo”ren kanta sonatua, gaur sobera aaztua, bañan ez nolanaikoa: letra ta doñu...

#### GURE JAUNA BERA DUK BAT

Beste numerodun kanta, oso ezaguna gaur, “Ez dok amairu” esaten zaiona da, benetan “Gure Jauna bera da bat”. Eta itz gutxitan, Kristau-Doktriñaren laburmen bat da. Galde ta erantzun. Onela:

—Esaik bat.

—Gure Jauna bera dok bat.

—Esaik bi.



- Erroma'ko bi Aldareak, gure Jauna bera dok bat.
- Esaik iru.
- Iru Trinidadeak, Erroma'ko bi Aldareak, gure Jauna...
- Esaik lau.
- Lau Ebanjelista Santuak, iru Trinidadeak, Erroma'ko bi Aldareak...
- Esaik bost.
- Bost Ilaga preziosoak, lau Ebanjelista Santuak...
- Esaik sei.
- Sei Aingeru Argiegilleak, bost Ilaga...
- Esaik zazpi.
- Zazpi Gozoak, sei Aingeru Argiegilleak...
- Esaik zortzi.
- Zortzi zeruak, zazpi Gozoak, sei Aingeru...
- Esaik bederatzi.
- Bederatzi Ordenamentuak, zortzi zeruak...
- Esaik amar.
- Amar Mandamentuak, bederatzi Ordenamentuak...
- Esaik amaika.
- Amaika milla Birjiñak, amar Mandamentuak, bederatzi Ordenamentuak.
- Esaik amabi.
- Amabi Apostolu Santuak, amaika milla Birjiñak...
- Esaik amairu.
- Ez dok amairurik.

Orrenbeste misterio gabeko beste Numero-kanta —Aritmetika garbi-garbikoa— beste au da :

Iru bosteko, amabost dira ;  
 amabosten kontua tira...  
 Nai'zu jokātu pinta bat ardo  
 amabost dirala?

GABON-KANTAK

Ari oni jarraituaz, ez goaz, umeak kantatzen dituzten Gabon-kanta guztiak emen sartzera. Bañan bai oso ume-kutsu artu duten batzuek. Adibidez, arako, Gernika'ko "Marijesien" estribillo misterioz bete ura :

Eta bart Belen'en, eta bart Belen'en  
iaio da Jesus Nazaren.

Eta illara artako beste au, benetan polita :

Jesus dibiño ! Gabaren otza !  
jausi da inñetasiye.  
Erleju biyen orrelan bada,  
il da ganadu gustiye.

Edo beste au, pintoresko-pintoreskoa :

Ortixik gora niñoyalarik  
Ospiteletxu sar baten,  
Aita San Jose topadu neban  
astotxoaren txalmatzen.

Edo Donosti-inguruko, bapateko pitxi polit ura :

Ai ! au gabaren zoragarriya !  
Jesus jaio da Belen'en.  
Etxe onetan sartu ote dan,  
billa gabiltza beraren.

“Billa gabiltza beraren” orrek urrea balio bait du, puntukolpe bapateko bezela...

Eta nola aaztu beste ain entzundako ura?

Joxepe, dizon ona :  
arotza zera zu ;  
Aurtxo polit oneri  
seaska eiozu.

BUKATZEKO

Eta onenbestez, bukatu det nik nere azterketa, Ume-kantai buruz.  
—Zer ondore praktiku atera bear degu azterketa ontatik, Ikastolaetarako?

—Bi, eta naikoak biak.

1) Umeen izaeran, eta beragatik umeen ezieran ere, jolasak eta kantak leku aundi eskatzen dutela ; eta

2) ortarako, kantik ondo aukeratuak izan bear dutela; ez dala umeentzat on edozein kanta; umeen kantik ba dituztela beren legeak: ideia gutxi, ritmo asko, kolore asko, onomatopeya asko; umeentzako kantik egin bear dituztenak eta aukeratu bear dituztenak ere, lege oiek ezagutu bear dituztela...

Guk itzaldi ontan zerbait argitu degu kantaen izaera, eta markatu ditugu lege oiek pixka bat bederenik.

#### PROPINA

Ortaz gañera, eta esan ez dedin besterentzat bakarrik ezartzen ditugula legeak, esango dizutet, nik niketz —ez orain-orain, gerraurrean baizik— egiñak daukadala olako entsaio batzuek; adibidez, “Iesu Aurra-  
ren bizitza” kantadun aur-poematxo lirikoa, bost kantetan, dana onomatopeyaz orni-ornitua. Ezagutzen dezute zuetako askok.

Eta, ortaz gañera, gaur, propina bezela erakutsiko dizutet beste bat, gerra ezkeroko egiña, eta beste aren neurri-neurrikoa, beste onomatopeya batez apaindua: “Aurak, seaskarik ez”.


Entzun :        Belen'go Aur ederrari,  
                  estalpe zartxo batean,  
                  aingerutxo bi kantari,  
                  Ama etorri artean :  
                  “Bunbullun-bunbullun,bunbullunera,  
                  bunbullun bat eta bunbullun bi ;  
                  Aurtxoak munduan seaskarik ez,  
                  zeruan urrez amabi”.

                  Aurtxo txikia lo dago  
                  aingeru biren erdian ;  
                  aingeru biren erdian, eta  
                  millaka inguru guztian.  
                  “Bunbullun...”.

                  Aurtxo txikia lo dago  
                  aingeru biren erdian ;  
                  Amatxo zapi-garbitzen  
                  Belen'go iturri garbian.  
                  “Bunbullun...”.

Amatxo iturrian dago,  
Aurra lo dagon artean ;  
musu ta laztan jango du  
andik etortzen danean.

“Bunbullun-bunbullun,bunbullunera,  
bunbullun bat eta bunbullun bi ;  
Aurtxoak munduan seaskarik ez,  
zeruan urrez amabi”.



# Ume-kantak

Itzaldi, Gipuzkoa'ko Ikastoletako Andereñoa, Loiola'n, 1971.

SARRERA

Ikastoletan, abesti askoren —kanta askoren— bearrean arkituko zerate Andereñook.

Ba dira, leendik sortutakoak. Bañan zeurok sortu bearko dituzte beste asko, edo-ta, besteren batek egindakoak aukeratu.

Nola sortu? nola aukeratu?

Irizpide bat —kriterio bat— bearko dezute ortarako.

Zer irizpide? Zer kriterio?

a) Kantaren gaiak mamiak, euskal-kutsua izan bearko du alde batetik, eta ume-sikologi-kutsua bestetik. Ume euskaldunentzako intereresgarriak diran gauzak kantatu bearko ditu.

b) Ume-kantaren teknikaz egiñak izan bearko dute.

Lenengo puntuari dagokiona, sikologo baten egitekoa da, batez ere.

Nik, bigarren puntua bakarrik ikutuko det itzaldi ontan: Ume-kantaren teknika azala. Nola eratu izan dituzte gure umeak, beren kantak?

Orra, nere itzaldi onen gaia.

ASIERAKO GALDERA

—Gauza errexa al da, ume-kanta bat egitea? zernai esatea naikoa al da, ume-kanta bat egiteko?

Ba dirudi ala dala. Begira adigarri bat:

Arriola-marriola, kin-kuan-kin;  
portan zela, portan min.  
Arrixamalet, marrixamalet,  
kirun-karun, pek.

Ba dirudi, kanta ortan zernai esaten dala. Ez bait da esaten ezer idearik, ezer adigarririk...

Bañan ba da or teknika bat; ezer adigarririk esan gabe, “kanta” bat egiteko teknika. Orixe da aurraren poesia. Gero ikusiko degu, zertan dagon poesi orren izaera, mamia, muña. Bañan, asieran, aitor dezagun ba dala or teknika bat.

Bere teknika ortan, umeak, ezer esan gabe osatzen du bere olerkia, bere poesia. Bañan ezer “idearik”, ezer “adigarririk” esan gabe, umeak “gauzak” *pintatu*, gauzak *kantatu*, eta gauzak *dantzatu* egiten ditu. Orixe bait da umearen poesia: ez geiagorik, bañan ezta gutxiagorik ere.

Ez da, ez, gauza errexa, ez da nolanai egin ditekera gauza, ezkerreko eskuz egin ditekera obra bat; bost zentzuak ere bearrezkoak ditu gaurko olerkariak, UME-KANTA on bat egiteko.

#### EZER ESAN GABE?

Ezer esan gabe, edo ezer gutxi esanaz egiten ditu aurrak bere kantak. Eta ortatik sortzen zaizkigu bi ume-kanta-klase: ezer esaten ez dutenak —itxuraz ezer esan nai ez dutenak— eta ezer gutxi esaten dutenak.

1) Ezer esan nai ez dutenai, nik nere liburu batean, “poesia decorativa”, “olerki edergarria” esan izan diot.

Adibidez:

Riki-iki,  
iki-iki,  
riki-iki-iona...

Itxuraz ezer esan nai ez duan kanta; bañan, ezkutu-ezkutuan zerbait gauza polit eta goxo esaten duana.

Nere liburu artan esaten dedan bezela, kanta au beste kanta baten argitan ipiñita, oso esan-nai-dun azaltzen zaigu.

Orra beste kanta argigarri ori:

Runku-ñunku,  
ñunku-ñunku  
runku-ñunku-ñuna...

Kanta au, aurrari lo-arrerazteko da; orregatik erabiltzen du, alde batetik *vocal* illun *u*; eta bestetik, *consonante* bigun *n*.

Bestea, herriz, aurrari dantzatzekoa da; eta orregatik erabiltzen du,

alde batetik, *vocal* argia, *i*; eta bestetik, *consonante* gogorrek, *t* eta *k*. Eta, esan-nai-kontuan, ba dago or, ezkutu-ezkutuan, itzetan trabaturik, batean *kuñun-kuñun-kuñun* bat, eta bestean, *iki-iki-iki* bat; aur txiki *kuñun* bati esateko itzik goxoena, alegia...

Orra, beraz, itxuraz ezer esan nai gabeko kanta, ume-kanta polit bat.

Ari ortakoa berekoa da, asieran ipiñi degun, arako "Arriola-marriola" ura ere; bear bada, ez ain esan-nai argikoa, bear bada esan-nairik batere gabekoa, zerbait edergarri bakarrik duana: ritmoa eta kolorea, edo olako zerbait...

Sar gaitezen barrurago.

#### UME-KANTA BERE BARRUTIK

Ideiarik esan ez baño, gauzak *pintatu*, *kantatu* ta *dantzatu* egiten dituala aurak bere kantuetan, esan degu.

Ikustagun ori, argixeago.

#### "GAUZAK" PINTATU

Aurak, bere kantaetan, bere olerkietan, "gauzak" pintatu egiten ditu.

Gaurko egunean ba degu Pintura bat, "Pintura abstraktoa" esaten zaiona, umearen itzezko pintura onen antza andia duana: Pintura abstraktoa. "Pintura prehistorikoa" ere esan bait liteke: "pintura *neolitikoa*". Arrasto birekin gauza bat pintatzen duana; adibidez, bi lerro gurutzetukin —gurutze batekin— gizona esan nai duana; eta lerro arrasto zut bat eta bi gurutzetukin, muskerra esan nai duana; eta A mayuskula etzan batekin, idi bat esan nai duana —idi-buru bat, alegia, adar ta guzti—; geigo oraindik, zeruko zenbait izar-pillaetan "Dabid'en gurdia", bere lau kurpillekin, eta iru mando erreskadan aurretik... Ots! Pintura abstraktoa: arrasto batzuek... eta-kolore-txaplastako bat...

Mmeak ere, bere kantuetan, "pintura abstrakto bat" egiten digu. —Nola?

—Onomatopeyaren bitartez, batez ere: *kukurruku* baten bitartez, *traka-traka* baten bitartez, *xirrixi-mirrixi* baten bitartez. Onomatopeya.

Onomatopeya, ba dakizute zer dan: itzen bitartez, gauzaen soñua imitatzea: ollarraren kantua, astoaren pausoa, otordu txar baten xixtriña...



Pintura abstrakto oiek, umeak bi bidetatik egiten ditu :

- a) onomatopeyaren bitartez ; eta
- b) itzen formak itxuragabetuaz.

Begira bi adigarri, bi bide oiek argitzeko.

Bazkari mirritx bat :

*Xirrixti-mirrixti*, gerrena, plat :  
olio-zopa, *kikili*-salda,  
*urru*p edan edo *klik* :  
*ikimili-kili-klik*.

*Kikili*, ta *urru*p eta *klik*, onomatopeyak dira : *kikili*, ollarra ; *urru*p, xurruta ; eta *klik*, eztarrrian irestea ; eta berdin baita, azkeneko *ikimili-kiliklik* ura ere : dana irestearen onomatopeya...

Eta itz itxuragabetuaren bidetik, beste adigarri au : bele-eiza bat, alegia :

Baga, biga, iga, laga,  
boa, zei, zai, zoi,  
bele, arma, tiro : pun !

Nik nere liburuan diodan bezela, gauza baten onomatopeyak, umearen irudimenean gauza bera bizi-bizi pintatu egiten du. *Kukurruku* bateg, ollarraren deskripziorik bizienak baño askotaz biziago sortzen dio umeari bere irudimenean ollarraren irudia.

Eta esan bearrik ez dago, zenbat eta zenbat onomatopeya erabiltzen duten umeak beren kantuetan : dala gauza bakoitzak ateratzen duan soñu edo zarataren onomatopeya (*kukurruku*, *guau-guau*), dala gauzari guk esaten diogunarena (*arre-arre*, *io-io*, *lua-lua*, *bunbullun-bunbullun*).

Olako gaiezko mundu eder bat bait dute umeak, pillaturik beren irudimen ta oroimen xamur-xamurrean.

“GAUZAK” KANTATU

Umeak esan ditek, bere mundu txikiko olerkitxoak, danak kantatuak dituala. Kanta xume-xumea geienetan, hi-notadun ; bukaeran, bear bada, zerbait apañago.

Adigarri batzuek ipiñi besterik ez degu egingo emen.

1. Arre-arre, mandako :  
bigar Tolosa'rako,  
etzi Iruka'rako...  
—Andik zer ekarriko?  
—Zapata ta gerriko.

(Sol-sol, sol-sol, lala-sol ; sol-sol, sol-sol, lala-sol...).

2. Din, dan —Nor il da?  
—Peru zapataria.  
—Zer egin du pekatu?  
—Erregeren txakurra urkatu.  
—Ori ez duk pekatu.

(La, sol. Lala-sol ; lala-solsol, lala-sol... Lala-solsol, fafa-sol).

3. Exemplo berexi.  
—Nik azak egoxi ;  
egoxi ta *klik*...  
—Gexurra diok ik.

(Sol-sol-sol la-sol re ; sol-sol-sol la-sol re ; sol sol sol sol la la ; sol fa re mi fa sol).

4. Atxiyo-matxiyo komiyo pan ;  
nere semia errotan...  
Errotara ninjoala, topatu nuen erbi bat ;  
kendu niyon begi bat,  
para niyon berri bat...  
Errota-pio : klak! klak!

(Solsolsol-solsolsol lalala sol...).

5. Aldapeko sagarraren,  
adarraren puntan,  
puntaren puntan,  
txoriya zegoan kantari :  
txiru-liru-li ; txiru-liru-li...  
Nork dantzatuko ote du sofutxo ori?

Olakoxe kanta xumeak.

Eta aurra aunditu alean, kantu apañagoak.

#### GAUZAK DANTZATU

Dantza, ots! askotan gorputzaren ibilli xume bat. Ibilli xumea, doña bera oi dan bezela.

Aurrak, beti ere, bere kantuari gorputzaren ibilli pixka batekin laguntzen dio. Umeak, Ikastolan, Aita Gurea kantatzean —eta beti ere kantatu egiten dute— gorputzari eragin txiki bat egiten diote.

Gorputzaren ibillitxo ori, beti ere berdin, beti ere neurtua egin oi dute umeak, danok batean. Ots! ibilli ritmikoan.

Aurrak, ritmoaren sena, oso bizkorra du. Ez bertsoak kantatzen ari danean bakarrik, baita itz lauuko zatiren bat kantatzen ari danean ere. “Gure Aita” adibidez; edo, obeto, “Aita Gurea”. Olakoetan berealaxe arkitzen dio kantu-gaiari bere barruko ritmo ezkutua; eta ritmo ortan —neurri ortan— erabiliko du bere gorputz txikia.

Ola: “Ai/ta gurea / zeruetan / zaudena san/tifikatua i/zan bedi zure / izena be-/tor guga na zure e/rreinua e/gin bedi zure / borondatea nola / zeruan ala / lurrean...”. Olaxe, ritmoa arkitu, eta gorputzari eragin, ritmoaren neurrian...

Eta, arritzeko gauza: olaxe hetetzen da umeen artean, Grekoen Odarentzat esan oi dana: Grekoak beren Odak —beren Olerkirik ederrrenak— etzituztela esan utsik, rezitatu utsik egiten; kantatu eta dantzatu egiten zituztela, gañera, denbora berean; ala egin oi zuala Sofokles’ek, bere Tragediak Teatroan ematean; Odaren itzak esaten zutena, kantuz eta dantzaz osatzen zuala, alegia, Tragediaren Koroetan.

Umeak ere orixe egiten bait dute...

Eta gaurko yeye-jendeak ere ba dirudi beste orrenbeste egin nai dutela, nolabaiteko dantza edo obeto gorputz-biurriketa naasi batean.

Umeak, beren ritmo-sen orri jarraituaz, dantzatuak nai dituzte beren kantuak; eta dantzatuak eratu bear dizkiegu.

#### RITMOA

Dantza-kontu onen osagarri, esan dezagun orain zerbait ritmoari buruz.

—Zer da ritmoa?

—“Ibilliaren neurria”, esan oi da. Berdin izan bait diteke oñezko ibilliarena, naiz, oiñezko ibilliaz neurtzen degun bertso edo doñu baten neurria.

Soñu luze bat entzuten degunean, nai ezta-ere, neurri bat ipintzen diogu. Ortarako, soñua, troxutan zatitzen degu, otroxu bakoitzeko silaba edo ots bakoitzari bere izaera emanaz, batzuek indartsuago eta besteak argalago. Eta ola, trenaren otsa entzutean, gure ritmo-senak ots ura *fa-fa-fa* biurtzen digu; eta, zaldiaren trotea baldin bada, *trakatan-trakatan*.

Soñu ori, bear bada, bere baitan ez da puskatua egongo, ots guztiak berdiñak izango ditu; bañan gure belarriaren ritmo-senak, beti ere ortara bultzatuko gaitu: otsak troxutan ipintzera, eta ortarako troxu bakoitzean ots bat besteak baño ozenago, indartsuago, argiago egitera.

Bañan au ere bai: troxu oiek, batzutan bi otsezkoak, bi silabakoak izango dirala, trenaren *fáfa* bezela) eta beste batzutan iru otsezkoak (zaldiaren trotea bezela, *trákatan*); troxu bakoitzari “oña” esaten bait zaio; eta oin bakoitzari “oin espondaikoa”, eta oin irukoitzari “oin daktilikoa”.

Orixe da ritmoaren berezko legea.

Nundik artzen du, ordea, gure belarriak euskarri oiñak ola egiteko? batzutan bikote, bestetan irukote?

Ez da errex erantzuten. Dударik gabe itzen izaerak berak laguntzen dute ortarako: itz bakoitzak ba du alako berezko izaera bat, puskaketa oiek ola egiteko. Umeak, “Aita gurea” kantatzean, betetzen dute ederkitxo lege ori.

Bañan umeak “Aita gurean” egiten duana, “ritmo libre” da, ritmo askatua; bañan ritmo askatuaz gañera bai bait da, “ritmo lotua” esan oi dana ere, “bertso-ritmoa”, “ritmo reversivo”, “ritmo itzulia” esan oi zaiona: biñakako ta irunakako oiñak, bata bestearen ondoren beti berdin eratzen dituana.

Bi ritmo-era ditugu, beraz; ritmo askatua ta ritmo lotua: ots! “bertso-ritmoa”. Eta azken au da, guk gaur aztertu bear deguna, aurkantaren teknika bear bezela sakontzeko.

Ipiñi ditzagun bi adigarri, bi eredu :

1. Arre, arre, mandako :  
bigar Tolosa'rako,  
etzi Iruñe'rako...  
—Andik zer ekarriko?  
—Zapata ta gerriko.

Kanta ontan, oin guztiak bikoteak dira, espondaikoak.

2. Atxio, Matxio, komio pan...  
Nere semea errotan.  
Erotara ninjoala  
topatu nuan erbi bat ;  
kendu nion begi bat ;  
para nion berri bat...  
Errota-pio, klak, klak...

Kanta ontan, lenengo errenkada, irukotea da; bañan azkeneko *pan* ori, oin trinkotua da, ots bakarrekoa, bañan bi edo iru ots balio duana. Bigarren errenkadako *Nere* ori, bikotea da; *semea*, irukotea; *erro* bikotea; eta azkeneko *-tan* ori, berriz ere, oin trinkotua. Irugarren errenkadako *Erro-*, bikotea; *-tara* bikotea; *ninjo-* bikotea; *-ala*, bikotea, berriz ere; Laugarren errenkadako *topatu*, irukotea da; *nuan* ta *erbi*, bikoteak berriz ere; bañan azkeneko *bat*, oin trinkotua. Eta ondoren guztia oin bikotezkoa da, bukaerako *bat* ori ez beste. Azkeneko errenkadako *Errota*, irukotea; eta *pio*, bikotea; eta bukaerako *klak*, *klak*, bi oin trinkotu dira.

Ritmo-kontu onen osagarri, aipa dezagun orain detalle garrantzi aundiko bat : *anakrusis* esan oi zaiona. Argi dezagun puntu au.

Doñu baten ritmoa, beti ere oiñen hitartez markatzen degu dantzakoan, eta eskuaren hitartez konpasa eramatekoan. Konpasean eskua goitik beera eta beetik gora erabiltzen degu. Eskua goian dagon uneari, *arsis* esaten diogu; eta beari dagoanari, *tesis*. Orain, bertso bat kantatzean, bertsoaren itzak geienetan *tesis*'en asiko dira; bañan gerta diteke —ala bear-ta— *arsis*'en —eskua goian dagola— astea. Bertsoaren itzak *arsis*'en asten diranean, *arsis*'eko itz orri, *anakrusis* esaten zaio.

Adigarri bat :

*Din! Dan!* —Nor il da?  
 —Peru zapataria.  
 —Zer egin du pekatu?  
 —Erregeren txakurra urkatu.  
 —Ori ez duk pekatu.

Aztertu dezagun koplak au :

*Din* eta *Dan*, bi oin trinkotu dira (bion artean lau silaba balio dute);  
*Nor il*, oin bikotea degu; *da*, oin trinkotu bat;  
*Peru zapa-tari*, iru oin bikote; *-a*, oin trinkotua;  
*Zer e-gin du-peka-*, iru oin bikote.

Orain, ondorengo *-tu* ori ba dirudi oin trinkotu bat dala; bañan ez da ala. Oraindik eskua goian dagola, urrengo errenkadako *Erregeren* asierako *E-* ori aurreratu egiten zaigu, eta oraindik eskua goian dagola kantatzen da. Orixe da *anakrusis*. Eta aurrak beren kantuetan olako asko egin oi dituzte. Ikus asieran aztertu degun "Aita gurea". Eskua beeratu baño leenago —tesisa zaitu gabe— silaba bat edo bi aurreratu: "Aita gu-rearen" "Ai" silaba bezela.

Beste adigarri bat :

Burruntzali zar,  
 zarranbillote;  
 Pepari muturra  
 jan diyote.

Kopla au, oin irukotez osatua dago; bañan ba ditu bi *anakrusis* ere: *Burruntzali*'ren asierako *Bu-*, eta *zarranbillote*'ren asierako *za-*. Gañerako guztia, oin irukoteak dira; bukaerako *-te* oiek, berriz, oin trinkotuak.

Bukatzeko: doñu bakoitzak bere konpasa duan bezela, bertso bakoitzak ere ba du bere ritmo; eta, doñuetan bezelaxe, bertsoetan ere sortzen dira beren *anakrusis*'ak eta oin trinkotu, silaba luzeak. Bertsoaren itzak beren baitan duten egoeratik sortzen da ori.

PRAXIS

Eman degun neurrian, umeentzako eratu bear ditugun kanta guttie-

tan, letraz gañera —letra ritmiko polit batez gañera— doñu polit bat eta dantza polit bat eratu bear ditugu.

Umeak ez dira geldi egotekoak. Gorputzak berak ibillia eskatzen die.

Asieran esan degu, umeak beren kantuetan bereala sortzen dutela, gorputzaren ibilli zerbait: txiki-txikitan, ibilli xume-xumea; gero apaña goa; aizkenik baita teatro-erako zerbait ere...

—Zer dantza-era prestatuko diegu asiera-asieratik gure umeai? zer arkitzen degu, gai oni buruz, gure oituretan?

—Beti ere, *dantza-soka*; orixe degu errexena, eta orixe betidanik gure artean oituenena; eta benetako dantza, dantza xume.

Bi eratara egin bait diteke:

a) Bi soketan, aurrez-aurre, eskutik elduta, aurrera ta atzera, “Alalimon” bezela.

b) Korroan, burpillean, eskutik elduta, “Alan, alan, kikirrinera” bezela; lendabizi danok barru-aldera begira; eta gero, banan-banan, kanpora begira. (Guzti ortan, ordea, nik baño askoz geiago bait dakizute zeurok).

Orain, edesti, istori-apur.

Era ortan, guk gure denboran, egin genituan gure saioak. Don Ramon Laborda Apaiz Jaunak (Goian bego) eta Andereño Maritxu Barriola'k, sortu zuten Donostia'ko Kursaal'eko beetan, “Poxpoliñak” zeritzan Akademi eder-eder bat, ortarakoxe, umeai euskal-Jolasetan erakusteko. Ikaragarritzko umeteria biltzen zan egunero-egunero illunabarretan, jolas oietara.

Nik gogoan daukat, lau edo bost kantu egin nizkiela beren jolasetarako: “Monja txuriena”, eta “Astoarena”, eta “Jostunarena”, eta “Xabihtxorena”... Neri aztu ere egin zaizkit; bear bada, Andereño Barriola'k gogoan izango ditu.

Bañan, gerra-urtean bertan, gerra-aurrean Lekeitio'n saritu zidatena izan zan danotan osatuenena: “Iesu Aurraren bizitza”. Ezagutzen dezute.

Bañan danetan politena, neretzat, beste bat izan zan: “Monja txuriena”. Ikutu bat emango diogu.

## Ume-kantak

MONJA TXURIENA

“Oraingo aldian esango degu”  
monja txurien kantua ;  
oraingo aldian esango degu  
monja txurien kantua.

“La-rara ; doran Donian don ;  
la-rara ; doran Donian don”.

—Ama, ekatzu jantxi beltza,  
monja nai det-eta nik.  
—Monja beltzak Mendaro'n dira ;  
ez dakit ango biderik.

“La-rara ; doran Donian don”...

—Ama, ekatzu jantzi urdiña,  
monja nai det-eta nik.  
—Monja urdiñak Begoña'n dira ;  
ez dakit ango biderik.

“La-rara ; doran Donian don”...

—Ama, ekatzu jantzi txuria,  
monja nai det-eta nik.  
—Monja txuriak Txina'n dira ;  
batel bat dijoa Pasai'tik.

“La-rara ; doran Donian don”...

—Agur, amatxo, agur betiko ;  
ama, ez egin negarrik.  
—Agur, alaba, agur betiko ;  
errezatu nigatik.

“La-rara ; doran Donian don”...



Batel txuri bat Txina'ra doa,  
 monja txuriz beterik ;  
 monja txuriz beterik eta  
 izar Eder bat Gidari.

“La-rara ; doran Donian don ;  
 la-rara ; doran Donian don”.

Kanta au egiteko, lendabizi doñua aukeratu nuan : doñu polita, Aita Donostia'k Baztan'en bildua. Bi zati ditu : lenengoa alkarrizketa, bigarrena, estribilloa —estribillo onomatopeikoa—.

Dantzatzeko era : bi soka —aurrak alkarri eskutik elduta— alkarri aurrez-aurre begira : atzera pausu bi, aurrera pausu bi ; atzerakoan, alkarrizketaren erdia ; aurrerakoan beste erdia. Estribillokoan, bi sokak alkarri elduta, korro bat egin ; eta danok alde batera korroan, estribilloaren erdia kantatu ; eta beste alderakoan, beste erdia. Estribilloa bukatzean, herriz ere leen bezela bi sokak, etab.

Letrari buruz, alkarrizketaren lenengo itzak, leengo kanta zaarretik artu nituan (“Oraingo aldian esango degu”) ; urrengo itzak (“monja txurien kantua”) eta gañerakoak, neronek egiñak dira. Estribilloa, ez ; ori ere leengo zarra da : dana onomatopeyaz osotua, esan-naiezko itzik gabe ; soil-soillik tartean “Donian”. San Juan'en oroigarri.

Kanta guztia alkarrizketa bat da : ama-alabak elkarrekin.

Itzak, al diran errexenak. Iru galdera ta iru erantzun, eta epilogo bat, eta bukaera. (Iru ori umeentzat beti ere misteriozko numeroa da).

Ritmuari buruz : ritmo errexa : oiñik geienak bikoteak (-katzu / jantzi / beltza / monja /nai det / eta / nik). Aldian bein, itzaren egoe-rak eskatzen duanean, oin irukotea (“Ama e- ; jantzi ur-/ jantzi txu-/ ; Trina'ra, etab.). Azkeneko -ik guztiak, oin trinkotuak. Ez dago anakru-sirik.

YOSTUN-YOKOA

(Euskaltzaindiaren laguntzalleentzat)

Ba det nik yostorratza,  
 yostorratz eta (i) aria...  
 Bigarko yosiko-det  
 soñeko berri-berria.

Laralai, laralala-lalai ;  
 laralai, laralala-lai ;  
 laralai, laralai, larala-lai ;  
 laralai, laralala-lai.

Dendan Andre Joxepa  
 saltzen oial ta miesa ;  
 —Kana biko atal bat  
 eskerrez eman baleza.

Laralai...

—Aspaldi den, txatxala,  
 “Eskerrik asko” il zala...  
 Ekar eskuan zillar,  
 nai baden mies-atala.

Laralai...

Zillar-apur bearrez,  
 yostundegira negarrez...  
 —Zer dezu, zer, txatxala?  
 —Dendan miesik eman ez...

Laralai...

Egizu lan, txatxala,  
 ta izan yostun azkarra ;  
 yostun azkar bazera,  
 emango dizut zillarra.

Laralai...

Txisti-txasta, azkarki  
 azpildu, yosi, ebaki...  
 Gure nexka axkarra  
 lanean ederki daki.

Laralai...

—Atoz, atoz, onera !  
 langille axkarra zera ;  
 zillar zuri aundi bi  
 emango nik alogera.

Laralai...

Dendan Andre Joxepa  
saltzen oial ta miesa...

—Kana biko atal bat  
dirutan eman baleza?...

Laralai...

.....

Nik ba det yostorratza,  
yostorratz eta (i) aria...

Jaietan jantziko det  
soñeko berri-berria.

Laralai...

BELEN'GO AUR EDERRARI

(“Birjiña maite” bezela)

Belen'go Aur ederrari,  
estalpe zartxo batean,  
aingerutxo bi kantari,  
Ama etorri artean :

*Bunbullun, bunbullun, bunbullunera ;*  
*bunbullun bat eta bunbullun bi...*  
Aurtxoak munduan seaskarik ez ;  
zeruan urrez amabi.

Aurtxo txikia lo dago  
aingeru biren erdian ;  
aingeru biren erdian, eta  
millaka inguru guztian.

*Bunbullun, bunbullun...*

Aurtxo txikia lo dago  
aingeru biren erdian ;  
Amatxo zapi-garbitzen  
Belen'go iturri garbian.

*Bunbullun, bunbullun...*

Amatxo iturrian dago,  
 Aurra lo dagon artean ;  
 musu ta laztan jango du,  
 andik etortzen danean.

*Bunbullun, bunbullun...*

Au ere, neronek sortua da. Teatro-modura egitekoa : Jesus Aurraren Belen'go gertaera bat : Aingeruak, Jesus Aurraren seaska zaitzen, alegia, Ama Iturrian dan artean.

Doñua, errikoia du : Azkue'k nunbait bildua, eta "Birjiña maite" letra erantsia.

Nere letra, onomatopeiduna da : *bunbullun* onomatopeia. Oso ritmiko. Oin irukoteak ditu maiz ; eta, ola, puntu batzuetan zortzi silaba ditualarik, beste batzuetan amaika ere ba ditu, ritmo ederrean :


*Bunbullun, bunbullun, bunbullunera*

iru oin irukote eta bikote batean, amaika silaba ;

*zeruan urrez amabi*

iru oin bikotetan eta trinkotu batean, zortzi silaba.

Teatro bezela, lenengo bertsoan, escenaren erdian, seaska bat dago : Jesus Aurra lo, alegia ; eta bi aingeru seaskaren bi aldeetan, dantza xume bat egiten, bi besoak tolestuta, gorputzaren balantzotxo bat, seaskaren ibilliaren antzera. Bigarren bertsoan, sortzi amar aingeru geiago, bi errenkadatan, bi aldetatik sarturik, ibilli gurutzetu bat egiten dute, konpasean, gorputza balantzatuaz berak ere, azkenean *bunbullun* kantatzean, seaskaren inguruan gelditzen dirala. Irugarrenean, danok seaska-inguruan dantza xumea.— Laugarrenean, Ama —saskitxo bat buruan— iturritik etorki, alegia, seaskara irixtean, Aurra besoetan artu, eta lazandu, eta gora-gora jaso, ikusleai erakutsiaz.



# Bertsolaritza

Ikastaldia, Iruñia'n, Nafarroa'ko Ikastoletako Andereñoai : 1974.

## ESKEMA

Beste mundu bati ikuste-bat egitera goaz.

Bertsolaritza, beste mundu bat da. Gaur bizi geran mundu ontatik oso urruti dagona. Beste mundu bat, oso "diferentea". Diferentea Literaturaren alorrean, soroan.

Atzo, umeen mundua ikutu genduan. Gure munduaren aldean beste mundua bera ere. Umeen Literatura, gure Literaturaren aldean oso bestelakoa da.

\* \* \*

Umeen mundua ezin esan dezakegu guretzat "mundu berri bat" danik. Guztiok izan gera ume.

Bañan Bertsolaritza, bai, esan dezakegu, "askorentzat", "mundu berri bat" dala: zaarra, orain millaka urtekoa, bañan, denbora berean "berria"; ez oitua, aaztua, zaar pasatua. Askorentzat, danik ere, ezin sospetxa-egiñekoa.

## ZER DAN

Bertsolaritza, aozko literaturaki bat da, Literatura-mueta, klase bat. Aozko Literatura, berriz, idatzi gabeko, eskribitu gabeko Literatura da; eskriturarik gabe bizi diran Errien Literatura.

Literatura, berriz, Arte Eder bat da, itzezko Arte Eder bat.

\* \* \*

Erri guztiak Arte-zaleak dira.

1) Ez dira konten, ibilli xumearekin; ibilli neurtura jotzen dute bereala: DANTZA.

2) Ez dira konten, itz-egite xumearekin. Bereala jotzen dute itz neurtura: OLERKIA, BERTSOLARITZA.

3) Ez dira konten, beren hizi xumea bizitzearekin. Bereala jotzen dute bizitza idealizatura: TEATROA.

Ez da erririk, Teatorrik ez duanik, Dantzarik ez duanik, Olerkirik ez duanik.

Ala ere, ba dira Erriak, eskriturarik ez dutenak.

Oiek beren Teatroa, aoz bakarrik egiten dute, idatzi gabe. Olerkari-tza ere, aoz bakarrik. Orixe da "Aozko Literatura".

(Gero idatzi ditezke Literatura orren gaiak; bañan asieran —beren izatez, beren jatorriz— idatzi gabeak dira. Gaur bertsoak idatzi ditezke; bañan bertsolaritza, bere izatez, bere jatorriz, idatzi gabea da).

\* \* \*

"Idatzi gabea" izatea, "ezezko izaera bat" da (*cualidad negativa*). Bañan Aozko Literaturak ba ditu bere izaera "baiezkoak ere" (*cualidades positivas*). Bapatekotasuna eta bakantasuna.

Aipa ditzagun.

A) 1) Bertsolariaren lanaren aldetik (*subjetivamente*) "bapatakotasuna". Olerkariak, bere bertsoa astiro pentsatzen du; bertsolariak bere bertsoa, bapatean sortzen du. 2) Entzuleen aldetik, oroimen memori arrigarria (Gero ikusiko degu).

B) Bertsoaren aldetik (*objetivamente*).

1) Doñua, kantua. Olerkariak, olerkia idatzi egiten du, edo rezitatu; bertsolariak, kantatu, kantatuaz sortzen du.

2) Rima; troxu bakoitzaren bukaera berdiña.

3) Kantuaren barruan, ritmo, konpasa, neurria.

4) Iñoiz, kantatuaz gañera, dantzatua.

#### BAKANTASUNA

Munduan diran gauzarik bakanenetan bat, bertsolaritza da. Gauzarik bakan eta fenomenorik arrigarienetan bat.

Gauza bakana, munduan oso bakan arkitzen dalako.

Fenomeno arrigarria, bere baitan gauza arrigarri-arrigarri bat dualako: bat-batekotasuna, inprobisazioa; bertsoa bat-batean pentsatu ta botatzeko erreztasuna (*repentización*).

\* \* \*

Bakantasuna. Gaur oso erri gutxi da munduan, bertsolaritza ezagutzen danik. Bertsolaritzak gaur oso zabalero txikia du munduan.

Leen iñoiz zabalero aundiagoa izan zuan. Gaur, esan dezakegu, Europa'n gure Euskalerrria dala bertsolaritza indar-indarrean daukan erri bakarra. Bertsolaritzaren zerbait kutsu daukatenak ba dira gure inguruan: bat-edo beste, ez asko: Galezia bata, eta "País de Gales" Inglaterran bestea.

Leen, orde, bertsolaritza-arte, Europa'n ezaguna izan zala adierazten digu, Erromatarren Olerkari Birgilio'k bere Eglogatan sartzen duan "Menalkas'en eta Dametas'en Eglogak"; bertsolari-sariketa bat itxuratzen bait du Egloga orrek; "itxuratu", Erromatarrak orain bi milla urte "bertsolari-guduak" ezagutzen zituzten seña, alegia.

Birgilio'z gañera Biblian ere —Hebreoen Biblian ere— argi asko ageri da bertsolaritza jatorraren bat-batekotasuna, naiz Antziñako Testamentuan —dala Job, dala Moises, dala Dabid, dirala Profetak— naiz Testamentu Berrian —dala Zakarias, San Juan'en aita, dala Simean zarra, dala Ama Birjiña bera— beren Kantikak bat-batean sortzen agertzen zaizkigunean.

Afrika'n gaur oraindik ba dira Triburen batzuek, —desertuko Touaregtarrak, adibidez, eta Madagaskartar batzuek— bertsolari jatorrak dituztenak.

Ala berean, baita, Asia'n ere, Afganistandarren artean.

Ameriketari ere agertzen bait zaizkigu batzuren batzuek, Tierra del Fuegotarrak, adibidez, gauza zerbait dutenak; eta berdin baita Kuba'ko landatar artean ere.

Ameriketako eta Europakoetaz, ezik, an gauza urri xamarra dala esan oi bait da; bat-batekotasun oso-osorik gabe jarduten dutela, alegia, norbaiten ohoretan zerbait kantatu beár danean, kanta bat-batean sortzen ez baño, oiturazko formula ta klitxe batzuek elkarrekin josten jarduten dutela.

Bapatekotasun jatorra, oso-osorik, gure bertsolariak bakarrik gordezten dute Europa'ko lurretan: ordutan ta ordutan, elkarri bertsoa bota ta bertsoa bota ari izateko errextasun arrigarri-arrigarria, alegia...

\* \* \*



## BAT-BATEKOTASUNA, NOLAKO?

—Benetakoa al da bat-batekotasun ori? (Autenticidad).

—Ernesto Giménez Caballero bat, gerrondoan, Zegama'n bertsolari jai batean izan bide zan, eta jaiaren berri-kritiko bat Aldizkari batean ematean, gauzak, berak nai bezela esan zituan: "jende asko izan zala, eta txalo asko entzun zirala": bañan, nola-nai ere, bertso-jokua alde zurretik prestatua balitz bezela aurkeztu zigun, bertsolariak alde zurretik alkar-aiturik bazeudekean bezela, oiturazko formula ta klitxeak elkarri boteaz ari izan bait zirean bezela...

Guk ba dakigu, bai olako zerbait egin oi dala beste zenbait lekutan —Galezia'n, adibiez, edo Asturias'en—: bertsolariak ba dakizkitela dozena batzuek formula, eta beren bertsolari-jaietan formula oiek botatzen dizkiotela alkarri, aldi bakoitzean izenak eta detalleak aldatu besterik gabe... benetako bat-batekotasunik gabe... bañan bertsoaren zerbait egokitasun gertatzen danean, an ere txaloak jotzen dizkietela bertsolariai...

Ernesto Giménez Caballero, urte askoz Zegama'n bizi dan arren, euskeraz ez daki; etzekian, bertsolariak saio artan zer esaten zuten —nolako arrazoiak, itzetik-ortzera botatzen zizkioten alkarri—; jendearen algarak eta txaloak entzun bai, bañan zergatik jakin gabe... Eta uste zuan, Galezia'n-ta bezela, emen ere, formulai eta klitxeai txalo jotzen zitzaie, eta ez bat-bateko arrazoiak. Galdetu balu, esango zioten gauza garbiagorik; bañan etzuan galdetu nai izan; eta, bere kritikari iñork iñoiz arantzungo zion bildurrik gabe, berari konbeni zitzaion bezela presentatu zizkigun Zegama'ko bertsolari-jaiak: benetako bat-batekotasunik gabe, alegia.

Guk, ordea, orduan ixillik egotea bazegokigun arren, guk ondotxo genekian, gure artean beste nun-nai bezela, Zegama'ko bertsolari-saio artan ere bertsolariak benetako bat-batekotasunean jardun zutela. Bestetan bezelaxe.

\* \* \*

Guk ondo dakigu, bi bertsolarik, edozein arratsaldetan ostatu batean topo-eginda, bat kantuan asten bada, besteak kupida gabe rantzungo diola lenengoak emandako doñu ta ari berean, eta ordu pare batean arrazoitant aritzeko ez dutela kupidarik izango; Xenpelar aundiak esan zuana:

debalde pesta perparatzen det  
gogoia dedan orduan...

Ori, ordea, ez bait da egiten, dozena pare bat formula ta klitxekin...

#### BAT-BATEKOTASUNAREN TEKNIKA

Bat-bateko bertsogintza, aldez aurretik prestatu gabea da.

Ala ere, bertsolaitzak prestakizun zerbait ba du: urrutikoa bata eta bertakoa bestea.

\* \* \*

Urrutikoa. Bertsolariak ba dute beren eskola. Bertsolariari Jaunak ematen die bertsoetarako gustu eta zerbait errextasun. Bañan, errextasun-da-gustu orren barruan, gañerakoa, berak egin bear du.

Zer? Lenengo beintzat, entzun, entzun, bertsolariai entzun. Eta, bera bertsolari-odolekoa baldin bada, bereala asiko da bera ere entsaioak egiten, bere indarrak besteren batekin neurtzen...

Ortik aurrera, dana, ari ta ari ta ari izango da.

Orixo da bertsolariaren urrutiko prestakizuna.

\* \* \*

Bertakoa. Kantatzeko unean, Bertsolariak ezin artu dezake, idatzizko Olerkariak artzen duan betarik. Bat-batean asi bear du kantatzen. Orri esan oi zaio, ain xuxen, "prestakizunik gabe kantatzea", "bat-batean kantatzea", "bat-batekotasuna".

Ala ere, bertsogintza ez da ariera mekaniko bat; giza-lana da. Eta, giza-lana danez, pentsakizun-lana da; arrigarrizko pentsakizun-lana dala ezik; "itsi-iriki batean", segundo ale-ale batzutan egin bearreko buruzko-montaje-lana. Eta ez, azkar egin bearra bakarrik; teknika berezi-berezia duana gañera... Atzekoz-aurrerako teknika...

Bertsolariak, azkena esan bear duana pentsatzen du lenengo; eta, azkeneko itz arekin "rima egingo duten" —"puntu-egingo duten"— iru itz asmatu bear ditu bereala. Eta ondoren kantatzen asi, puntu egiten duten itz aiek banan-banan kantuan sartuaz; eta aizkenik, lenengo pentsatutako itzarekin bukatu bertsoa. Dana atzekoz aurrera, goikoz beera.

Orixe da, bapateko bertsogintzaren teknika. Teknika arrigarria benetan. Dana segundo ale-ale batzutan. Bañan ori ere, ez, berak aukeratu-tako gai batean; bestek —dala beste bertsolariak, dala “maikoren bateg” — ezartzen dion gaian...

BAPATEKO EPIGRAMA BATZUEK

1) Pello Errotarena. Karlista-gerrate-ondoren; Aya'n; bere astoa-ekin iriña eramaten errietara; Aya'n, gerrondoetako guarnizioa; Komandanteak salbokonduktoa eskatu: A ver, el “papel”. Pello'k papel txiki bat eskuan (“Pello Joxepe” bezela):

*Buenos días, txanbergo Jauna,*  
erantzirikan txapela;  
gaurko onetan ez bait det uste  
izango dedan kartzela.  
Aspaldi ontan, urrea baño  
geiago degu papela;  
ta ikusi dezan, ar beza, Jauna,  
KOMUNIO'KO TXARTELA.

Bertsolariak lenengo pentsatu duana: Komunio'ko txartela.

2) Domingo Kanpaña. Bilintz donostiarra, bertsolari ona, bañan sudur-luxe, bixaje parragarria. Igande arratsaldeetan, inguruko sagardotegietara: Ayete, Astigarraga, Urnieta... Bera bezela, baita Domingo Kanpaña, bertsolari txarra; Bilintx tentatzen. Gizon lodikote, mando-gañean ibilli oi zana... Arratsalde batean ikusten du Bilintx'ek, gure Kanpaña bere mando gañean, bidea betean, sagardotegira sartzen; eta, bai bait zekian, oitura bezela, zipoka bertsotan asiko zitziola, or artzen dio donostiarrak aurrea:

Mando baten gañean  
Domingo Kanpaña...  
Etzijeak utsikan  
mando orren gaña!  
Azpian dijoana  
mendoa dek, baña  
gañekoa ere ba dek  
azpikoa aña:

MANDO BATEN GAÑEAN  
BESTEA, ALAJAÑA!

Lenengo pentsatu duana MANDO BATEN GAÑEAN BESTEA ALASAÑA.

3) Zepai'rena. Gerra bukatu berri; lenengo bertsolari-saioa Tolosa'ko Pelota-Planzan. Igande arratsalde batean. Eguerdian, bertsolarien-tzat bazkaria Billabona'n. Kafe-garaian, Maiko egin bear zuanak: Jau-nak: ba dakizute, gerraezkero gaur degula, lenengo bertsolari-saioa. Ego-ki izango da, Generalisimoari bertso bat botatzea... Zepai'k, ori entzun zuanean, zutik jarrita: Mutillak: ez gaituk ortara etorri, eta ni etxera nitxiak. Ezetz ba, ta geldiazi. Bañan gero, Tolosa'ko Plazan, Maiko Jaun ark, puntua Zepairi, ain zuzen: ("Maria, nora zuaz" bezela):

FRANCISCO FRANCO DEGU  
ESPAÑA'N GIZONA...

eta Zepai'k:

aspaldi ontan emen  
agintzen dagona...  
Esan nai, ta ezin esan,  
au bai dala lana!  
Anai maite bat nuan  
gerran galdu zana...

Lenengo pentsatua ANAI MAITE...

BAPATEKOTASUNAREN "PRUEBAK" KONTROLAK

Bapatekotasuna neurtzeko "pruebak":

Iru dira batez ere: 1) "Puntua jarrita"; 2) "Lau itzekoa"; eta 3) "Ofizioak".

1) "Puntua jarrita" esaten zaio, Zepai'ren ori bezelako arierari: Maiko batek, edozein gairetan, puntua eman, eta bertsolariak jarraitu, bere lanerako berealaxe beste iru puntu asmatuaz eta ari-arian jalkiaz. Ikusten dezutenez, ariera ori, da bertsolariaren bapatekotasunaren prue-barik argiena. Olakoetan ez bait dago ezer aurretik pentsatzerik. Oxta-oxta, leentxeago aipatu degun bapatekotasunaren teknika. Izan diteken

bapatekotasunik estuena dago olakoetan. Eta guztiok dakigu, "puntu jartzeko" saio ori, bertsolari-saio guztietan egin oi dana.

2) "Lau itzekoa". Maiko batek, puntutarako lau itz esan, eta bertsolariak, lau itz aiek puntu bezela erabilliaz, bertsoa osatu. Adzidez, lau itz auek: *usaya, lasaya, bisaya* eta *saya*...

Deabruaren zañekoa naiz  
ni, onelako BISAYA!  
Edozein gauza esango nuke,  
mingaña daukat LASAYA.  
Esko duanak geiago naya;  
arrazoiarekin SAYA;  
mundu guziyak neri aitzen dit  
arlotiaren USAYA.

3) Ofizioak. Ariera ontan egin oi dira bertsolari-saiorik geienak: Bata nagusi, bestea morroi; bata tabernari, bestea edale; bata baserri, bestea kale... alkarri "asto-beltxarenak" esaten, jendearen algara-gai...

*Bertsolarien "ritmoak"*

Monotonoa al da bertsolaria?

Uki dezagun pixka bat, orain, bertsoaren doñuari eta "ritmoari" dagokion gaia.

Bertsolariak ritmo asko erabiltzen ditu: Kantu bakoitzak eskatzen duan ritmoan kantatzen du. Bat ere pentsatu gabe, zer ritmotan ari dan. Kantuak berak ematen dio ritmo.

Batzutan "puntu luzean" ariko da; bestetan "puntu motxean". Batzuetan bi puntuko bertsoan; besteetan lau puntukoan... eta baita host eta seikoan ere... eta bederatzi puntukoan. Bederatziko auek dute bertsolarien artean, ixtimaziorik aundiena. Xenpelar'ek Ernani'ko bei betroiarri kantatu zizkionak, adibidez:

Ostegan joan danian / amabost Ernani'n  
betroi baten tratua / genduan egin.  
Saetzalle Inazio / erostuna Premin;  
emeretzi ezkutu / genion eragin.

Sabelian du min,  
 iñork ase ezin,  
 artuari muzin,  
 ez du nai edozin...  
 Atzetik bear dittik / zazpi medezin.

Begi bat itsua du / adar biyak motzak ;  
 krisellua dirudi / aren kokotzak.  
 Burlaka ari zaizka / Elizatik ontzak...  
 Sano dauzka ortzak,  
 agiñak zorrotzak ;  
 tristura biyotzak  
 dantzan dabil otzak :  
 ez diyo onik egin / leku arrotzak.

Burruka ari dala / jua zaizka adarrak,  
 ezin sujetaturik / bere indarrak.  
 Talentu onak dauzka / gure betroi xarrak :  
 lurrera botatzen du / euli baten kargak.  
 Jendiaren farrak  
 ez dirade txarrak  
 ganadu elbarrak  
 juntura igarrak...  
 Burruntziya dirudi / aren bizkarrak.

Orra orain, bi puntuko bat :

*Tiriki-tauki-tauki,*  
 malluaren otsa...  
 Biyar ezkontza dala  
 gure neskamotza.

Irukoa :

Nere andreak ekarri zuan  
 Aranaz'tikan dotia ;  
 obe zukian ikusi ez balu  
 Berdabiyo'ko atia ;  
 orain etzuen ark idukiko  
 dadukan pesalunbria.

## Laukoa :

Morerira juan, ta  
 sutan bear dut asi ;  
 enplio txarrerako (bis)  
 ez ninduten azi.  
 Zer egingo degu, ba?  
 ill artian bizi...  
 Adios, aita ta ama (bis)  
 ta Mikeliñazi.

## Bostekoa :

Uso txuria : errazu,  
 norat joaiten ziren zu?  
 Espainia'ko portuak oro  
 elurrez beterik dituzu ;  
 gaur gaberako ostatu  
 gure etxian ba duzu.

## Seikoa :

Ango sukak-bazterrak / ikustekoak :  
 labatzik bat-ere ez / falta auspoak ;  
 alki sendoak  
 iru edo lau arri / kintalekoak ;  
 ango zokoak  
 ezkondu ezkeroztik / garbitzekoak.

## Zazpikoa :

Ikusten duzu goizean,  
 eguna asten denean  
 menditto baten gañean,  
 etxe ttipittq aitzin-xuri bat,  
 bi aitz andiren artean  
 —iturriño bat aldean,  
 txakur ttiki bat atean—?  
 An bizi nuzu pakean.

## Zortzikoa :

Prantxisku : zer dakarrek  
 ik, gure erritik?

Aspaldiyan ez diyet  
 ango berririk.  
 Zerbait jakin nai nitek  
 alderki artatik;  
 aserria niagok  
 —ez dek milagrorik—;  
 ez diat egunik,  
 ez eta arratsik  
 —sinista nazak ik—  
 pentsamentuz etxera / juan gabetanik.

Ritmo naasiagorik ere erabiltzen bait da iñoiz, doñuak ala eskaturik; “San Ignazio’ren martzan” adibidez.

#### ZERTSOLARITZAREN ALDAKUNTZAK, “EBOLUZIOA”

Galdera bat egingo didazute, bear bada, orain: Bertsolaritzak ez al du egin aldakuntzarik bere bizian: bere bizi luzean? milla, bi milla urtean?

—Bai: Kopla Zaarretatik, gaurko “bertso berrietara”; artzai-girotik, nekazari-girora; izaera lirikotik, izaera “dialektikora”...

\* \* \*

Kopla Zaarrak. Gure Aozko Literaturak, ba du “genero” berezi bat: Kopla Zaarrak. Lengo urtean ukitu bait genduan gauza au luze ta zabal. Kopla Zaarrak bai al dute zer-ikusirik Bertsolaritzarekin?

—Bai. Kopla Zaarrak, leengo Bertsolari Zaarrak egiñak dira; noiz-pait nunbait kantatu, eta gero Erriaren gogoan geldituak, eta, gaur oraindik, egun jakiñetan, errietan kantatzen diranak...

Kopla Zaarrak esaten diegu, Santa Agedaz eta Urte Zaarrez-ta, etxerik etxe errondan kantatzen diranai. Eta Bertso Berriak bezelaxe, kantuan sortzen dira, eta kantatu egiten dira; bañan beti doñu zaarretan: Urte Zaarretako eta Santa Agedatako doñu ezagunetan...

Geienetan Kopla Zaarra bi puntukoa da; aldian bein, irukoa. Berez, “puntu luzea”.



Urte Berriren bezpera da-ta  
kantuan gatoz atera,  
Birjin Amaren Seme garbiya  
dijoalako Pontera.

Au aiziaren epela!  
aidian dabil orbela...  
Etxe ontako jende leialak:  
gabon Jainkuak diyela.

Bañan, neurriaz gañera, kanta-gaiari buruz ere, Kopla Zaarrak ba du te beste gauza bat, oso nabarmena: Koplaren aria erdi-erdian eten egiten dala, bi puska. Eta Koplaren bi puskek ba dirudiala alkarrekin zerikusirik bat-ere ez dutela. Adibidez, arestian ikusi degun Kopla:

Au aiziaren epela!  
aidian dabil orbela...  
Etxe ontako jende leialak:  
gabon Jainkoak diyela.

Koplaren izaera "eten" ontaz, leengo urtean ari izan giñan, gauza sakon-xamar adierazten. Gaur Koplaren bi puskatze ortaz ez degu ezer esango, ba dala baizik —askotan ta askotan— ba dala. Bertsoetan, ordea, gaur kantatzen diran bezela, ez dagola olakorik: bertsoaren aria ez dala ola bi puska egiten.

\* \* \*

Aitortu bearra dago, ordea, leen ba zala olako zerbait bertsoaritzaz arruntean. Ni neroni entzuna nago gerra-aurrean Ligex bertsolari jatorrari, bere bertsoak era ortan kantatzen (ikus nere "Literatura Oral Vasca" 70 or.): lenengo zatian troxu liriko bat kantatu, eta orren ondoren, bertsolari lagunari erantzuna eman. Koplaetan bezelaxe. Ligex'zuberotarrak, bere bapatekotasun-teknikan, lenengo-lenengo, lagunari emateko erantzuna pentsatzen zuen; bañan gero, berealaxe, bertsoaren asierako liriko-gai zerbait, puntuz eta gaiez erantzun arekin ondo zetorrena.

\* \* \*

BERTSOLARI ARTZAIA ; BERTSOLARI NEKAZARIA  
BERTSOGINTZA LIRIKOA ; BERTSOGINTZA DIALEKTIKOA

Ageri danez, aldakuntza aundi bat gertatu da, urteen buruan, bertsolaritzan. Leengo bertsolari zaarrak —*koplari* edo *koplakari* esaten ere zitzaien— bertsoa kopla zaarraren antzera egiten zuten: erdia liriko-antxa, eta beste erdian lagunari erantzun. Oraingo bertsolariak —bertsolari xenpelartarrak— bertso osoan, asi ta buka, lagunari erantzuten jarduten dute.

\* \* \*

Aldakuntza ori, ordea, ez bait dago bertsoaren egituran bakarrik; baita bertsoaren ideia-gaietan ere. Kopla Zaarrak —eta leengo bertsolarien bertsoak— oraingoak baño lirikoagoak ziran, lenengo zatian batez ere.

Oraingo bertsolaria, “dialektikoa” egin zaigu —olerki poesi “dialektikoa” ere bai bait da—; “arrazoitian” aritzea gustatzen zaio batez ere: bere bertsolari-lagunarekin arrazoitan ari; zein-baño-zein, alkakarri zipoka, bakoitza bere egoeran, bere ofizioan... arrazoitan ari, ordu ta ordutan...

\* \* \*

Uste bait det, gañera, aldakuntza ori, bertsolaritza artzaien eskuetatik nekazarien eta langilleen eskuetara pasa danean gertatu dala —itz bitan, nekazaritza gure artean sartu zanean, artzaia nekazari biurtu zanean—.

Artzaia, bere izatez, nekazaria eta industrizalea baño lirikoagoa da. Artzaia, mendi-mendiko portuetan beti ere zeruko izarretara begira bizi da. Nekazaria, eskua goldean, beti lurrera begira. Artzaia, ameslaria da; nekazaria, zerebralagoa. Artzaia liriko; nekazaria dialektiko, arrazoizale...

\* \* \*

Artzaiak, portuetan-gora dijoan usoari kantatuko dio. Etxaun'ek, “Nekazari gaxoari”; eta Salaberria'k “ur-axalean doan ainharari”... Salaberria —Elizanburu, obeto— etzan artzai. Etxaun, nekazaria zan.

Artikola'ko Udarregi, nekazaria zan. Asteasu'ko Pello, errotaria. Txirrita —dialektiko bildurgarria— argiña... Ligex, ordea —bere bertsoak lirikoki eratzen zituan Ligex larraindarra— Ori-mendiko artzaia...

\* \* \*

Bertso-era orren eredu bezela, asko aipa litezke. Orra bat edo beste.

Larre gorrian eperrak aide,  
pagodietan usoak...  
Mutiko gazte aidosoa da  
Juannto mendiberrikoa.

Subia dabil, errest-errest,  
bere bizia bearrez...  
Orra Agustin konpañiako,  
bular-arte a zillarrez.

Xulufrina ta arrosa,  
oian-aldean saratsa... (bis)  
Nafarroa'ko Errege Jaunak  
egin omen du promesa.

Iru seme ditularik,  
iruei bana arrosa... (bis)  
Etarik auta, zuretako da  
neskatxa eder garbosa.

Arboletan den ederrena da  
oian beltzian pagua...  
Itzak ederrak dituzu, bañan  
bertzetan duzu gogua;  
Iaun zerukuak emain al dizu  
niganako amodiua.

Arranuak bortietan-  
-gora dabilta egaletan...  
Ni ere leen andereki  
ebilten kanberetan;  
orai, aldiz, ardura-ardura,  
nigarra dizut begietan.

Arrosatziak lilia ;  
 zuhain berak du ilhorria...  
 zuhain berak du ilhorria...  
 Amorio traidoriak  
 berekila azotia ;  
 ala dio borogatiak :  
 begira tronpa, ene aurhidia.

\* \* \*

Xenpelar'en eskolako bertsolariak, arrazoitan aritzea dute maite. Begira Xenpelar'en beraren eta Manuel Musarro'ren arteko, Errenteria'ko Fabrika Aundiko saioa :

Aizak, Manuel mañontzi :  
 urrengorako goraintzi ;  
 ez al akiken, or pipartzia  
 etzela lizentzi?  
 Ijeniyu txarrak utzi ;  
 bestela ezurak autsi ;  
 gizalegia nola bear dan  
 ezin erakutsi.

Nik ba det gizalegia,  
 Prantxisku'k bañon obia ;  
 beste tatxarik etzait arkitzen,  
 arlote pobria ;  
 ijeniyua noblia,  
 kortesi paregabia...  
 Neri ezurak austeko, ik  
 nun dek abilidadia?.



## Bilintx eta Xenpelar

Itzaldi, Donostia'n, "Dr. Camino'ren" aretoan 1976<sup>o</sup>gn Mayatzean.

Jaun eta Andreok :

Eun urte ongitxo iragoak dira, Donostia'tik Erretereria'ra enbajada gogoangarri bat joan zala. Enbajadaren gaia ez bait zan izan, ez Industri, ez Komertzio-gai, Literatur-gaia baizik.

Donostia'n jendea asaldatu samarra zegon, Gipuzkoa guzian Xenpelar'en izena bal-bal-bal danon aotan zebillelako; "Bertso berriak, Xenpelar'ek jarriak" besterik ez bait zan entzuten baztar guztietan; Xenpelar, Xenpelar... Donostiarrak an zeukaten, ba, Xenpelar'ek aña balio zuana: Bilintx: geiago ere balio zuana. "Zer demontre! Xenpelar-zaleai aditzera eman bear zitzaien, Xenpelar baño obeak ba zirala baztarretan".

Eta or artzen dute asmo bat: Erretereria'ra enbajada bat bidaltzea, Xenpelar'i desapio bat egitera: Xenpelar'ek beti ta beti doñu beratan kantatzen bait zituan bere bertsoak; "Apustu, etzituala kantatzen doñu berri batzutan?". Erretereria'ra joan bear zan, desapio ori Xenpelar'i egitera.

Ori zan desapio garratz arren gaia.

\* \* \*

Historiak ez dio, zein ta zein izan ziran enbajadaren eramalleak Erretereria'ra. Guk uste, ordea, tartean an ibilliko zala Bilintx. "Ibilliko zala" edo-ta "erabilliko zutela donostiarrak".

Bilintx eta Xenpelar urte beretsukoak ziran. Xenpelar leenago il zala; bañan gazterik il bait zan gizagajoa —baztangakin il ere— artean oraindik berrogei urte etzituala. Donostiarren enbajadan, Bilintx ederki joan zitekean.

Eta donostiarren asmoa, seguru asko, Bilintx Xenpelar baño goragotik jartzea zan.

Bañan, nolanai-dala, enbajada-zaleak ez bide zuten aipatu Bilintx'en

riak bertsolaria nai du —salbo-ta aaria bezela— burrukarako (1).

Bertsolaria bera bakarrik ari danean, bereala aspertzen da. Zuzper-tzeko, beti ere, norekin “bertsotan egin” laguna nai izaten dute.

Ortan dago bertsolaritzaren ariera jatorra: bapateko ariera. Gañera-koan, gauza jakiña da, burruka bapatean egiteko gauza dan bertsolaria, pakean ere bapatean aritzeko gauza izango dala...

\* \* \*

Gero ikusiko degu, nolakoa dan bapatasunaren teknika bertsolari-tzan; teknika arrigarria benetan...

\* \* \*

Zer esanik ez, olerkariaren ariera, gai ontan, oso bestelakoa dala. Olerkariak, bapatean ez baño, astiro-astiro irutten du here bertsoaren aria, eta astiro euntzen here estrofaren miesa...

\* \* \*

Bertsolariak, ordea, bapatean. Eta ez edozer rima errexeko bertsoak bakarrik; baita rimarik zallenekoak ere: *-aña, -arra, -in...*

Ala, adibidez, gure Bilintx'ek, bein batean Domingo Kanpaña'ri bo-ta zion gogoangarri-gogoangarri ura.

Entzun:

Mando baten gañian  
Domingo Kanpaña.  
Etziyak utsikan  
mandu orren gaña!

(1) Ola sortu ziguten gure Bertsolariak, leengo Lirikaz eta Epikaz gañera, beste Olerki-mueta bat: “Dialektika-olerki” esan litekeana: arrazoitan aritzeko Olerki-poesia. Izan ere, olako zerbait da, Biblian ikusten degun Job'en Liburuko olerkaritza: arrazoitako Olerkaritza. Eta Biblian bertan ikusten bait degu, baita, beste Olerkari-tza bat ere: “Didaktika-olerkaritza” esaten zaiona, *Sapiential* deritzaten Liburutako Olerkaritza, “Jakinduri-olerkaritza”. Bide orri jarraituaz, berdin esan bait liteke Job'en Liburukoa, “Dialektika-olerkaritza” dala... eta berdin-berdin baita gure Bertsolarie-na ere. Arrazoitan bertsoz aritzeko Artea.

Azpiyan dijuana  
 mandua dek baña,  
 gañekua're ba dek  
 azpikua aña...  
 Mando baten gañian  
 bestia, alajaña!

## KANTUA

Bertsolariak kantuan egin oi du bere bertso-lana; kantuan, kantari osotzen du bere bertsoa.

Olerkariak —olerkari jatorrak— kontrara ixillik eta bere baitan egiten du bere estrofa, bere olerkia. Bai irakurtzeko, bai kantatzeko egiten dituan estrofak, ixillik egiten ditu.

Bertsolariak, kantuan, kantari.

Kantuak ematen dio bertsolariari bere bertsoaren neurri, bere bertsoaren metrika. Kantua du apio bere lanean. Bere bertsoak kantuan egiten ditu, eta kanturako; eta, bizi ere, kantuan bizi oi dira, menderen mende, gure bertsolarien sorkariak.

Euskal-errian “rezitatzallerik” ez degu ezagutzen; kantariak bai, ta ausarki, dirala bertso zaar, dirala bertso berri. Kantuan beti.

Ba liteke, inoiz, gure bertsolariak beren bertsoak, kantatuaz gañera, dantzatu ere egiten zituztela —prehistorian, bear bada—; ez dakigu; bañan ba zitekeala bai, inoiz —prehistorian-edo—.

Bertsolarien ariera, geienez, arrazoitan, disputan izan oi dala esan degu, ostatueta eta plazan. Bañan ez degu bear, beste ariera bat ere izaten dutela bertsolariak beren lanetarako: bertso-paperatako lana. Eta egia da, bertsolaria bertso-paperetarako bertsoak asmatzen ari danean, ez duala ezpañez kantatzen; bañan egia da baita ere, ezpañez ixillik ari dan arren, bere barruko belarrietan kantaren otsa ta kalaka ixiltzeke ari zaiola beti kanta-kantari, ezpañetako kantuan ari balitz bezelaxe. Orre-gatik bait dute bertso-paperak ere, bertsolaria kantuan ari dan bezelakoxe otin eta gustoa.

Dana dala, Euskal-errian “rezitatzallerik” ez degu ezagutzen; kantariak bai, ausarki; dirala bertso zaar, dirala bertso berri.

Beti kanta, kanta beti (1).

(1) Olerkariak —Paskual Iturriaga'k berak bere Alegi Fabuletan— ez dute “ber-



## BAPATASUNAREN "TEKNIKA"

Aurrera jarraitu baño leen, egin dezagun ixkintxo bat, "digresio" bat, bertsoaren montajea arian-arian ikusteko, bapatasunaren teknika pixka bat aztertzeko. Merezi bait du, ain da interesgarria, ain da arrigarria. Ain dira diferenteak, alde ortatik ere, bertsolariaren eta olerkariaren arierak.

Ikustagun.

\* \* \*

Bertsolariak bertso bat —estrofa bat— egin bear duanean —arritzeko gauza!— ez du pentsatzen nola asi bear duan, nola bukatu bear duan baizik. Bukaera da bertsolariarentzat benetako asiera —salbo-ta, Navarro Villoslada'ren "Amaya" nobelan bezela: "Amaya da asieria"—. Edo-ta Filosofia Eskolastikan esan oi dana: *Finis, primum in intentione, ultimum in executione*: zerbait egitekoan "elburua pentsatu lenengo"; bi-tarte, azken. Itz bitan, "azkena da lenengo".

Bertsolariarentzat ere ala da: bukaerako itzak asmatu lenengo; beren punto ta guzi, rima ta guzi asmatu ere. Eta bein, bukaera asmatzen duan bezain laister, bukararen iru puntu, iru rima asmatu bear ditu axkar-axkar begien itxi-ideki batean, eta ikusi berealaxe iru aiek nun sartu; eta, aizkenean jaurti, lenengo pentsatu zuana. Dana, atzekoz aurrera.

\* \* \*

Gauza onen adigarri, gertakari bat esango dizuet: bertso gintzako gertakari bat. Ipuia bait dirudi.

\* \* \*

---

tso" estrofarik egiten; ez dute beren lana "bertsotan" zatitzen: ez dute "kantatzen". Gure egunotan Orixe bere Poema "Euskaldunak" etan bertsolariago izan degu; bere lan guzia kantatzeko neurrian egin digu, eta, berak nai bezela, dana kanturako, bere doñu ta guzi; bertsolariago, euskaldunago. Berjilio latinoak berak ez baitzuan egin ola bere Eneida, irskurtzeko baizik edo-ta errezitatzeko. Orixe oso euskaldun azaltzen zaigu, alde ortatik, bere lanean. Gure Bilint ere, berdin.

Astiasu'ko Pello Errotariarekin gertatu zan. Aya'n. Bigarren Karlis-tate-garaian.

Gerra bukatu berri zan —orain eun urte, ain zuzen—. Eta errietan oraindik ere “guarnizioak” jarraitzen zuten, berriz ere gerra-sua piztuko zan bildurrez. Eta Aya'n ere —Zarauz'ko Aya'n— ba zan olako “guarnizio” zerbait. Guardizibillen batzuek.

Pello Errota'k Asteasu'n zuan bere errota. Eta, baserrietatik irin-billa errotara etortzen ziranez gañera, inguruko errietan ba zituan gure Pello'k dendarien batzuek, iriña eskatzen ziotenak, beren dendan saltze-ko; eta ikusten danez, Aya'n ba zuan, zenbait lekutan “bezero” eta bes-teetan “artzalle” esaten zaien olako dendariren bat. Eta bein batean, “Arre, astua!” or dijua gure Pello Aya'ra, bere irin-zakoa asto-gañean; eta, erriko sarreran, bidagurutze batean, Guardiazibillak: “Alto! A ver el papel” (pasaporte, alegia).

Pello etzan bat-ere estutu.

Buruko txapela erantziatz, eta txapel-barruan zekarren pepel-mutur bat eskuan artuaz, onela erantzun zion Guardiazibillari:

*Buenos días, txanbergo jauna,*  
erantzirikan txapela.  
Gaurko onetan ez bait det uste  
izango dedan kartzela...  
Aspaldi ontan, urrea baño  
geiago degu papela;  
ta, ikusi dezan, ar beza, Jauna,  
Komuniyoko Txartela.

\* \* \*

Aztertu dezagun apur bat gauza.

Gure Pello Errotak, Guardiazibillaren eskabidearen aurrean lenen-go-lenengo pentsatu zuana, here bertsoaren bukaera izan zan:

..... ar beza, Jauna  
Komuniyoko Txartela.

(Pazkuzkoa egiten zanean Elizan ematen zan “ageria”, alegia). Eta berealaxe, bapatean, iru itz gogoratu zituan, bertsoaren asierarako eta

erdirako; iru itz: “txapela”, “kartzela” ta “papela” —Salbo-ta, bertsojai batean, “puntu-jartzalleak” jarri balizkio bezela—. Ortik aurrerako bertsolariaren lana, iru puntu oiek —iru rima oiek— beren lekuan jalkitzea izan oi da; obeto edo txarkiago, laugarrena azkenean jalki arte. Eta, orrela, laugarren puntua, asieratik prestatua danez, beti ere bera gertatzen da zorrotz eta indartsuena.

Olaxe da, bada, bertsoaren egiera; dana atzekoz-aurrera. Eta besteak esan zuan bezela: “Sugeak isatsean benenoa”: *in cauda venenum*; bertsoaren indarra, bertsoaren bukaeran.

\* \* \*

Zenbat-eta egokiago jalkitzen dituan lenengo ta bigarren ta irugarren puntuak, azkenera irixteko, ortan dago bertsolariaren iaioetasuna, trebetasuna ta maisutasuna.

Pello Errota'ren maisutasuna arrigarria izan zan bertso gogoangarri artan.

*Txapela* ainpatzen du lenengoan; eta, ain zuzen, bere txapela txikia guardiazibillaren txanbergo aundiarekin konparatzen du; leengo txanbergo zaarra, txapela bait zan, txapel atze-arroa, oraingo Guardiazibilla-ren zapelaren zerbait antza zuana.

*Kartzela* aipatzen du bigarren; bidezkoa bait zan orduan kartzel-bil-durra, Guardiazibillaren aurrean gerra-ondoren.

*Papela* aipatzen du irugarren; urrearen ordez orduan zebillena, askoren aotan ibilliko bait zan —iguingarri ibilli ere papela— urrea galdu-berri zan urte aietan.

Pello'ren azkeneko atera-aldi xelebrea —Komunioko Txartela erakutsiaz— ezin-da xelebregoa da bertsoaren bukaeran: “documento de identidad” bezela erakusten bait zuan... zer uste dezute? urte artako bere Jaunartzeko “Txartela” Pello'k txapel-barruan beti ere eramán bide zuan Txarteltxoa, bere arrekin batean eramango bait zuan buztin zurizko pipa eta tabako-xorroa...

\* \* \*

Bertsoaren egikera ori, bertsolarien bertsoetan bertan ere garbi agerizaten da. Gure Baserri'ren irrat-saioko bukaerako bertsoan, adibidez.

Orain denbora joan zaigu eta  
bukatu ditugu lanak ;  
ondo esanak gogoan artu,  
barkatu gaizki esanak.

Baserri'k bertso ori egitekoan, lenengo-lenengo gogoratu zitzaiona, "barkatu gaizki esanak" izan zan ; oso gizalegezkoa bait da, itz-aspertu baten ondoren "gaizki esanak barkatu" esatea —"Esanak-esan, gaizki esanak barkatu"—. Baserri'k ori pentsatu zuan lenengo. Eta asieratik orrerañokoa edozeñek igertzen dio ortarako prestakizun bat dala :

Orain denbora joan zaigu, eta  
bukatu ditugu lanak.

Ain egoki ekarria ezik, itz oiek garbi erakusten bait dute bertsolariaren trebetasuna.

Dana-dala, beti ere, esaten ari gerana : bertsolariak gauzak "atzekoaz aurrera" pentsatzen dituala ; azken esan bear duana, aurren pentsattu ; eta gañerakoa, giroak eta "etorriak" dakarren bezela... bertsolaria obeata, lan ori obeto egiña gertatuko bait da :

Orain denbora joan zaigu, eta  
bukatu ditugu lanak ;  
ondo esanak gogoan artu,  
barkatu gaizki esanak.

\* \* \*

Ez dago esan-bearrik, bertsolari maisu-maisu diranak, noizbait kantatuko dituztela beren bertsoak, orren zeatz eta orren estu lege ta ariera orri jarraitu gabe. Adibidez, Baserri'k bere-bere markako dituan Bertso-sekuentzi luze ezagunak arrigarriri kantatzen dituean ; bañan orduan olako bertsoai, ondo begiratu ezkerò, igerriko bait zaie falta dutela, gutxi edo geiago, bertso jatorraren bukaerako arako indar eta grazi berezi ura, Latin Preceptista zanak esan omen zuan arako "in cauda venenum" ura : "Sugeak isatsean edena" alegia...

## ESTILOA

Arestian aipatu degun, bertsoaren bukaerako ezten zorrotz ortaz gañera eta ikusi degun bapatasunaren ondore bezela, ikusi dezagun labur-laburki irugarren bestelakotasuna, estiloarena.

Bertsolariaren estiloa, estilo laburra, estilo etena, estilo saltariña da, batetik bestera dabillena, atzetik aurrera eta aurretik atzera, gertaerak esan ez baño gertaerak komentatzen areago ari dana: gaiaren aldetik komentario motx, eta saltarin, eta formaren aldetik ikaragarritzko elipsis-dun...

Bertsolari jatorrak gai ontan egin oi dituzten "joan-etorriak" eta "gora-beerak" ikusgarriak izan oi dira. Egia da, bertsolariaz beste ere, euskal-estilo jatorra —"kontari"—estilo jatorra— gai ontan oso nabarmena dala, itzak neurtze eta itzak urritze-kontuan. Nolako elipsisak egin oi dituzten, alegia, gure kontu-kontatzalleak beren ipui-kontaktetan.

Ari orri berorri jarraituaz, bada, oraindik areago dira bertsolariak beren kantuetan. Askotan aipatu izan ditut nik, Zafirain baten bertsoak gai oni buruz: nolako elipsisak egiten dituan, bere familiaren deskalabroak kantatzen dituan, sentimen garratz-garratzeko bere bertso garratzetan. Bañan gaur emen Xenpelar'en beste batzuek aipatuko ditut batez ere, labur-labur, "Azkenjuizio-egunari" opa zizkionak. Onela bait dio, 6<sup>o</sup>gn bertsoan —aditza bat ere jokatu gabe, dana izen uts:

Itxasoa su, eguzkiya illun,  
illargiya odolak artu,  
lurrak ikara eta gañera  
ibai guziyak agortu,  
munduko gauza baliyosua  
erre ta ikatz-biyurtu...  
Pekatariyak, umil gaitezen,  
ba da zerekin bildurtu.

Olakoxe puxka-kentze ta elipsisak gauza oso oituak bait dira bertsolarien ariera jatorrean.

Eta Zafirain'en beste troxu jator aiek:

Biyotza kontsolatu ezin penetatik,  
iya atera nintzan nere onetatik.

eta

Suerte txarrerako mundu ontan izan,  
gripek arrapatuta emazia il zan.

\* \* \*

Eta orain bertsolaritzaren irugarren berezitasuna olerkaritzatik bereizten duana zerbait edatu ta adierazi degun ezker, goazen nere itzaldi onen bigarren zatira. Nola betetzen dira Bilintx'engan gauza oiek?

\* \* \*

## INTERMEDIO

Antes de pasar a la segunda y tercera parte de este mi estudio comparativo "Vilinch-Xempelar" y en gracia a los que no hayan podido seguir bien su hilo, diré que he hecho especial empeño en distinguir las características de la Literatura Oral del Bertsolari y las de la Literatura "escrita" del Olerkari o Poeta; características que en el Bertsolari son la Improvisación y el Canto en cuanto al modo de montar la estrofa, y el estilo del lenguaje, que típicamente es de gran movimiento de imágenes y de gran concisión por el mucho empleo que el Bertsolari hace de la elipsis de dicción. El Poeta de la "escritura", por el contrario, ni canta ni improvisa, sino que, por un lado, elabora sus versos en silencio y pausadamente, y, por otro lado, y consiguientemente, su producción es reposada y de mucho menos o nulo empleo de la elipsis.

He hecho especial hincapie en la técnica de la Improvisación, técnica que consiste en que el Bertsolari, en vez de concebir —*in mente*— el principio de la estrofa que va a cantar, concibe el final de ella, completando luego el resto —igualmente *in mente* a base de tres consonantes, pensados rapidísimamente, para enjaretarlos oportunamente en el correr de la estrofa, como cuando en un concurso bertsolarístico el "puntu-jartzalle" le da cuatro consonantes para montar su estrofa improvisada. Todo lo cual no deja de ser cosa muy curiosa y de verdadera novedad en el terreno de la Arte Poética al uso —novedad, desconocida, desde luego, de Horatio el gran Preceptista de la Poesía Latina—.

\* \* \*

En la Segunda Parte veremos cómo se cumplen en Vilinch tan perfectamente las tres características señaladas —improvisación, canto y estilo rápido—; por lo cual hay que decir que era un perfecto Bertsolari, si bien con ciertos ribetes de Poeta “de la escritura”, particularidad que se manifiesta, por un lado, en el lenguaje más ordenado y de no tantas elipsis, y por otro, en el Canto, que siempre es muy rico y hasta novedoso en su tiempo, como lo era por ejemplo el “Hurra papito” de su “Juana Bixenta Olabe”.

\* \* \*

En la Tercera Parte insistiré precisamente en el aspecto de Poeta además de Bertsolari de nuestro donostiarra; Poeta lírico, del género amoroso, género que fue su preferido y para el público en general es su distintivo. Cultivó también el género epigramático, muy donostiarra en su tiempo, y del que un ejemplar de lo mejor —aparte del lanzado contra “Domingo Kampana”— es su famoso “Bein batian Loyola’n”.

Tal es el hilo de esta mi disertación, cuya segunda parte vamos a empezar.

## BIGARREN ZATIA

Nola betetzen dira Bilintx’engan Bertsolaritzaren bereizgarri oiek?

### BAPATASUNA

Gure Bilintx bertsoak bapatean kantatzeko oso gai zala, sobera aditza eman zuan, Kampana’ri botatako aietan. Ba zekian bapatean botatzen. Ez dago dudarik. Eta bera ortarako gai izan, eta berari gustatzen zitzaizalarik, seguru asko ariko zala beste bertsolariekin bertso-kantuan ostatu ta sagardotegietan.

Bañan, guk ezagutzen ditugun ereduak —“Auspoa-bilduman” ikusten ditugunak— bapatean botatakoak al dira?

—Ez inoiz ere. Berak bere ezkutuan ixillik egindakoak dira duda-

izenik. Iparragirre aipatu zuten: "Apustu, Xenpelar'ek etzuala kantatzen, Iparragirrek bezela, betiko doñuan ez baño beste doñu batean?".

Bilintx'ek ere kantatzen zuan olako doñu berritan, Bañan ordu artan obe zan, Iparragirre baten izena aurrera botatzea. Bilintx reserban eukitzea obe zan...

\* \* \*

Enbajadaren ondorea nolakoa izan zan, danok dakizute. Xenpelar aundiak, ixtanpatean, geroztik "Iparragirre'ren doñua" esaten zaion bertso-sail berria kantatu zuan, entzuten zeuden guziak arriturik uzten zituala. Aien artean an izango bait zan, bear bada, gure Bilintx ere; ez seguru besteak bezain arritua; ezagutzen bait zuan Xenpelar'en trebetasuna trantze aietarako.

Bañan, dana-dala, enbajada gogoangarri ura ezkerro, jendearen aurretako, aurrez-aurre gelditu ziran, ez bear bada, Xepelar ta Bilintx; bañan bai Xenpelar'en eskola eta Bilintx'en eskola; obeto, gure aurretako, Bertsolaritza eta Olerkaritza; ez ba't dira gauza berdiñak, oso elkarrengandik bestelakoak baizik.

Eta orra orrekin aipatu nere itzaldi onen gaia: Bertsolaritza eta Olerkaritza, bi eskola, elkarrengandik ez-berdin.

\* \* \*

Bañan, aurrera baño leen, entzun dezagun, egun artako, Xenpelar'en atera-aldia:

Iparragirre abilla dela  
askori diyot aditzen;  
eskola ona eta musika,  
ori orrekin serbitzen...

Ni ez nazu ibiltzen  
kantuz dirua biltzen  
komeriante moduan;  
debalde pesta preparatzen det  
gogua dedan orduan.

BI LITERATUR-IZAERA AURREZ-AURRE

Bi Literatur-izaera dauzkagu aurrez-aurre: Bertsolaritza eta Olerka-



ritza. Obeto esan, Aozko Literatura eta Idatzizko Literatura. Neur ditza-  
gun bioen mugak argi ta garbi.

Xenpelar, bete-betea, Aozko Literaturan dago. Xenpelar garbi-gar-  
bi "bertsolaria" da.

Bilintx ere "bertsolaria" da, eta bertsolari jatorra; bañan, denbora  
berean ao-gozatu du baita "olerkaritzaren" ardo gozoa; bertsolariz ga-  
ñera, olerkari poeta da denbora berean, eta olerkari ez txarra, erroman-  
tizismoaren arian.

\* \* \*

Itzalditxo ontan ez ditugu aurrez-aurre ipiñiko Xenpelar "bertsolaria"  
eta Bilintx "bertsolaria". Leen esan degu-ta, aurrez-aurre bi eskola, bi  
Literatura-izaera ipiñiko ditugu: Aozko Literatura eta Idatzizkoa. Bi  
izaera oso alkarren artean bereziak.

Berezitasun oiek markatu nai ditugu emen gaur. Berezitasunak, bai  
bertsolari ta olerkarien arieran, bai lanaren ondorenean, lanaren frui-  
tuan.

Jorra dezagun gauza pixkatxo bat.

\* \* \*

Bi bestelakotasun, bi diferentzi arkitzen ditugu, bertsolaritzaren eta  
olerkaritzaren artean: bata arieran eta bestea ondorean. Eta arieran bi  
gauza: bapatasuna eta kantua.

Bertsolariak bapatean eta kantuan sortzen du bere bertsoa; olerka-  
riak, astiro ta ixillik.

Sakon ditzagun pixka bat bi diferentxiok.

#### BAPATASUNA

Bertsolariak bapatean egiten du —egin bear du— bere lana. Maiz  
asko alkarrekin demandan, arrazoitan, ari oi dira bertsotan; eta, jaki-  
ña, arrazoitan alkarrekin ari dirala, ez daukate, eman bear duten arra-  
zoia aldez aurretik pentsatuta eukitzerik, demandaren ariak dakarren  
bezela erantzutea baizik.

Eta, ain zuzen, bertsolariak, bertsotan demandan, burrukan aritzea  
oso maite dute; ortan dute beren atsegiña, bertso-burrukan... Bertsola-

rik gabe. Bañan orrek ez bait die kentzen kanta oieri beren bapatasun izaerarik.

Gauza jakiña da —eta esan ere degu— bertsolariak, plazan eta ostatuetan kantatuz gañera, bertso-paperak ere egiten zituztela. Eta gaur kantatzen ditugun aien bertsorik geienak, bertso-paperetan egin zituztenak dirala seguru da. Bañan, ala ere, papel oieri ezin ukatu genezaieke beren bertsolari-izaera nabarmen-nabarmena. Bertso-paperetako bertsoak eta bertsolariak kantuz botatzen dituztenak, alde ortatik berdin-berdiñak izan oi dira. Botatzeko era, bestelakoa dala, ori bai; bañan bertsoaren beraren izaera, biotan berdin-berdiña.

Nola litekean ori?

—Errex. Leen ere esan degu.

Bertsolaria, bertso-papera asmatzen ari danean, bere baitan —bere barru-barruan— kantari ari da. Bertsolariak, orduan ere, ezin utzi deza ke alde batera kantuaren doñua. Eta, plazan edo ostatuan kantuan ari dan bezelaxe ari da, bere baitan, bertso-paperetarako ari danean ere; beti ere kantuari loturik, kantuari eta bapatasunaren “teknikari” loturik. Orregatik dira ain elkarren antzekoak, bide batetik naiz bestetik jalkitzen zaizkion bertsoak; batzuek bezain jator besteak ere...

\* \* \*

Alde ortatik, beraz, bertsoaren egituraren aldetik, Bilintx beste bertsolari guztien neurri berean ikusten degu: Bertsolari jator. Zeozer diferentzi gertatzen baldin bada, beste aldetik da: doñuen aldetik, musikaren aldetik, gero ikusiko degun bezela, edo Bilintx'en donostiar-kulturaren aldetik —ortik datorkion bentaja edo bestelakotasun apur batetik— ori ere gero ikusiko bait degu. Xenpelar'ek Iparragirre'rentzat esan zuan “eskola ta musika”tik-edo, alegia:

“Eskola ona eta musika;  
ori orrekin serbitzen”.

Iparragirre'k eskola ta musika ba zituan; bertsolaritza jatorra falta ezik (1). Gure Bilintx'ek, ordea, bertsolaritza jatorra izan, eta gañera, eskola eta musika...

(1) Garbi ditzagun kontuak. Iparragirre etzan bertsolari jatorra. Izan zitekean;

## KANTA

Eta kantari buruz, zer esan?

Bertsolariak bere bertsoak kantari egiten dituala, esan degu: kantari, naiz plazan edo ostatuetan beste bertsolariekin bertsotan ari danean, naiz bere baitan bertso-paperetarako bertsogintzan ari danean; beti kantuan...

Nola jardun zuan gai ontan gure Bilintx'ek?

Asieran esan degunak erantzuten dio galdera oni. Donostiarrak Xenpelar'i egin zioten desapioa, kanta-konturako izan zan: "Ezetz Xenpelar'ek doñu berritan bertsorik kantatu". "Kantatu" eta "doñu berritan": ori zan donostiarrak Xenpelar'i eskatzen ziotena... Danok dakigu nolako erantzuna eman zien Xenpelar aundiak:

Iparragirre abilla dala  
askori diot aditzen;  
eskola ona eta musika,  
ori orrekin serbitzen.

Ni ez nazu ibiltzen  
kantuz dirua biltzen  
komeriante moduan;  
debalde pesta perparatzen det  
gogoia dedan orduan.

Desapio artan, leen esan degu, naiko garbi ikusten zan Bilintx'en eskua. Iparragirre'ren izena bota zuten aurrera donostiarrak —Bilintx'en erritar eta Bilintx'en adixkide ta laboratzalleak—. Desapio ori Bilintx'en alderditik atera zan, bilintxtarren artetik.

---

bañan etzuan "praktikatu", etzan "trebatu" ofizioan. Lau bat bertso ba ditu ondo egiñak, eta graziagatik eta musikagatik-eta jendearen oroimenean bizi diranak; bañan "ale bakanak" ditu; ez du "illara' oso bat" bertsolari-grazian egifiik. Mundu guziak kantatzen duana da, arako "Nere amak baleki" goxoki dion ura; berdintsu, baita, beste arako "Ama, zertarako da negar egitea" edo "Bañan biotzak dio: Zoaz Euskalerrira"; berdin baita "Ume eder bat ikusi nuan" ere; eta batipat "Ara nun diran" asten dan otsaundiko bertso biribil ura; eta "Ezkongaietan zerbait banintzan" ere, baldin Iparragirre'rena bada beintzat... Bañan "Gernika'ko arbola" bera, sentimenez eta ideiaz ondo betea dan arren, bertsolaritzaren aldetik ez da iristen —ezta gutxiagorik ere— ez Xenpelar'en, ez Bilintx'en mallara. Urretxua'ko semea etzan bertsolari jatorra, etzan ofizioan "trebatu".

Eta desapio-egiñaz gañera, kantatu ere, Bilintx'ek berak ola kantatu oi zuan. Aren bertsoak, asko ta asko, musika berritan, doñu berritan egiñak daude. "Juana Bixenta Olabe" testigu. "Juana Bixenta Olabe" benetan doñu "erreboluzionarioa", itzultzalea izan zan, bertsolari-artean urte aietan : musika berri, metrika berri : "Hurra, papito" esaten zitzaion doñu berria. Musika berri arren apio gabe, ez bait zan bertsolaririk, alako metrika sortu zezakeanik. Eta Bilintx'ek sortu bazuan, musikari esker, kantari esker, doñuari esker sortu zuan.

Itz bitan : Bilintx'ek bere bertsoak, ez kantari sortu bakarrik, kanta berriz sortu ere zituana.

\* \* \*

"Juana Bixenta Olabe"ren kanta, benetan kanta aberatsa zan; oin etenak eta're zituana. Entzun dezagun :

Nagusi Jauna :

auxen da lana!

Amak bidaltzen nau berorengana.

—Ai! bidaliko bazinduke maiz!

Zu ikusita kontsolatzen naiz.

Sinista zazu :

oso txoraturik nadukazu :

orren polita nola zeran zu.

#### ZALDIBIA'KO IZTUETA

Egia da, Bilintx'ek baño leenago bide berri oiek beste batek ere entsaiatu zituala : Iztueta'k, Iztueta zaldibiarrak. Urte batzuek leenago, bere "Kontxexi'ri" opa zion kanta ezagun-ezagunean, doñu berri bat entsaiatu zuan; eta, benetan, "Juana Bixenta Olabe"renaren antz ez gutxi-koa. Biok bait dira metrika ez-oituan egiñak; biok puntuak "aire-ta-bote" erabiltzen dituztenak. Era beretsuan egin bait zuan Xenpelar'ek ere bere "Iparragirre"renekoa... Orduan jendearen aotan zebiltzan doñu iraultzalleak ziran nunbait. Doñu saltariñak; bertso beraren barruan puntuak, txitian-pitian aldatzen zituztenak.

Entzun :

Maite bat maitatzen det maitagarria ;

begi ederra du ta guztiz argia ;  
 daukat urruti,  
 bañan ezin kendu det buruti  
 aren itxura ;  
 saldu al baliteke pixura,  
 urrean truke  
 nork erosi faltako ez luke (bis).

Doñu onen beronen gañean egindako beste kanta bat ere bai bait da, lenengo Karlistatekoa, orrenbeste puntu-aldatze gabekoa. Gaztel-erriko sukalde bat nolakoa zan esaten bait digu. Ikus :

Ango sukale-bazterrak ikustekoak :  
 labatzik bat ere ez, falta auspoak ;  
 aulki sendoak,  
 iru edo lau arri kintalekoak ;  
 ango zokoak  
 ezkondu ezkeroztik garbitzekoak (bis).

Sei puntukoa, ikusten danez, Karlistatekoa ; seirak berdin (-oak, -oak) ; Iztueta'k, ordea, lau aldiz puntua aldatzen bait du ; ori bai, dana grazi aundi...

\* \* \*

Gure Bilintx, Iztueta'ren aldean otxanxeagoa da ; otxanago, ez ain saltarin. Iztueta'k bere bertsoan puntuak biñaka darabilzki, eta elkarren ondo-ondoan, beti puntu berri... Bilintx'ek, puntuak aldatzen dituan arren, ez ain maiz. Biok puntu aberatsak bai, bañan zaldibitarrak maizago aldatuaz.

Entzun dezagun, herriz ere, Bilintx'en "Juana Bixenta Olabe" :

Nagusi Jauna :  
 auxen da lana !  
 Amak bidaltzen nau berorregana !  
 —Ai ! bidaliko bazinduke maiz !  
 Zu ikusita kontsolatzen naiz.  
 Zinixta zazu :  
 oso txoraturik nadukazu,  
 orren polita nola zeran zu.

Bilintx'en eta Iztueta'ren kantak, oin etenetan dute, besteak beste, elkarren antza aundi. "Nagusi Jauna", "auxen da lana" eta "xinixta zazu" dio Bilintx'ek bere "Juana Bixenta Olabe"n; "daukat urruti" eta "aren itxura" eta "urreetan truke" Iztueta'k bere "Kontzeri'ri"n, biok berdin, "oin eten" *pie quebrado* anakrusicidunakin...

Itz bitan: gure Bilintx, beste gauza askotaz gañera, doñu ta kanta-kontuan zala "mutilla". Eta doñuetan, ez melodi-kontuan bakarrik, baita ritmo-kontuan ere. Eta ritmo-kontuan, maiz jotzen bait du ritmo daktilikodun doñu arin grazi aundikoetara. Iztueta'k bezela; biok ortan ere oso elkarren antzeko dira.

\* \* \*

Eta zer esan, puntuari rimari buruz?

Bertsolarietan gauza jakiña da, Xenpelar'ek, bere Bertso Berrien birtartez, Gipuzkoa'n, rima-kontuan Eskola zeatz estua sortu zuala, batez ere beste aldeko Etxaun baten aldean, "orraze estuko Eskola" esango gendukeana; eta ori, baita rimarik zallenetan ere. Ikus "Betroyaren" bederatzi puntukoa...

Bada, bertsolarietan iñor bada-ta, gure Bilintx da, gai ontan, orrazerik estuenetakoa: estu eta rima-berri-sortzalle gañera. Bi edo iru kasu bitxi bakarrik —"Bilintx'en markakoak" esango genituzkeanak— aipatuko ditugu emen. Puntu rima bitxiak, Bilintx'en markakoak.

"Domingo Kanpaña"reneko "mando baten gañian bestia, alajaña" puntu benetan bitxia bait da, eta benetan aipagarria, puntu motxean bost aldiz *aña, aña*... Bañan baita "Bein batian Loyolan"eko "jajai!" desairetsu ura ere: aipagarria.

Iñor gutxiri otuko zaiona da, baita, arako "Juana Bixenta Olabe"renean gure gizonak "errenta" itzarekin egiten duan puntu ez-oitua:

errenta  
pagatzeko dirurik etzuen-ta

Bañan Bilintx'ek ba du beste bat ere, oso gutxi edo bar-ere ikusten ez dana: itzarekin ez baño itzaren atzizki "ren"ekin ainbeste graziz egiten duan puntua, salbo-ta, Gabon-kanta donostiar batean ikusten deguna:

Jesus jaio da Belen'en...  
billa gabiltza beraren

bezelakoxea. Ikus "Loriak"en bigarren bertsoa :

Oso nago mendean  
Jainko itxuaren  
—Ama Venus'engandik  
jayotakoaren—;  
neroni enaiz jabe  
nere biyotzaren;  
gaxua preso daukat  
amoriyuaren.

Nik gogoan dedala, beste iñor bertsoarik puntu-kontuan "ondu" ez duan marka jatorra...

#### ESTILOA

Estilo etena dala, esan degu, bertsolariaren estiloa, bertsoaren teknikak bertsoari ezartzen dion estiloa. Etena, elipsis aundiduna. Azkarra, gauza batetik bestera azkar joaten dana. Lokera kronologikorik gabea nunean-nunean. Lokera logikorik ere askotan ez duana (1). Ez det esango, Kopla Zaarrak bezela, irudimenaren logika beste logikarik ez duana, bañan bai olako zerbait. Gauzak askotan atzekoz aurrera esaten dituana; Zapirain errenteriarraren bertsoetako "orden ez-ordenatu" alako zerbait, alegia...

\* \* \*

Bilintx'en bertsoetan ez da olakorik; donostiarraren bertsoetan esakizunak elkarrekin txükun joslak ikusiko ditugu. Bertso bakoitza, bere baitan, naiko "baserri" dalarik, bertsoen elkarren arteko katea "kaletar" arkitzen degu: kaletar, ots! kate kronologiko baten barruan, kate logiko baten barruan. Bilintx'ek ez du gai ortan, Zapirain baten zorabiorik

(1) Gabon Zaarretako Kopla Zaar batek "Nagusi Jaunaren urrezko bizarra" lokera logikorik gabe "or goiko izarra"rekin eta "errekaldeko lizarrarekin" bat-egiten ditu.

sentitzen —gauza bat bera, aide-ta-bote, leith-motiv bat bezela, nun-nai erabilli bearrik, alegia—. Kate txukuna, “orden ordenatua”, Bilintx’ena. Ortan igertzen zaio bere kale-kultura, bere donostiar-kultura.

Ikus, bestela, ezer bada-ta, “Juana Bixenta Olabe”ren arrazoi-kate, xuxen-xuxen eramana; nola erantzuten dien neskatxa maratzak gizon maiteminduaren arrazoiai.

Ikus, baita, “Kontxexi’rentzat’eko bertso-sail egoki-egoki eratua: nola abonatzen dituan, banaka-banaka, neskatxaren bentaja arrigarriak: *lendabiziko*, ta *urren*, eta *ondoren* eta *segiran*...

\* \* \*

Eta ideiaen kateaz gañera, elipsisa aipatu degun ezkerre, esan deza-gun, Bilintx’en bertsoetan, bertsolari jator danez, arkitzen dizkiogula, bai, olako elipsis murriztalleak. Bat, beintzat, ez nolanaikoa, *constructio praegnans* esaten zaien oietakoa baizik: arako “Juana Bixenta Olabe-ren” lenengo bertsoa:

Oso txoraturik nadukazu,  
orren polita nola zera zu.

Ez bait dio, zuzeneko galdera balitz bezela:

Orren polita nola *zera* zu?

saietsetiko ta menpeko esaera bezela, baizik: “nola *zera* zu”; esaeraren barruan “pentsatuaz” bat ezkutatzen dala, alegia:

Oso txoraturik nadukazu (pentsatuaz)  
orren polita nola ZERAN zu.

“*Constructio praegnans*” esaten bait zaio olako esaera murriztuari.

\* \* \*

Gañerakoan, aldiaren bein bakarrik azaltzen bait ditu olako edo orren antzeko elipsisen batzuek; ez beste bertsolarien neurri ugarian.

Ikus bertso bat:

Zer ongi biziko zera!  
Nai dezuna jan ta eran,  
guziya aukeran.



Jazteko ere  
 zuk ez bat-ere  
 gastuari begiratu ;  
 dendik onenetan sartu,  
 gayik ederrenak artu  
 eta soñak enkargatu.

Edo beste au :

Zuk asko merezi ta  
 nik gutxi baliyo.

Edo beste au :

Arrek naikoa jan, ta  
 ni, berriz, goseak.

Bañan, egia esan, olako elipsiak oso nekez arkitzen dizkiogu gure bertsolariari (1).

---

(1) Elipsis-falta, ezertan bada-ta, bromazko bertsoetan igertzen da. Satira-izkuntzan batez ere bait datoz egoki olako elipsi-esaerak.

Orra bada: Bilintx'ek, Xenpelar'en antzera, bederatzi puntuko bertso-sorta satiriko bat egin zuan: Xenpelar'ek bei "Betroyari" bezela, Bilintx'ek kale-garbitzallearen "Zandi Zuriari".

Bertso-sorta bi oien artean dagon ez-berdintasuna, besteak beste, ontan dago: Xenpelar'en lanak elipsis asko dituala; Bilintx'enak ia bat-ere ez.

Gañerakoan ere, Bilintx'en lanetan, elipsis-kontuan nekez arkituko degu "izenik", aldamenean "aditzik" gabe dagonik; ezta aditzik ere, bere aditz laguntzalea aldamenean ez daramanik. Xenpelar'ek, alderantzira.

Ikus: Xenpelar'en "Betroyarenean" ez da bertsorik, bizpauru elipsisik ez duanik. Begira :

Saltzalle Inazio (zan) / erostuna Premin ;  
 iñork ase ezin (du),  
 artuari muzin (egiten dio)...

Edo-ta :

Egunero nai-ezik (dauka) ogi-alia ;  
 ala're ezin jaso (du) lepoko joalia ;  
 burua makurtuta zerbaiten galdia (egiten du)  
 gauz onen zalia (da) / bizkotxo-jalia...

Edo-ta :

Espalda ateria (du) /urgun (dago) besotik ;

\* \* \*

Gañerakoan ez det esango, txukuntasun orrek Bilintx'en arierari kalterik egin dionik. Bañan bai esan bearra dago, alako bestelatasun berezi bat sentizen dala, Bilintx'en bertsoak entzutean, Xenpelar baten bertsoen aldean. Sagardo ber-bera egon liteke kupelean eta botellan; bañan sagardo-zale jatorrak —apuratzalleak— bestelakoa arkituko dute beti kupelekoa botellakoaren aldean. Txotxeakoaren garratzak ba du bere grazi. Xenpelar'en garratzak izango du beti alako ao-goza, Bilintx'en aldean.

Orrek ez bait du esan nai, au besterik: bi arierak elkarrentzat “zer-bait bestelako” dirala, zerbait bestelako. Bañan ortan bakarrik: estiloan; ez bapatasunean, ez kantutasunean, ez bertsoaren bere baiteko misteriozko izaera jatorrean...

## IRUGARREN ZATIA

### ALA ERE OLERKARIA

Eta ontan bukatu bear luke nere itzaldi aspergarri onek. Bañan, esandakoak esan ondoren, galdera bat galditzen zaigu oraindik txintxillik: Orren bertsolari izanik, nundik datorkio ba gure Bilintx'i olako olerkari fama ta izena? Askorentzat —guk emen esan ditugunak gora-beera— bertsolari baño areago bait zan olerkari, poeta...

Orra gauza oni nere erantzuna: olerkari-izena, Bilintx'i, bere lane-tan ageri duan donostiar-kaletar-kultura apurrez gañera, seguru asko, bere bertsoetan ikutu zituan gaietatik datorkio: ikutu zituan gaietatik.

eztula ta antsiya (dariyo) / ikullu-zokotik...

amarra lepotik (duala) / grillua orpotik...

Bilintx'en “Zaldi zuriarenean” intziso txiki bat besterik ez degu arkitzen bertso guztietan, olako zerbaiten antza duanik:

Ez du zartzera txarra / gaxuak arkitu;  
pausua nagitu (zayo) / ezin da mugitu...

Bertsolariak ikutzen ez dituzten gaiak. Nik emen bi gogoraziko bait dizkitzutet : maite-gaiak eta epigramak.

#### MAITE-GAIAK

Bertsolariak —bertsolari jatorrak—, oso gutxi ikuitzen duten gaia da maite-gaia.

Iztueta'k ikutu zuan bere "Kontzezi'ri" kantatutako maite-oda zoratuan. Eta oso geroztik Iturrino'k bere "Markesaren alaba"ren maite-hixtori erromantikoan. Gañerakoan —eta dan bezelako "betiko gaia" izan arren— maite-gaia gure bertsolariak plaza-saioetan iñoiz ere ukitzen ez duten gaia da. Bear bada, euskaldunok, maite-kontuetan, oso lotsatiak geralako iñoren aurrean.

"Iñoren aurrean" diot, plaza-bertso-saioetan, adibidez.

Kopla zaarretan, ordea, geiago azaltzen bait da maite-gai au. Kopla zaarren gai bezela, berriz —besteren gauza bezela, alegia— bazkari on baten ondoren gure artean iñork ez du muxiñik egingo, maitezko Kopla Zaar batzuek kantatzeko —orfeoi-modura gañera, bi edo iru abotsetara bear bada—, adibidez "Ai! ori begi ederra!" bere bukaerako "Kattalin, nere maitearekin"; bañan, bertso-zaio arrunt batean, bertsolariak, ezta bein bakarrik ere. Eta olako zerbaitetik datorkigu nunbait, maite-gaiak, bertsolarien ez baño olerkarien gauzak areago dirala uste izatea; eta ortatik beretik datorkio Bilintx'i bere olerkari-fama ta izena : Bilintx'ek maite-gaiak kantatu bait ditu batez ere.

\* \* \*

Izan ere, alde ortatik gure Bilintx egiazki, Olerkaria Poeta da; Olerkari lirikoa. Eta Lirikaren barruan, maite-gaia dute Bilintx'en Olerkirik geienak beren kanta-gai. Euskaldunon artean, Bilintx'en izena entzun utsez, danoi "maite-bertsolariaren" irudia etortzen zaigu gogora. Maite-bertsolari, ez negarti, bañan bai sakon-maitalari.

Ez noa gauza asko esatera. Ez da ori nere gaurko itzaldiaren gai bezetia; nere itzaldiaren gaia, Bilintx'en eta Xenpelar'en elkarren arteko antz-ez-antza da. Orregatik labur-labur mintza-bearra daukat.

\* \* \*

Gure Bilintx'ek, oso bertsolari bezela ukitzen du gai au. Bilintx be-  
ti bertsolari azaltzen zaigu; baita lirika-gai ontan ere. Geienez egin  
duana, zera da: bere maite-gaietazko bertsoai musika berri zenbait ipin-  
tzea. Esan degu len. Aren garaian, bertsolariak, Iparragirre'ren aitzaki-  
tan sartzen asiak zituzten moda berriko doñuak: "Juana Bixente Olabe'ren  
"Hurra, papito"ren doña bezela.

Gañerakoan barruan zeraman erromantizismoaren indarrak bultzata,  
ba zuan gizagajoak zer-esanik maite-gai oietan. Eta ola, erabiltzen di-  
tuan "imajiñak" —bere sentimenak azaltzeko erabiltzen dituan imaji-  
ñak— benetan indartsuak dira, eta, nolana dala, ben-benetakoak, auten-  
tiko-autentikoak, ez itxurazkoak, axalekoak...

\* \* \*

Ari ontan merezi bait du aipa ditzagun emen bi edo iru bertso, olako  
benetasun eta irudimen herri-berriz beteak.

Gogora ditzagun iru-bat, irurok oso ezagunak:

Ikustagun, "Kontzezi'rentzat"eko arako troxu benetako ura:

Biotzak salto egiten zidan  
irten nairikan kanpora;  
irten-da, zuzen —ba dakit ziur—  
juango zan zure kolkora...  
Nik jakitera, nai zenduala,  
utziko nion gustora.

Edo beste "Izazu nitaz kupira"ko ura:

Zu baziñake arbola, eta  
ni banintzake txoria,  
nik, zu ziñaden arbola artantxe,  
egingo nuke kabia.

Edo-ta, bere maitearenganako sentitzen zuan lilluramen-indarrez,  
bere arri esaten zion —eta askok eta askok geroztik, iraizean, bertsoaren  
errexari aitor-egiñaz ainbeste aldiz kantatu izan duan beste ura—:

Oñak dituzu txiki politak,  
gustagarriak txit dira;

gerrian, herriz, eman litzazke  
kana bat zintak bi jira.

Markes de Santillana'k izenpetuak baleude, ez bait dakigu nolako aitormen aundi egingo ote litzaikeen...

#### EPIGRAMAK

Epigrama izan zan, Bilintx'ek bere olerki-lanetan ukitu zuan beste jenero bat. Gure bertsolariak ukitzen ez dutena. Jenero zaarra. Erromatarren Olerkariak ausarki ikutu zutena: Marcial batek-eta. Ala berean baita olerkari erdaldunak ere. Gure bertsolariak, ez. Bañan Bilintx'ek bai. Eta ez nolana.

\* \* \*

Bilintx'en garaian jenero au ezaguna ta oitua zan Donostia'n. Ala aditzera ematen digu, Serafin Baroja'ren Epigrama batek.

Serafin Baroja'k —Pio Baroja'ren aitak— bai bait du jenero ontako lantxo bat: far-epigrama, benetan graziduna.

Eta Donostia'n gustatzen zan jeneroa zala, gauzaren detalle batek adierazten du: Epigrama orrek ba duala bere musika; musikan jarria dagola; bai bait zan orduan Donostia'n ortarako umore ta habillidade zuanik musiko bat baño geiago: zala Sarriegi "koxkeroa", zala Santes-teban "maisuba", zala Peña y Goñi folklorista...

Begira orain Baroja'ren Epigrama, bere letran:

Ikusirik pasatzen  
astoak ugari,  
aita batek algaraz  
bere semeari:  
—Begirakiyek, Pello, (bis)  
ire anaieri... (bis).  
Semeak bereala: (bis)  
—Ene! ene! ene!!!  
Oiek nere anaiak?  
Ez nuen nik uste,  
beorrek zituenik  
orrenbeste seme...

## BEIN BATIAN LOYOLA'N

Gure Bilintx'ek ere ikutu zuan Epigramaren jeneroa. Eta egiazki, ez nola-nai.

“Bein batian Loyola'n” Epigrama da, bikañenetakoa. Baroja'rena ona bada, Bilintx'ena, bere mallan, izan diteken osotuena bait da: labur, izkuntza bixi, giza-umore, eta bukaeran grazi berezi-berezia duana.

Eta, ain xuxen, Baroja'renak bezela, bere musika duana; obeto, musikak dituana: bata bertsolari-girokoa —errex-errex, sagardotegietan ere kantatzeko modukoa— eta bestea saloietan ere, piano ta guzi, kanta litekeana: zortziko-ritmoduna...

Entzun :

Bein batian Loyola'n  
erromeriya zan.  
Antxen ikusi nuen  
neskatxa bat plazan,  
txoriya bera baño  
ariñago dantzan.  
Uraxe bai polita,  
an politik bazan.

Arkitu giñanian  
iñor gabe jiran,  
koloriak gorritu-  
erazi zizkidan.  
Kontatuko dizutet  
guztiya segiran,  
zer esan nion, eta  
zer erantzun zidan.

—Dama polita zera,  
polita guztiz, ai!  
Bañan ala're zaude  
oraindik ezkongai.  
Ezkon gaitezen biok.  
Esan zaidazu “bai”...

—Ni zurekin ezkondu?  
ni zurekin? Ja-jai!!

Epigrama guzietan bezela, Epigramaren grazia, bukaeran dago. Lenengo errenkadetan egiten duan pintura, benetan bizia dalarik, bukaeran dago grazia, eta nolako grazia, azken-azkeneko “Ja-jai” ortan; bañan oraindik aundiago, leentxuagoko “ni zurekin?” ortan: “Ni zurekin ezkondu? NI ZUREKIN?”; ondotik “Ja-jai!” fresku ori jaurtitzeko...

Ez bait det uste, iñungo erderetan arki litekeanik, au baño Epigrama obeto biribilduagorik...

DOMINGO KANPAÑA

Bilintx'en beste Epigrama bat da “Bein batian Loyola'n”ez gañera, “Domingo kanpaña” esaten zaion bertso-aldi arrigarria ere. Epigrama farragarria; bañan farragarri baño, bere bapatasunez oraindik arrigarriago bilakatzen dana.

Danok ezagutzen dezute pasadizua.

Sagardotegi batean zan; Igande-arratsalderen batean; berdin izan bait zitekean Ayete-aldean, naiz andik aurrerago, Ernani-aldean, edo-ta, besteak nai duten bezela, Urnieta-inguruan. Sagardotegi batean, arratsalde goiz-xamarrean joan da gure Bilintx bere lagunakin. Andik puska batera, an dator mando-gañean panparroi, Domingo Kanpaña, gizon lodi, ixeka-burla-zalea, gure Bilintx'en bizkarretik far-egitea gustatzen zaiona; bertsolaria bera ere, naiz-ta ez Bilintx'en neurrikoa, bañan bertsotan zipoka aritzeko aña oitua zegona.

Bilintx'ek ikusi bezain laister bota ziona, danok dakizute, Kanpaña'ri joan bait zitzaizkion, zipoka aritzeko gogoak, Bilintx'en Epigramaren bala-ziztuaren burrundara aditu zuanean; bala-ziztuaren burrundara, eta sagardotegiko jendearen far-algaña gozoa.

Entzun dezagun, beste bein ere :

Mando baten gañian / Domingo Kanpaña.  
Etzijeak utsikan / mando orren gaña.  
Azpiyan dijuana / mandua dek, baña  
gañekua're ba dek / azpikua aña...  
Mando baten gañian / bestia, alajaña!

## BUKATZEKO

Eta orain, erabat ixildu baño leen, egin dezagun bilduma txiki-txiki bat, orain arte adierazi ditugun puntuez.

Xenpelar bertsolari-bertsolaria zan.


Bilintx, bertsolaria; bañan baita olerkaria, poeta ere; bion sintesi bat, batetik puska bat, eta bestetik pixka bat zuana.

Eta, izaera bikote orren arabera, donostiarraren arierak ba du bere bereizgarri: geienez baserritar dalarik, igertzen zaiola zerbait kaletar; zerbait ori uste bait det nik, doñuen aberastasunaz gañera, estiloan daukala batez ere; ez bertsoaren bapatasunean, ezta rima ta ritmoan ere, izketaren estiloan baizik. Bilintx'en estiloa, bertsolari jatorraren estilo garratzaren aldean, estilo leun goxoa da.

Orra, beraz, itz bitan, nere itzaldi aspergarri onen azken-itza.

Esan det.





## Bertsolariak Testamentu Zaharrear

Itzaldi, Donostia'ko "Euskal-astea" : 1943

Jaunak eta Andreak :

Itzaurre bezela, gauzatxo bat esan bear dizutet, izketan asi baño lenago. Itzaldi onen *izena* ez dagokiola itzaldiaren *izanari*. Ez naiz mintzatuko Testamentu Zaharraz bakarrik; bi Testamentuak sartuko ditut nere jardun ontan, Zaharra eta Berria. Eta ola, nere itzaldi onen izenak beste onela izan bear zuan: "Bertsolariak Biblian" edo-ta "Bertsolariak Idazteunean"; bañan, egia esan bildur nintzan, ola egiñak, anuntzio-iragarkia ikusten zutenak bear bezain azkar ulertuko ez ote-zidaten esan nai nuana. Askotaz ere adigarriago ta azkarrago bait-neritson "Testamentu Zaharra" esateari, naiz-eta ola gauzaren erdia baizik adierazi ez.

Ez natzaizute, beraz, Testamentu Zaharrez mintzatuko bakarrik, bi Testamentuerei buruz baizik. Eta uste det, zer-edo-zer esango dizutedan Bibliako bertsolariei dagokien gai jakingarri onetaz.

Ez dizutet, bear bada, zeurok lehendik ez dakizuten gauza aundirik esango. Bañan lehendik ere dakizkigun gauzak "neurtzea", on izaten bait-da; ortarako egingo ditut nere alegin guztiak arratsalde ontan. Bertsolariaren izaera "neurtu" bear dan eta zor diogun maitetasun ta ixtimazioa ekarri dezayogun.

Zagozkidate, mesedez, adi-adi.

\* \* \*

Gauzatxo bat esan bear dizutet lenengo-lenengo: mundu guztian gaur dan egunean, bertsolaririk ez dala ezagutzen gure Euskalerritik kanpora, emendik oso urrutiko iru edo lau errialdetan bestetan.

Beste gauzatxo bat, bigarren: Ama Birjiña bera bertsolari izan zala, eta baita aren Seme Jesukristo gure Jauna ere; eta ayekin batean, Testamentu Berrian San Joan'en aita San Zakarias, eta arekin batean Jerusalem'go Simeon zaharra ere; eta Testamentu Zaharrear, berriz, asko ta asko Patriarka, eta ayen artean, guztien gañetik Moises aundia

eta Dabid Erregea. Ala berean, baita, Prophetak, Antziñako Testamenuko Prophetak. Propheta ayen izaera guztia, bertsolaritza jator-jatorra izan zan. Eta Jesus bera ere, ba'dakigu, Jaungoikoaren Semeaz gañera, Propheta aundi izan zala (*Propheta magnus surrexit in nobis*); beraz ez da arritzeko, Bera ere, beste Prophetak bezela, bertsolari izatea. Jakintsuak diotenez, Jesus'ek bere parabolak eta ipuiak bertsotan esan zituan (1). Jakiña, ez gure bertsoak bezelako bertsotan, bañan bai an-ayetako moduko bertsotan, hebreozko bertso jatorretan.

Konbeni da olako gauzak jakin eta gogora ekartzea etxean daukagun doai eder au bear bezela ixtima dezagun. Askotan gertatzen bait-da, auzora begira jarri eta an olako doairik ikusten ez degulako, emen etxean daukagun, bestetan ez bezelako doai ori gutxi-etsi ta mendratzea... Ez dedilla olakorik gerta. Prantsesez eta españolez eta ingles ez ere orlako gauzarik ez izan arren, gauza au ez da despreziagarri, ez gutxiagorik ere. Antziñako Prophetak, eta gure Jauna Bera eta Aren Ama Birjiña ere, "doai ori dun", doai orren jabe izan ziran.

Ikus ditzagun orain, gauza oyen zer-ta-nolako batzuek.

\* \* \*

Ama Birjiñak jakin du, Aingeruak esan-da, bere lengusu Elixabet aurdun arkitzen dala, seigarren illabetean; eta, urruuti-xamar bizi dan arren, an dijoa, apal eta umil asko, bere lengusu maiteari, aurgintzako arazo estuetan laguntzera. Elixabet gaxoa, oso ta zearo arritzen da alako bixita ederrarekin, Jaungoikoaren Ama ber-bera etxean sartzen ikusirik; eta, biotzak agintzen diona esanaz, al duan diosalik ederrena egiten dio lengusu bixitariari. Eta, Jaungoikoaz bete-beterik arkitzen dan Maria'k, berriz, bere barruko sentiera beroari ezin eutsirik, bapatean onela erantzuten dio bere lengusu zaharragoari, gure bertsolariak egingo luketen bezelaxe, kantuz, zortzi bertso bero-berotan bere barruko sentierak aotik ixuriaz:

Gogotikan goretsi / goستن det Jauna;  
eta nere biotza pozez dar-dar daukat / Jaungoikoa dedalako nere osasuna.

(1) MARCEL JOUSSE, "Le style oral rithmique et mnemotechnique chez les Verbo-moteurs". Archives de Philosophie, vol. II, cah. IV. Paris. Gabriel Beauchesne, 1925, cap. XIII.

Len ere esan dizutet: esakunde au, guretzat, orla euskeraz ez da bertso; izkuntza bateko bertso bat beste izkuntza batera aldatzen danean, neurria galtzen bait-du; bañan bere izkuntza jatorrean, hebertarrentzat, bai, bertso ta itz-neurtu jator da. Orain, ordea, ez bait-diot oni begiratu nai, baizik-eta Ama Birjiñaren mintzatzeko erari, “etorriari”. Bere lengusuaren diosalari erantzunaz, “bapatean” mintzatu bait-zan, lendik ezer pentsaturik eduki gabe. Ots, bertsolariak bezela-bezelaxe: bapatean, eta kantuz, ta itz-neurtutan... Orixe bait-da bertsolariaren izaera...

Egia da; San Lukas'en Ebanjelioak eresi au Ama Birjiñak “esan” egin zuala diola, *ait, eipe*; bañan, alde batetik Elizak beti *Canticum* deitu izan dio, eta bestetik Dabid'en Psalmo guztiak bezela-bezelaxe, berdin-berdin ebakiak ditu bere bertsoak, bi erditan, paralelismo ederrean; eta jakiña da, Dabid'en Psalmoak kantatu egin oi izan ziran beti; kantu xaloan, ori bai, kantu lauan, gaur oraindik kantatu oi diran bezelatsu. Jesus'en Amak ere olaxe kantatuko bait zuan bere *Magnificat*, xalo-xalo, otsaundi gabe; bañan “kantatu”...

Bañan jarrai dezagun gure bidean.

Berdin-berdin gertatu zitzayon, San Joan'en aitari ere. San Zakarias muturik zegon bederatziz illabetedanik Jaungoikoaren kastiguz; seme bat izango zutela sinista izan nai etzualako, kastiguz. Mutu zegon; eta mutu jarraitu zuan baita, semea jayota gero ere. Bañan, jayo-berriari zer izen ipiñiko zioten ezin erabakirik etxian zebiltzala, berak ere bere iritzia eman zuanean, “*Joan* izan bedi aurraren izena” ol batean idatziaz, ori egin bezain laister, mututasunak joan zitzaizkion, eta bapatean bertso-kantari ekin zion, bere biotzeko sentierak guztion aurrean onelaxe agerturik:

“Onetsia izan bedi Ixrael'en Goiko Jauna,  
agertu bait-zayo bere Erriari, eta eman bere osasuna”.

Eta olaxe kantuz, bapatean eta itz-neurtu jatorretan, amabi bertso eder kantatu zituan aita zoriontsu ark, bere seme ez-ustekoaren jayotza goratuaz. Bertsolari jator, ikusten dezuten bezela.

Beste orrenbeste esan diteke, Jerusalem'go Simeon zaharrarentzat ere. Gabetik goizera, emakume bat Jerusalem'go Eliza Nagusian sartzen ikusi zuan; eta, munduaren Salbatzallearen Ama zala zeruko argiz igarririk, or ekiten dio berak ere, kantuz Jaunaren gorapenak esaten:

“Zerorrek esan bezela, bai oraintxe,  
pakean uzten dezula zure serbitzari auxe”.

\* \* \*

Iru bertsolari ale oyek, Testamentu Berrikoak ditugu. Testamentu Zaharrean askotaz ere geyago aukeratu ditezke. Bañan guk bat-edo-beste bakarrik aukeratuko degu.

Eta lenengo-lenengo, sobera dakizute, oraindik ere Elizak kantatzen dituan Bezperetako Psalmoak, bertso-modura egiñak dirana; eun-da-be-rrrogeitamar Kanta bait-dira guzitara Psalmo-salla osatzen dutenak. Geyenak, uste danez, Dabid Erregek kantatu zituan lenengo. Bañan ez bait-dakigu, esateko bat-batean kantatu zituanik, orregatik ez det geyegi aipatuko emen Psalmozko bertso-salla bikain au.

Ala ere, orratik, zalantza ta dudarik gabe Dabid Errege bertsolarien artean aipatu bear degula, ori bai. Dabid, artzai izan zanetik, bertso-giñan oso oitua hide-zan. Beti ere gauza jakiña bait-da, bertso-giñan jarduteko bizi-biderik erosoena artzantza paketsua dala. Orain ere alaxe da; ta orduan ere ala izan bear. Eta Dabid, Errege izan baño lehenago, artzai izan bait-zan. Eta artzai ere, ez nolanaiko, oso buru-argidun eta azkarra baizik. Bañan utzaiogun onenbestez pakean, eta ikus dezagun beste bat: Moises; Moises eta aren arreba Maria. Biok bertsolariak bait-ziran; antzin-antziñako modako bertsolariak.

“Antzin-antziñako modako bertsolariak”, ba’dakizute, beren bertsoak, kantatuaz gañera, dantzatu ere egiten zituztela. Euskalerrian bertsoak “kantatu” egin oi dira. Bañan Euskalerritik kanpora bertsoak “rezitatu” egiten dira. Batzuren batzuek kantatu ere bai iñoiz; bañan geyenetan rezitatu. Egia da lehenago, beste errietan ere kantatu egin oi zirana bertso “epikoak”, ots, *Chanson de Roland* eta Romantzeak adibidez. Bañan oitura ta usuario ori, gero ta gutxiagotzen joan da; eta, dirala Odak, dirala Romantzeak, gaur rezitatu egiten dira baztar guztietan. Ain da egia ori, zenbait lekutan bertso-sorta bat rezitatu bearrean kantatzeari, gauza ez-oitu ta parragarria deritzote. Euskal-oitura, ordea, bestelakoa da oraindik; euskaldun bertsolariak bere bertsoak, moda zaharrean, kantuz asmatzen ditu, kantuan sortzen zaizkio, eta kantutik kanpora uste bait-det bertso on bat bakarrik ere aterako ez litzayokeana.

Bañan lehen-lehenago, oraindik zaharragoko beste moda bat ere ba’

zan; ots, bertsoak “dantzatzea”. Jakiña, ez da gure gogoango gauza. Bañan esan dezakegu, gure artean ere alaxe izango zala noizpait. Orain aipatzera noan bertso-kantaketan ala gertatu zan, ez gure artean, Palestina'n baizik; Moises'en arreba Maria'ren bertso-kantaketan, alegia. Bertsoak, kanta eta dantza egin zituan Maria'k.

Eguna ere ez zan ura nolanaikoa. Ixraeldarrak Ejipto'tik atera-ta, ba' zijoazen, ba'zijoazen desertura-bidean; bañan baita ayen ondotik ejiptotarrak ere, ixraeldarrai aurrerako bidea galerazi bearrez. Estu arkitu ziran ixraeldarrak. Zijoazela, zijoazela, Itsaso-gorri topatu zuten; eta itsasoa igarotzeko ontzirik ez bait-zuten, ez atzera ta ez aurrera arkitu ziran itsas-ertzean. Bañan ba'-dakizute Moises'ek zer egin zuan orduan: itsasoa bere makillaz ukitu, eta urak bi aldetara erretirazi zituan, ixraeldarrak bide legorrez beste aldera igaro zitezzen. Bañan ayen ondoren ejiptotarrak ere igaro nai izan bait-zuten, ayek igarotzen ari ziralarik, urai lehenera biurtu zitezela agindu zien Moises'ek; eta antxe uretan ito ziran ejiptoarren tropa guztiak.

Ixraeldarren poza aundia izan zan benetan, beren etsai gaiztoak itsasoan itotzen ikusi zituztenean; eta, pozaren pozaz, bertso-tara jo zuten; eta koplaria, Moises bera izan zuten, bañan arekin batera emakume bat: Moises'en beraren arreba, Maria. Zaldabai edo pandero bat eskuan artu, eta kantuari ekin zion ark ere bere anai Moises'ekin batean, bere onetatik ateratako zoro bat bezela; eta bion artean antxe kantatu zuten, orain oraindik Ostegun Santuz Elizak bere otoitzetan kantatzen duan arako *Cantemus Domino* sonatu-sonatu ura. Bañan kantatu, ez biok bakarrik, baizik-eta Maria'ren kideko neskatxa-sail bat berekin zutela, eta denak dantzan... *in tympanis et choris*... kanta eta dantza.

Etzan oitura au, ixraeldarren oitura bakarrik; beste orrenbeste egiten zuten, antziña- antziña, baita grezitarren bertsolariak ere; beren teatro-lanetako *choroi* ziralako ayetan, kantuz jarduten zutenean... *choroi* oyek dantzak bait-ziran kantuz gañera.

Oitura au ez dakit beste iñun oituko dan gaur; bañan zorionez uste det gure artean ere oraindik, pixka bat bederenik, oitzen dala, Zuberora'ko *Pastoraletan*.

*Pastoralik* nik ez det ikusi azkeneko gerratea ezkerro; bañan gerrate-aurrean bat ikusirik nago (gure gerrateko urte berean, Garindein'en); eta antxe ikusi nuan, orain esatera nijoakizutena. Teatro zahar beneragarrri artan, aldian-aldian mintzatzen dana, ez da *itzez* bakarrik mintzatzen,

*kantuz* baizik —ori bai, kantu errex eta xalo-xaloan, rezitatu eran, semi-tonatu-eran—; bañan oraindik geyago: bere kantu-aldian kantatzen ari dala, ez da geldi egoten; martxa ta kontra-martxa bat egin oi-du, aurrera ta atzera, jendeari begira beti, atzerarik eman gabe... grezitarrak *strophe* ta *antistrophe* esan oi-zutena; bertsoaren erdia arontzakoan, eta beste erdia onuntzakoan; martxa ta kontra-martxa, ots, dantza its bat... Gauza zaharra benetan. Olakoxe zahar-gordetzalle gera euskaldunok. Nik ez bait-dakit, munduan beste iñun olakorik oitzen eta gordezten ote dan...

Gure bertsolariak ez dutela egiten olakorik orain? Galdu egin dute nunbait oitura; bañan seguru asko len nunbait ola egiten zuten... Pastoralak Zuberoa'ko Pastoralak daude testigu. Bertsoak kantuz eman, eta... dantzatu. Itsas-gorriren ertzean Moises' en arreba Maria'k-eta egin zuten bezela-bezelaxe; grezitarrak egin oi-zuten bezelaxe. Jakingarri bait-da benetan guzti ori.

Beste kanta geyago ere kantatu zituan Moises'ek; eta zer-esanik ez, beste Patriarka eta Prophetek; bañan ez goaz, emen ezer geyago aipatzera, luze litzake-ta.

\* \* \*

Ikus dezagun orain, asieran esan dizutedan arako bertsolarien berezitasun ura: gaur munduan oso erri gutxi dirala, alegia, guk Euskalerrian ditugun bezela, bertsolariak dituzten erriak. "Gaur" diot. Lehen bai bait-ziran asko ta asko erri, Palestina'ko hebertarrak bezela, bertso-laridunak. Gaur Palestina'ko jendeak berak ere ez daukate bertsolaririk, lehen izan zituzten arren. Eta orduan oso gauza arrunta eta ezaguna zan beste errietan ere, bertsolariak izatea; ots, bat-batean eta kantuz bertsoak sortzen zituztenak. Bat-batean, aldez aurretik pentsatu gabe, orduan bertan, kantuaren ariari jarraituaz, itza neurtu-neurtua ateratzen zitzayen kantariak, koplariak, bertsolariak...

Ara: gaur eskribuz egin oi-dira zenbait gauza; lehen, ordea, buruz egin oi-ziran. Eta, orain eskribuz egin oi-diralako, buruz egitea zaildu ta ahaztu egin da jende-artean. Gure aitonak, esate baterako, gu baño askotaz azkarragoak ziran kalkulu bat buruz egiten. Orain lapitza erabiltzen degu ortarako, eta kontu ta kalkulu oyek buruz egiteko atzendu ta dorpetuak arkitzen gera. Berdin-berdin gertatzen da bertso-giñan ere,

bertso-gitean; orain “olerkariak”, ots, *poeta* deritzatenak, eskribuz egiten dituzte beren bertsoak; eskribuz eta ondo-ondo pentsatuaz. Gure bertsolariak, ordea, lehengo lege zaharrearantz jarraitzen dute, lehengo moda zaharrearantz, orain milla edo bi milla urteko modan segitzen dute.

Berdin-berdin gertatu bait-da legearekin ere; orain legeak eskribuz ezartzen dira, liburuetan; bañan lehengo lege zaharrak, “oiturak” ziran, usuarioak, iskribu gabeko oitura ta usuarioak, itzez eta aotik--aora ikasi ta gordetzen ziran oitura ta usadio ederrak. Gaur dan egunean, esan bait-dezakegu “lumaren egunetan”, ots, “eskribuaren egunetan” bizi gerala; bai legeetan, bai kalkulu-gauzetan... baita bertsoetan ere Euskal-erritik kanpora... Euskal-errian eta beste bi-edo-iru errialdetan bakarrik irauten bait-du oraindik, eskribu-gabe bertsoak kantatzeko oiturak; “eskribu-gabe”, ots, kantuaren ariari jarraituaz, “etorri” ederrean, etorri bortitzean, bertsolariari etortzen sayon bertso-jario gozoan, alegia... Arrigarria bait-da benetan gauza auxe! Benetan psikologo ona bearko bait-da izan, bertsolariaren irudipen azkarrak bere etorri arrigarri artan egiten duan lan bortitza neurtuko duana... Bapatean, kantuaren jarioan, itz-neurtu-neurtuak parra-parra ixuri... gauza arrigarria...

\* \* \*

Bañan, ustekabe nere aritik irten egin naiz; joan dan urtean, egun oietan beretan leku ontatik beretik adierazi nitzazuten beste itz-aldi berezi batean, nola ta nola gertatzen dan bertsolariaren barruan bapatean bertsoa sortzeko lan arrigarri ori, *la técnica de la improvisación*, alegia... Eta ni orain bil nadin berriz ere nere lehengo arira.

Munduan bi-edo-iru erri-alde bakarrik dirala esan dizutet, bertsolariak dituztenak. Izan ere, guk dakigunik, alaxe da. Aprika'n bi; Asia'n bat; eta Europa'n gu, euskaldunok bakar-bakarrik edo ia bakarrik.

Egia da, entzun oi-dala, España'n, Galezia'n, ba'dirala Euskal-errian bezela bertsolariak. Berdin baita Angles-arteko zenbait lekutan ere —Gales'ko zenbait erritan—. Eta oraindik orain jakin dedanez, baita Ameriketako'n ere, Kuba'ko nekazarien artean. Ala nola baita Frantzia'n bertan, Pontaven izeneko Bretoi-erri batean... Bañan egia esan, alde aundia dago bertsolari ayengandik gure bertsolariengana. An baliatzen omen-dera, koplak berri edo berri-antzeko batzuek bapatean asmatzeko, norbaiten izenean-edo; bañan beti gutxi-gora-behera molde ezagun baten



barruan, ots, *cliche* ezagun baten barruan, *cliche* zaharrari itz berriren bat edo beste sartuaz. Emen, ordea, ori ezik beste gauza geyago ta geyago ere bai bait-du gure bertsolaritzak; eta auxe guztietan arrigarriena: ordu betean, bi ordutan, iru orduten, bi bertsolari bertsoz dizputan eta demandan elkarrekin ari izateko grazi ta doaya. Orlakorik ez bait-da eza-gutzen iñun, Europa guztian, gure artean ezik. Europan eta Ameriketa'n esan nai det. Aprika'n bai, ba'dira bi lurralde, obeto esateko, "jendarte" bi, emen bezelaxe bertsolariak dituztenak: desertuko *Touareg* diralakoak Sahara'n, eta *Hain-teny Merinas* diralakoak Madagaskar'en. Eta Asia'n, herriz, Afganistan dalako errialdean. Iru errialde oyetantxe ba'dira, gure bertsolarien neurri-neurriko diran bertsolari jatorrak —ordutan ta ordutan alkarri bertso-kantari ariko liraken eta aritzen dian bapateko bertsolari jatorrak...

Munduan besterik ez... Bañan ez noa orain, exenplo berezi modura ezer geyago aipatzera. Ba'dira exenplo jator askoak; bañan luze litzake, eta nayago det zuek geyegi asperrazi gabe, nere irakurtze nekagarri au bukatzea. Eta evemplo berezi oyek jakin nai dituanak, irakurri ditzake nere *Literatura oral euskérica* deritzan liburuxkan. Gerra-aurrean egin bait-nuan, gai oni dagokion liburutxo bat. Antxe (1).

\* \* \*

Bañan ez det bukatu nai gaurko nere itzaldi au, beste gauzatxo bat esan gabe. Gauza arrigarri bat, gauza lotsagarri bat. Ez guretzat bakarririk; gure inguruan bizi diramentzat ere bai...

Ez da sekeretuko gauza, ez da ezkutuko gauza, guk Euskal-errian bertsolariak dituguna, antziñako Testamentu Zaharreko Prophetak bezelaxe bertsoa itzetik ortzera parra-parra darioten bertsolariak dituguna. Ez da sekretuko gauza; bañan ala dirudi, gure inguruko jakintsuen artean gertatzen dana ikusita.

*Eskriturista* deritzaten jakintsuakin ari naiz. Gaur dan eguneko Eskriturista jakintsuak, Ama Birjiñaren *Magnificat*, eta Zakarias'en *Benedictus* explikatu bearrean arkitzen diranean, edo-ta ez dute kantu oyek bapatean sortuak diranik esaten, edo-ta ori explikatzeke ez dira oroitzen nola degun emen, gure Euskal-errian olako bat-bateko bertso-

(1) MANUEL DE LECUONA, *Literatura oral euskérica*. 1935. Zarauz. Ed. "Itxaropena.

laritzarik; baizik-eta, zoratuen gisa, Paris'etik munduaren lau muturretara dijoaz bertsolari-billa... Iñoiz idatzi dan Jesus'en Bizitzarik sonatuen, A. Grandmaison'ek idatzi izan du; eta bera Paris'en bizi dalarik idatzi ere; eta San Lukas'en Ebanjelioan Ama Birjiña bapatean *Magnificat* kantatzen ikusten duanean, Paris'etik ain urrean ta bertan bezela gaduzkan euskaldunak aipatu bearrean, Tierra del Fuego dalako Ameriketako lurraldeko indioetara jotzen du, oxta-oxta guri esateko an ba'dirala noski bertsotan *rezitaturen* batzuek bapatean esaten-edo dituzten indio-jendeak. Orixe xoil-xoillik, gure bertsolarien etorri ta iturri ederra aipatu besterik izan-ez-ta. Ikusten danez, A. Grandmaison'en belarrietara etzan oraindik eldu, bere bizi-lekutik ain urbil —Bayona'tik bertan— bere egun beretan ain ozenki entzuten zan bertsolarien abots eta doñu gozo arrigarria, etzan eldu aren belarrietara. Nik ez dakit ori nola diteken, bañan bai ola dala.

Ala ere, nolana dala, A. Grandmaison ez da espezialista bertso ta bapateko bertsogintza-kontuetan. Barkatzeko da, beraz, aren utsunea gai ontan, naiko arritzeko dalarik ere, Ameriketa'ko kontuak —ain urrutiko kontuak— ain zeatz jakitea, eta gure kontuak, ikusten danez, entzun ere ez izatea naiko arritzeko.

Bañan izan zan Paris'en bertan 1925-inguruan beste Eskriturista bat, gure gai ontan —bertso-gai ontan— espezialista zana, Marcel Jousse izenez, gai oyei buruz eundalako lan sakon eta zabala idatzi zuana *Archives de Philosophie* deritzan Biblioteka paristar sonatuan; bere lan sakonaren izena, *Le estyle oral rithmique et mnemotechnique chez les Verbo-moteurs* (1) bait-zan. Aozko Literaturari, *Literatura oral* dalakoari dagozkion zertzelada guztiak an azaltzen bait-ditu bere lan sakon bezain zabal artan, Biblian arkitzen diran *Literatura oral* zati guztiak (eta ez bait-dira gutxi) zeatz-zeatz esplikatu bearrez. Berak ere bere lana Paris'en egiten zuan (orain ez dakit bizi dan). Eta bapateko bertsogintza esplikatu bearrean arkitzen danean, eundalako erudizio-alardea egiñaz, jotzen ditu berak ere munduaren lau muturrak; eta or arkitzen ditu Sahara'ko desertu izugarrian *Touareg* diralakoak, eta Madagaskar'eko lurralde urrutietan *Hain-teny Merinas* diralakoak beren bertsolari bortitzeakin; eta berdin, baita, Afganistan'en ere Asia-urrutitar ayek beren *duns-*

(1) *Archives de Philosophie*, vol. II, cah. IV. Paris. Gabriel Beauchesne, 1925.

-kantari-yokoekin; urruti, oso urruti... Eta ain urriti joan gabe, okotzaren muturrez ukitzeko eran zeduzkan Euskal-erriko gure bertsolariak, diranik aipatu ere ez...

Nola diteken ori?  
ori nola diteken?

esango didazute... Nik ere gauza bera diot. Ez bait-da gauza erreza ulertzen. Lenengo, beintzat, ez da ezkutuko gauza, guk bapateko bertsolariak ba'dituguna. Ez da ezkutukoa, Bordele'ko *Université*'an katedratikozan Francisque Michel baten liburu eder *Le Pays basque* izenekoa, 1857gn. urtean Paris'en argitaldua. Sekretuko gauza ez diran bezela Chao'ren lanak Bayona'ko *Ariel*'en argitaratuak; eta ayetaz gañera, 1860-inguruan "Biarritz"-izenez (2) argitaldu zuan liburu arin lilluragarria... Naiz Michel'ek, naiz Chao'k, edozein orri-aldetan aipatzen bait-dituzte gure *improvisateur* diranak. Ori bai, gure bertsolari jatorrak aipatu bearez asten diranean, ez bait-dute bi oyejakakiten nungo mallaraño goratu, nik ez dakit nolako *bardo* ta *juglar* bait-lirean... Bear bada orretxegatik da, idazle serioak jaramon aundirik ez egin izana, batez ere Chao'ren aoberoari.

Etzan eskutuko kontua, ezta, Pierre Loti'k ere bere *Ramuntxo*'n, Iragola ta Arrako bi edo iru aldiz bertso-kantari ipintzen dituana. Ori bai, Pierre Loti'ren *Ramuntxo* ez da historia, nobela baizik; ori ondo dakigu. Bañan baita ba'dakigu olako gauzaen billa dabilentzat ez dala nolanaiko pista, nolanaiko erbi-arrastoa, naiz Pierre Loti'ren *Ramuntxo*, naiz Chao'ren *Biarritz*, bañan batez ere Michel'en *Le Pays basque*, Paris'en bertan argitaldua izanik, emen, inguru otan sudurrak pixka bat sayatuerazteko... Aprika'ko lur beroetara eta Asia'ko urrutietara eta Tierra del Fuego'ko bakardadeetara joan baño len.

Bear bada, gauza onek ba'du beste ziorik, beste motiborik, beste iturririk. Aipatu dizkitzutedan 'Eskrituristak —Grandmaison eta Marcel Jousse-ta— atzerritarrak dira; bañan Euskalerrian bertan ere ba'geneduzkan geren Eskrituristak: Dr. Labayen, Ituren'go semea Naparroan; Dr. Enciso Gazteiz'ko semea Araba'n; eta bi San Ignazio'ren seme, Aita Galdos eibartarra, eta Aita Larrañaga azkoitiarra, oyejak Gipuzkoa'n.

(2) AGUSTIN CHAO, *Itineraire pittoresque*. Bayona, A. Andreosy, 1855.

Bear bada, atzerriko Eskrituristak, gure Eskriturista euskaldunak bertsolariei buruz zer esango itxedoten egongo ziran, Bibliako bapateko bertsolaritza esplikatzeko... Eta, bear bada, emendik, gure aldetik izan da utsunea. Guk ez degu bear bezela lanik egin, gauzak gai ontan zuzen gerta zitezten. Ale batek ere ez du aipatu gure arteko bapateko bertso-gintzarik bear zan lekuan; eta ola atzerriko Eskrituristak urrutietara joan bear izan dute, okotzaren ondoan zedukaten esplikazio-billa.

\* \* \*

Bestalde ez bait-da asmatzen errex, zer aitzaki izan duten gure Eskrituristak, gauza oni kasurik ez egiteko. Nik ez dakit nola, Job Santua bere iru adiskide ayekin, orduak joan eta orduak etorri, *arrazoitán*, bertsoan ikusten dutenean, nola gogoratzen etzayen beste orrenbeste egiten dutela gure bertsolariak ere elkarrekin arrazoitán asten diranean. Orduak eta orduak eman, alkarri arrazoyak bertso biribil-biribilletan esaten...

Gure bertsolariak ez bezelako beste gai batzuek erabilli zituztela Job'ek eta bere lagunak? Bañan ez bait-gabiltza emen gayak neurtzen, forma baizik, *forma improvisatua*, bapatean bertsoan esatea baizik... Utzayogun orain gayari. Aritzeko forma, ariera, ez al-da biotan berdin-berdiña? Batek arrazoi bat esan bertsoan eta besteak era berean erantzun, eta berriz ere lengoak beste arrazoya, eta besteak erantzun... eta olaxe gabak eta egunak (Bibliak dionez, zazpi egun)... Nik ez dakit nola itsutu litekean, gauza ori ola ez ikusteko.

Beste orrenbeste esan bait-liteke Ama Birjiñaren *Magnificat*'entzat... Ori bai, ba'dakit berriz ere gauza bera esango didatena: ez dirala berdin, alegia, Ama Birjiñaren *Magnificat*, eta, adibidez, Bassarri'k eta Azpillaga'k Euskerari edo Donostia'ri kantatu izan dizkioten gorlbenak. Bañan nik "lena" erantzungo det berriz ere: ez gagozkiola orain "gayari", aritzeko "erari" baizik; Ama Birjiñaren ariera, bapatekoa izan zala, eta berdin baita gure bertsolariena ere.

Ez niñoakizute, ordea, gauza au geyago luzatzera.

Bañan gagozkidate adi-adi unetxo labur batean oraindik.

\* \* \*

Gauza pakiña da, beste jakinduri guztietan bezela, Bibliaren inguru-

ko jakindurian ere, problematika zenbait ba'dala; eta problema oyetan bat —eta oso garratza— Bibliako Histori-liburuen “historitasuna”, historitasun jatorra. Liburu oyek —ots, *Genesis, Exodus, Numeri, Quatuor Regum, Josue, Judicum* etab. Testamentu Zaharrean, eta lau Ebanjelioak eta Apostoluen Egiñak Testamentu Berrian— liburu sonatu oyek ba'dakigu ez dirala ipui-liburu, ez dirala *leyenda* edo *mitologi*; baizik—eta historia, historia jator, edestia. Bañan problema gaitza ta sakon-sakona bait-da historitasun ori ondo oñarritzea, ondo probatzea...

Lau Ebanjelioak historia jator dirala aitortzen dutenak berak ere, milla zalantza izan bait-lezateke, Ebanjelioetako zenbait zati ta troxuren aurrean...

Ejemplo ta adi-bidez argi dezagun gauza. Jakiña da, Erromatarren histori-zaleen artean, Tito Livio dala bat, eta ez motelena; aren liburuak “histori-liburuak” dirala benetan. Ori guztiok aitortzen degu. Bañan liburu oyetan, guda-burruka bakoitzaren asieran, zenbait Buruzagiren aotan Livio'k ipintzen dituan itzaldi eleganteak, guztiok aitortzen dute baita “historia jator” ez dirana, ez dirala Buruzagi ayek esan bezelakoak; gerraz geroztiko “buruzko sorkariak” dirala, Tito Livio'k bere gisa sortuak, alegia; *elaboración posterior*, erderaz lioteken bezela.

Biblian ere, San Lukas, histori-zale jatorra da bere Ebanjelioan; bañan... asierako Kapitulan Ama Birjiñaren aotan ipintzen duan *Magnificat* deritzan kantu eder ura... ura ere historia al-da? Ez ote-da, Tito Livio'ren itzaldi apañak bezela, Ebanjelariak berak sortutako kantu apain bat, Ama Birjiñari egotzia? Ez bait-dirudi sinistagarri —gaur beintzat— emakume batek, —Jesus'en Ama bezelako emakume apal batek—, ez bear bada alako gauzak esan esatea (ori, otoitzean oitutako edozeñek egin zezakean orduan, hebertarren artean, Dabid'en Psalmoe-tan oituta) bañan bai“ bapatean, bertsotan” ala mintzatzea...

Orra or, San Lukas'en historitasunaren aurkako, kontrako, arrazoi sendo bat. Berdintsü esan bait-diteke San Zakarias'en *Benedictus*'entzat, eta Simeon Zaharraren *Nunc dimittis*'entzat...

Zer erantzun eman diote Eskrituristak gauza oni?

1) Batzuek esan dute, esan, Ama Birjiñak Espiritu Santuaren argiz itz egin zuala orduan, eta Espiritu Santuak erakutsi ziola, ez zer esan bakarrik, baita nola esan ere, ots, bertsotan. Bañan ez bait-da zillegi, galazia bait-dago, zerura igotzea, mundu ontan ortarako gairik dagon

arte, ots, emen be ontan explikatute ditekalarik, zerura explikazio-billa igotzea.

2) Besteak esan dute, San Lukas'ek, Tito Livio'k egin zuana egin zuala berak ere: Ama Birjiñaren aotan ipiñi, Ebanjelariak berak sortutako kanta eder bat.

3) Irugarrenak, ordea, beste bide batetik jo dute: bayetz, Ama Birjiñak berak sortuak dirala *Magnificat*'eko itz guztiak, itz neurtuak, bertsoak; bapatean sortu gañera... Itz batean, Ama Birjiña bertsolaria zala, orduko beste asko ta asko bezela, eta gaur oraindik urrutietako zenbait lekutan diran bezela, ez gizon jakintsuak bakarrik, baita Ama Birjiñaren mallako emakumeak ere...

Ola diote Marcel Jousse batek eta A. Grandmaison'ek... Ori bai, iritzi ortara eltzeko munduaren azkeneko muturrera joan bear izan dutela, emen bertan gure Euskalerrian euki-ta ortarako bear zuten gai guztia...

\* \* \*

Bukatzer a noa.


Aita Larramendi batek jakin balu, jakin, gertakizun xeble au, "Tontotzarrak! —esango zuan— joan zerate ba zuek, tontotzar oyek, munduaren aruzko muturreraño, sudurraren aurrean zenedukaten explikazio-billa... Zer zenduten, gure Euskalerrira etorri besterik orrenbeste kostata eldu zeraten iritzi ortara eltzeko? Ama Birjiña bertsolaria zala, ta orrek arritzen al-zuan jendea? Amaika emakume ezagutu degu gure Euskalerrian olakorik... Alos'ko Usoa bat, eta Milia Lastur'koren aizpa bat, eta Bañez-Artazubiaga'ren alarguna-ta... aitaren eta aizparen eta senarraren illetan, beren eresiak bertotan kantatu zituzten emakumeak...

Orrek arritzen zinduzten zuek ere? eta orren billa joan zerate Sahara'raño, ta Madagaskar'eraño eta Afganiztan'eraño eta Tierra del Fuego'raño? "Tontotzarrak, alenak!"

Olaxe mintzatuko zan, gauza ori jakin balu, jakin, gure Aita Larramendi'k...

Orixe zan, gaur arratsaldean esan nai nizutena.

Eta itz oyekin bukatu nai det nik ere nere gaurko itzaldi aspergarri xamar au.



## Métrica vasca

Itzaldi, Gasteiz'ko Apaizgaitegian, 1918.

Ilmo. y Rvmo. Señor :

Muy Ilustres Señores :

Señores :

“Lengua riquísima, el primero y el más valioso tesoro lingüístico de nuestra patria”, llamaba Su Ilustrísima al Euskera en una ocasión (1), en la cual nos fue sobremanera grato, recibir de su pastoral solicitud las primeras caricias, las primeras muestras de su amor siempre de padre para con estos, que, son y se glorían de ser sus hijos, e hijos mimados, para quienes guarda sus más delicadas atenciones, sus más exquisitos cuidados y los afectos más entrañables de su bondadodísimo corazón.

Un año ha que se dijeron, y todavía resuena en mis oídos el eco de aquellas palabras, que tan halagüeñas como son por una parte al pecho vasco, cada día que pasa por otra me van pareciendo más exactas, cada día mejor dichas.

Tesoro y riquísimo: he ahí lo que es nuestro Euskera: venero inagotable,preciado filón, tesoro inexhausto, que, por mucho que de él se extraiga, siempre guardará alguna piedra preciosa, que ofrecer, y con qué premiar los afanes del obrero, que a su explotación se dedique.

Obrero, aunque primerizo y escaso de fuerzas, de esta mina, no pretendo más que ensayar una cata, en un punto nada más de su dilatadísima zona explotable. Este punto será el de la métrica o estructura mecánica de su versificación.

El punto es casi inexplorado, y bien pudiera aprovechar los títulos, que este carácter le proporciona, para aumentar los quilates de interés y atractivo, que de por sí pudieran tener; pero harto será, que en el

---

(1) Mons. Eijo y Garay en la velada del 15 de noviembre de 1917 en el Seminario Conciliar de Vitoria.



caso presente puedan servir de disculpa por sus pocas luces al disertante, y a vosotros, Señores, de un motivo más de benevolencia.

\* \* \*

Las Bellas Artes, Ilmo. Sr., tienen por objeto la realización de lo bello, y se dividen en los dos grandes grupos de artes *de reposo* o plásticas y artes *de movimiento*. Las primeras encarnan la belleza, expresan lo bello, realizando sus creaciones en el espacio, sin que *per se* tengan que ver nada con el tiempo, y son tres principales: arquitectura, escultura y pintura; mientras que las artes de movimiento realizan sus creaciones o expresan la belleza sucesivamente, en movimiento, o lo que es lo mismo, en ese lienzo no fijo, como el de las artes plásticas, sino móvil, efímero, pasajero, que llamamos tiempo, siendo también tres: danza, música y poesía.

Tan íntimamente ligadas aparecen en la historia del arte primitivo estas tres bellas artes, que jamás se separaba ninguna de ellas de las dos restantes. Cantando y danzando, nos presentan las Escrituras Santas a María hermana de Moisés y a las mujeres de Israel, en la acción de gracias por el tránsito del Mar Rojo (Exod. XV-20): cantando también y danzando, recibían las hijas de las ciudades de Israel a Saúl, cuando, vencedor de los filisteos, regresaba de los campos de batalla (I Reg. XVIII-7-8): los famosos coros griegos recibieron este nombre no del oficio de cantar, que también tenían, sino más bien del danzar (tal significaba la palabra *choreia*), que no menos les competía: las pastorales vascas, tan parecidas en algunos extremos al teatro griego, han considerado inseparables a las tres artes de la poesía, música y orquística: Sófocles bailaba en la representación de sus tragedias, Aristides dice que el baile es indispensable para el efecto de la oda: en todos los tiempos rapsodas y bardos, juglares y escaldas acompañaban la invención con el canto y el baile. Tan íntimo era este consorcio, y hasta tal grado llegaba, que una misma nomenclatura técnica fue común a todas tres, y aún en nuestros días una terminología puramente orquística es la que se usa en asuntos de ritmo sea musical sea poético.

BELLEZA

Existe en el hombre una facultad o conjunto de facultades, de que no

gozan los seres, a quienes el Autor de la naturaleza no plugo dotar de razón, una facultad, cuyo nombre es *gusto*, *sentido estético*, y su función propia, como su nombre lo indica, el sentir, percibir, gustar la belleza.

Mucho se ha escrito y en muy diversos sentidos sobre el concepto que encierra la palabra *belleza*: mientras la Filosofía cristiana, de consumo con la Teología, en persecución del ideal, alzó su vuelo, y se remontó hasta la fuente, manantial y arquetipo de toda belleza, que es Dios, la escuela sensualista abatió el suyo, hasta hundirse en el fango.

Dios es la belleza, y las demás cosas bellas lo son en cuanto que participan de El, han dicho los primeros; la esencia de la belleza está en el placer, han dicho los segundos, y cuanto se oponga al placer, deja de ser bello, aunque se llame Dios. Esto han dicho los insensatos, sin tener en cuenta, que, según propia confesión, una de las fuentes más principales de belleza es la unidad en la variedad, la proporción, el orden, y el orden supremo es, que lo inferior se someta a lo que le es superior, la creatura al Creador, y la belleza caduca a la eterna, de tal manera que deja de ser bello, y sea deforme todo aquello, que de algún modo contradiga y no esté conforme con la belleza infinita, con la belleza por esencia, que es Dios.

#### RITMO

El *orden* ha sido definido por la Escolástica, diciendo, que es la disposición de diversos objetos en su lugar correspondiente: definición de la cual se deduce, que el entendimiento humano no concibe el orden sino en la división, diversidad, multiplicidad, o lo que es lo mismo, en la variedad; aunque no en una variedad de objetos dislocados, desperdigados, ni tampoco revueltos en desordenado tropel, o hacinados en informe montón, sino enlazados y relacionados los unos con los otros, dispuestos, como reza la definición, cada cual en su lugar, reducidos, en una palabra, a cierta unidad.

Esto mismo viene a ser el orden en las artes: la recta disposición de los diversos elementos, que constituyen la obra de arte, en tal forma que cada cual ocupe su lugar: orden, que en las artes *plásticas* se llamará armonía, proporción, y en las de movimiento se denominará *ritmo*.

No será, por tanto, cosa que ofrezca gran dificultad el dar una de-

finición, siquiera sea algo genérica, del ritmo. El ritmo es el *orden en el movimiento* o el *ars bene movendi*, que dijo el águila de Hipona: lo que algo diluido según las nociones, que acabamos de dar acerca del orden, quiere decir, la acertada disposición de los movimientos parciales enlazándolos, relacionándolos entre sí y reduciéndolos a cierta unidad.

 Izaf ororen izafa.

(«Lurpean sar nindeteke»).

(6) Hacemos caso omiso del yambo, anapesto y otros pies de la métrica latina, porque no es esta ocasión de exponer un tratado completo, y por otra parte dichos pies son reductibles, por medio del *anacrusis*, a los indicados.

(7) Bien es verdad que las dos sílabas del arsis de sus dáctilos no siempre son todo lo breves y ligeras, que fuera de desear, para que entre las dos no valgan en tiempo más que la única del arsis del espondeo, como ni las dos de sus espondeos son siempre todo lo largas que debieran; pero también es cierto que, a pesar de ello, el poeta vasco las ha tratado como si lo fueran, incurriendo desde luego en la falta consiguiente de fluidez del verso, proveniente de la esforzada brevedad, con que



se enuncian sílabas, que de por sí son largas, o viceversa, de la gravedad no menos postiza, con que se emiten sílabas ligeras y breves. Pero aunque forzándolas, es un hecho cierto que el vasco trató las dos sílabas del arsis del dácilo, como equivalentes a la única larga del arsis del espondeo.

(8) Véase las tres primeras estrofas del "Atarratze jauregia" y una de "Plañu niz".

Athafatze jauregían | bi zitroin doratu;  
 Hongriako egegék | bató du galdatu;  
 Atapostu ukhan du | ez diréla huntú,  
 Huntu direnian | bató ukhanen du.  
 Athafatzeko hiriá | hiri ordoki:  
 Hur handi bat baduzu | alde bateti,  
 Egege bidia | erdi-erditi,  
 Maria Madalena | beste aldeti.

Aila saldu nauzu | idi bat bezala;  
 Ama bizi ukhen banu | aita zu bezala,  
 Enünduzün ez joanen | Hongrian behera,  
 Bena bai ezkonturen | Athafatze Salain.

Plañu niz bihotzetik,  
 Gaitza zer dudant eztakit  
 Tristezia batek halturik:  
 Enuke asolarik,  
 Balitz eremediorik,  
 Enē gaitza  
 Sendō ahul lironik:  
 Eztā mundian barberik,  
 Bat balizik,  
 Enē gaitzu zertarik  
 Den, ezagutzen dianik,  
 Eta hura berant etsirik  
 Naniagozu gausa tristerik.

La sílaba *dant* de *dudant* del segundo verso nos ofrece un ejemplo palpable de la esforzada brevedad de una sílaba larga de hecho, pero breve de derecho. *Ba* del último verso es un caso de *anacrusis*.

(9) Véase el "Oi bart!" según una de sus versiones:

Oi bart! Oi bart!  
 Anabi karga ardo zuri,  
 Amaika karga ardo beltz,

Á máf anegá ogí befí,  
 Bedératzi zezen aundí,  
 Zortzi idi ta zuzpi beí,  
 Sei ári ta bost antzat,  
 Lau olo, iru uso,  
 Usapal bí ta epef bat,  
 Janarítzat, janarítzat:  
 Iru átsorekin amábost águrék  
 Á, zér aparía genuén bárt!

Obsérvese en el primer verso la presencia de cuatro sílabas *prolongadas*, cada una de las cuales equivale a las cuatro unidades de tiempo de un dáctilo o de un espondeo. Es este de la prolongación un fenómeno frecuente, no solamente al fin (*verso cataléctico*), sino también en medio del verso: tal ocurre con la única sílaba del tercer pie en el llamado *pentámetro* de los latinos, y en la presente canción, con la segunda *o* de “Lau olo” y con la *a* de *izat* en “Janarítzat”. Lo mismo se ha de juzgar de la *u* de *errazu* y *ostatu* del primer verso y cuarto respectivamente de “Uso zuria, errazu”, y en general de la primera de las dos tesis, que se hallen inmediatamente una en pos de otra.

(10) Puede verse la estrecha semejanza, que existe entre el hexámetro clásico y el verso de quince sílabas, en los siguientes paralelos:

{ Jura magistratusque legunt sanctumque senatum. (Virg).  
 { Nón dā berāren ārpegí edef efanōtsua?  
 Afese, «Anjela».)

{ Ἀνγκαιήρης μεγαθύρος πρωτοκόσμος (B-706).  
 { Sōftū, leōftū, gōftū, dōlōftū dānāk egīñīk.  
 («Angela».)

{ Cui par imber et ignis, spiritus ei gravis terra. (Enius).  
 { Ūrtēn zaitēzē nīrē āgotīk sūzko bōladūk.  
 («Anjela».)

{ Πρωος Ἀνγκαιήως ἢ Μεγας οὐς ἢα μέλιτα (Ū 574).  
 { Nón dā gurekō egaztí zūri egō-zabālār  
 («Anjela».)

Una diferencia se observará entre estos dos ejemplares de versos, indudablemente idénticos, y es, que en los clásicos la cesura (excepto la bucólica y a veces la trocáica) cae dentro del pie, mientras en los euskéricos cae entre el segundo y tercero y el cuarto y quinto. Pero téngase en cuenta que dicha disposición en los clásicos fue no espontánea, sino fruto del progreso y del refinamiento del gusto.

Faint, illegible text, possibly bleed-through from the reverse side of the page.

Faint, illegible text, possibly bleed-through from the reverse side of the page.

# Bertsoa Jakintzaren argitan

Ikastaldia, Ernani'ko Ikastolako Andereñoai, 1976

## I IKASGAIA

### BERTSOA

—Bertsoa zer da?

—Arte Eder bat. Arte Eder guziak bezain eder eta garrantzitsu : dala Arkitektura, dala Eskultura, dala Pintura...

—Zer Arte Eder?

—Arte Eder Dinamiko, Arte Eder Dinamiko guziak bezain eder ta garrantzitsu ; dala Dantza, dala Musika (naiz instrumental, naiz abestu), dala Teatro... dala Zine...

Bertsoaren garrantzia ikusteko, ikus Olerki ta Olerkarien Bibliografia ugaria. Ala berean ikus Dantzaren eta Musikaren eta Arte Eder guzien Bibliografia arrigarria.

### ARTE EDERRAK

—Zer da Arte Ederra?

—Jakinduriak “egia” arkitu nai du : egia pentsamentuan, egia gauzetan. Arte Ederrak “ederra” sortu nai du : ederra (edertasuna) pentsamentuetan, ederra (edertasuna) gauzetan...

Arte Ederrak bi eratakoak dira : Estatikoak eta Dinamikoak.

Estatikoak, ederra “egonean” sortu nai dute ; egonean dauden gauzetan (Arkitektura, Eskultura, Pintura). Dinamikoak, ederra “ibillian” sortu nai dute : ederra ibillian, ibiltzean : ibilli ederra, ibiltze apaña (Dantza, Olerkia, Musika, Teatroa... Zinea).

### IBILTZE EDER

Bi ibiltze ditugu gure bizitzan : bata ibiltze arrunta, eta bestea ibil-

tze ederra, edertua. Bidean goazenean, ibiltze *arrunta* egiten degu; “martxan” dijoazen soldaruak, ibiltze *ederra* egiten dute. Ala berean, dantzan ari danak ere, ibilli ederra egiten du, ibiltze ederra, ibiltze edertua.

#### IZKETA EDER

Izketan ari geranean, izketa arrunta egiten degu. Bertsotan ari danak, izketa *ederra*, izketa edertua...

Izketa arruntari, *prosa*, *itz laua* esaten diogu. Izketa ederrari, *bertsoa*, olerkia...

#### BERTSOAREN IZAERA

—Zertan dago, Bertsoaren izaera, Olerkiaren izaera?

—Bertsoak ba du azal, eta ba du mami —azal eta mami, izketa arruntean erabiltzen ditugunak ez bezelakoak—; mamia: ideiak, pentsamenak, sentimenak, imajiñak, bestetan ez bezelakoak; azala, bertsoa bera...

—Zertan dago, ordea, bertsoaren beraren izaera?

—Bertsoak gure artean, bi izen izan ditu batez ere: “itz-neurtua” eta “bertsoa”. Bi izen oietan biltzen da ederkitxo “bertsoaren izaera”. Bi gaiak, bi elementuk osatzen dute bertsoaren izaera: a) neurria, eta b) itzulia (“bertsoa”).

#### ITZNEURTUA

Itz laua ez da neurtua; bertsoa, bai.

Bertsoak, lenengo, “neurtua” bear du izan.

Oihenarte’k “neurtitz” esaten zuan. Emeretzigarren gizaldiko literaturalariak asmatutako izen naiko-egokia degu “itzneurtua”; eta, nolaini dala, itzen neurria aipatzen digu.

Izan ere, zerbait ederra izango bada, lenengo-lenengo “argia” bear du izan, “argia ta garbia”, argi egokitua, berezia, ez naasia, troxuka egokitua. Izketa ederrak ere, troxuka egokitua bear du izan. Ori da bertsoa “nertua” izatea. (Gero ikusiko degu, zer dan troxu bakoitzaren barruan neurtzen dana: itzak, ala silabak (izkiak), ala beste zerbait...).

## ITZULIA

Bigarren, itzulian ibilli bear du. Ori esan nai du "bertso" itzak.

"Bertso" itza, latinezko *versum*'dik dator; eta *versum*'ek, "itzulia" esan nai du; itzulia, biurtua. Bertsoaren joku ederrean, troxu neurtu bat itzulian dabil, salbo-ta soroan goldean ari diranak itzulean ibiltzen diran bezela, orain gora, orain beera, ibilli "simetrikoan". Orregatik, nun-bait, ibilli simetriko orri, *versum* orri, A. Larramendi'k *biurtsa* esaten dio: *versum* = "biurtsa".

Orra, beraz, zertan dagon bertsoaren izaera. Itzezko troxua, itzulian ibilli-dabillena: itz-formula bat, ibillian, itzulean dabillena...

## ITZULEAN, ZER?

Zer neurtzen degu, ordea, itz-neurtuan? zer dabil or "itzulean"?

Hebertarren bertsoetan (*psalmoetan*) itzulean pentsamena ibilli oi zan: pentsamen bat-bera bi aldiz, salbo-ta, ots bat-beraren *oiartzuna* bait litzan; ez itz-formula bera, pentsamen-formula bera baizik. Ikus, "Magnificat"en troxu auek:

Gora-goratzten du nere animak Jauna;  
eta poztzen da nere espiritua nere osasuna dan Jainkoagan.

Bota ditu indartsuak beren aulkitik;  
eta jaso ditu apalak;

ase ditu gose ziranak,  
eta baraurik bidali aberatsak.

Itzezko ritmorik gabe; dana pentsamen-simetria, pentsamen-paralelo.

Beste Literaturatan, ordea, itzulean dabillena, ez da pentsamena, itzezko formula bera baizik. Ez, ordea, itz berak, itzezko neurri bera baizik.

Zer da, ordea, bertsoaren barruan neurtzen degun ori?

Bereixkuntza aundi xamar bat egin bearra degu puntu ontan.

## SILLABAK EZ ; OÑAK

Gure inguruko erderak, bertsoa osatzeko, silabak zenbatzen kontatzen dituzte. Izkuntza Klasikoetan, ordea, (Grekoan, Latiñean) ez dira zenbatzen silabak, oiñak baizik —silabaz osatutako oiñak, pausuak, puntuak...

—Zer dira, ordea, “oiñak” bertsoan?

—Beti ere gogoan euki bear degu, Bertsolaritza Arte Dinamikoa dala, eta ba duala zer ikusi beste Arte Dinamikoakin, Dantzarekin batez ere. Dantza, ibilli ederra. Dantza, gizadiaren Arte Ederrik zaarrenetakoa da; zaarrena; Musika bera bezain zaarra, zaarragoa ez bada. Antziña-antziñako Bertsoa kantatu ta dantzatua izan oi zan. Eta Dantzaren teknika bera du Bertsoak ere Klasikoen artean. Dantza, herriz, pausua da, Dantzaren izaera, pausua, edo-ta, Klasikoak esaten zuten bezela, “oiña”... Pausua ta oiña, ta oiña ta pausua. Dantzaren izaera. Dantzarena, eta Bertsoarena.

Bertsuak “oiñak” ditu bere izaeraren oñarri...

\* \* \*

Pausuak, beti ere, bi une ditu: anka jasotzekoa, eta ankak lurra ukitzekoa. “Oiñak” ere berdin, bi une: gorakoa (*arsis*) eta beerakoa (*tesis*).

Erantzun dezaiozun orain, arako galdera arri: “Zer dira oiñak bertsoan?”.

Oiña ez da silaba. Bi edo iru silabak osatzen dituzte oiñaren bi uneak. Lenengo unea silaba bat izango da; bigarrena, ordea, izan diteke silaba batekoa, bañan baita bikoia ere. Bigarren unea, bi silabaduna danean, oiñari “oin daktiliko” esaten zaio; eta bakarduna danean, “oin espondaikoa”.

Klasikoak ba zuten beren teknika, bertsorakoan daktiloak espondeotatik bereizteko.

Klasikoen Latin zaarrean, silaba batzuek “luzeak” ziran, eta besteak “motxak” (Ezin edatu dezakegu emen gauza onen izaera sakona). Eta izaera onen arabera, luze ta moxtasun onetaz baliatzen ziran beren bertso-gintzan, daktiloak espondeotatik bereizteko. Espondeoaren bi silabak, silaba luzeak izan bear zuten; eta daktiloaren iru silabak, lenengoa luzea eta bigarrena ta irugarrena, motxak. Motxak, herriz, luzearen erdia

balio bait du, beti ere, naiz espondeoak naiz daktiloak, luzetasunez, biok balio bera zuten aientzat, Klasikoentzat. Eta bat bezain beste, biko espondeoa bezain beste erabiltzen zuten iruko daktiloa.

#### EUSKERAZ ERE BERDINTSU

Guk euskeraz ez degu aitortzen silabaren luze-moxtasunik; bañan, ala ere, ba degu zerbait, bertsoaren barruan, batzutan daktilo, bestetan espondeo egiteko apio-ematen digun “zerbait”. Askotan itzaren irutasunak emango digu apioa, daktilo bat egiteko, eta itzaren bitasunak, espondeo bat egiteko. Beste batzutan beste zerbait izango da, ortarako bide emango diguna. Dana dala, ritmoaren legez ba da zerbait euskeraz ere, latiñez ta grekoz bezela, gure bertso-neurketa bide ortatik egiteko: ritmoak daktilo eskatzen duanean, daktilo egiteko, eta espondeo eskatzen duanean, espondeo; obeto, “oin daktoliko” ta “oin espondaiko”.

Orain, ritmoaren legeak, noiz bat eskatzen duan, eta noiz bestea, ori beste kontu bat da, emen ezin edatu dezakeguna. Bañan, dudarik gabe, edozeñek aitortuko duan gauza da, ritmo-legean ez dutela ritmo bera, alde batetik astoaren pausuko “traka-traka”k, eta bestetik zaldiaeren pausuko “trakatan-trakatan”ak... Ori bezelako beste itzen egoera asko ta asko arkitzen bait ditugu ortarako, gure bertsoen barrunbe ezkutuan. Egoera oiek arkitu egin bear. Or dago gauza...

Ala ere, guztiok ikusten degun gauza da, dantzan ari diranak, konaturatu gabe, ritmoaren indarrez ederki asko egiten dituztela oñakin ritmo-joku oiek. Eta, ala berean, dantzan oñak egiten duten lana ederki egin lezakela eskuak ere, bertsoaren azterketa egiterakoan, bertsoaren barruan dijoan ritmoaren indarrez. Ritmoaren zentzunak bultzatzen gaitu.

Zer da, ordea, ritmoa?

#### RITMOA

Misteriozko gauza bat sartzen zaigu une ontan bertsoaren izaeran. Misteriozko gauza bat, elementu bat. Ritmoa.

Gizonak bost zentzu dituala esan oi degu. Eta ez da gezurra. Munduko gorputz-gauzak arkitzeko, topatzeko, gizonak bost zentzu ditu. Bañan gure inguruan —gizonaren inguruan munduan— gorputz-gauzaz ga-



ñera, gizonarentzat bai bait dira beste gauza asko geiago ere; une ontan —ain zuzen— edertasunari dagozkion gauzak...

Edertasuna ez du ikusten begiak; begiak koloreak bai, eta marrak, lineak ikusten ditu; bañan koloreen ta marraen egokitasuna, begia-ez beste zentzu batek ikusten du. Edertasuna ere gauzaen egokitasun zerbait bait da, edertasuna begia-ez beste zentzu batek —gizonaren gizonezko zentzu batek, ikusten du, ezagutzen du, txastatzen du, ao-gozatzen du. Animaliak ez duan beste zentzu batek.

Berdin gertatzen da, linea ta kolorea-ez beste zerbait dan ritmoa-rekin ere. Ritmoa, “ibilliaren egokitasuna” esan zaion “zerbait” da. Ibilliaren egokitasuna —ibilli egokia—. Ibilli egokia dantzan. Berdin esan bait liteke, dantzaz ezik, soñuaz ere: “Soñu egokia”, “soñuaren egokitasuna”...

Berdin esan liteke, baita, itzaren ixuriarentzat ere. Gure itza, gure izketa, itz-jario bat da, itz-ixuri bat. Itzezko ixuri egoki orri —soñuzko ixuriari bezela— “ritmo” esaten diogu: itz-ixuriaren, itz-jarioaren egokitasuna.

\* \* \*

Gizonak, ba du zentzu bat, ritmoa sentitzeko, ritmoaren ederra txastatzeko, ao-gozatzeko...

Mundu eder, mundu aundi bat da, ritmoaren mundua. Or sartzan da Dantza, or sartzan da Musika (Musikaren, Melodiaren oin-jokua). Or sartzan da Olerkia, Olerkiaren, Bertsoaren ixuri egokia...

\* \* \*

Zer egin oi degu, ordea, ritmoaren indarrez, bertsoak egitekoan, gure izketaren arian, ixurian?

Leen ere esan degu.

Lenengo-lenengo egiten deguna, itzaren aria zatitu, puskatu, troxuak egin... troxu oietako bakoitzari “oña” esaten bait diogu.

Gizonak segituko soñu luze bat entzuten duanean, nai ez dualarik ere, luze ura bere baitan puskatu egin oi du: zatikatu.

Zaldiaren perra-otsa entzuten duanean, naiz-ta perra-ots ori beti berdiña izan (trakatrantrakatran) gizonak, entzun utsez, soñu berdin ura, bere baitan, bi puska egiten du (trakatan- trakatan), eta ortaz gañera puska bakoitzari bere doñua eman, goratxuagokoa-bera-txuagokoa (TRA-

KATAN-trakatan). Berdin gertatzen zitzaigun leen, trenaren soñuarekin ere (FAFA-fafa, FAFa-fafa). Bi troxu ez-berdin.

Ritmoaren zentzu ederrak (Eder-Zentzuak) eragiten digu ori. Segitu-segituko soñuak, bi zati egiten ditugu, bi "oin". Gizonaren barru-legea da...

#### OIÑAK, BERRIZ ERE

Azken-itz bat oñetaz. Nola osatzen da oin bat?

Esan degu, silabaz osatzen dala. Bi edo iru silabak osatzen dute. Bañan beti ere oin bakoitzak bi "aldi" ditu. Dantzan bezelaxe. Dantza pausuz osatzen da; eta pausu bakoitzak bi aldi ditu: anka jasotzekoa eta anka beeratzekoa.

Bertsoaren oñak eskuz markatzen ditugu; eta, oin oietako bakoitzak ere bi aldi ditu: eskua jasotzekoa (arsis) eta eskua beeratzekoa (tesis); obeto, eskua beeratzekoa eta eskua jasotzekoa; eskua beeratzekoa-ri, "aldi indartsua" esaten bait zaio, eta eskua jasotzekoari, "aldi aula". Orixen da pausuaren eta oñaren izaera. Dantzan bezela, bertsoan ere.

\* \* \*

Gaztel-errian ba da oitura bat, bertsoaren ritmoarekin zer-ikusi aundia duana: norbait kantari ari danean, entzuleak askotan, kantuari txalo joaz laguntzen diote. Entzuleen txalo orrek, bertsoen oñen neurria—aldi indartsua—markatzen du. Olakoetan entzuleak, Koroaren egitekoa egiten dute, Koro jatorrak ortarako berez duan ritmoaren zentzu arrigarriari jarraituaz...

\* \* \*

Orain, lenengo Ikasgai au bukatzeko, aipa dezagun *Metrika*.

Bi edo iru silabak *oin* bat egiten duten bezela, bi edo iru oñek *metro* bat egiten dute; bi edo iru metrok *bertsoa*; eta bi, lau, sei bertsoek *estrofa*.

Euskeraz, ordea, *bertsoa* estrofari esaten diogu...

Eta gauza oiek erakusten dituan "Arteari", *Metrika* esaten zaio.

\* \* \*

## II IKASGAIA

## GURE BERTSOEN METRIKA

Euskerazko bertsoetan lenengo-lenengo ikusten deguna, bertsoen metroa da, metrika; bertsoen *rima*, “puntua”, eta *ritmoa*, ibil-neurria. Olerkiaren axaleko gauza, bañan bertsoaren izaera jatorrean garrantzi aundia duana.

Eta euskal-metrikari buruz, lenengo-lenengo gogora etortzen zaizkigun metro-ereduak —bertso-ereduak— bi dira batez ere: “zortziko aundia” esan oi dana, eta “zortziko txikia”: “Ume eder bat” adibidez —zortziko aundia— eta “Gernika’ko arbola” —zortziko txikia—.

Zortziko aundiari, ordea, zaarrak “puntu luzia” esaten bait zioten, eta zortziko txikiari “puntu motxa”; guk ere ola esango degu: “Puntu luzea” eta “Puntu motxa”.

Aztertu ditzagun biok pixkatxo bat.

\* \* \*

Erderazko Metrikaren arauz, puntu luzeak amar silaba ditu; eta puntu motxak, zazpi. Obeto: luzeak amar silaba lenengo errenkadan, eta zortzi bigarreanean etab.; eta motxak, zazpi lenengoan, eta sei bigarreanean etab.

Adibidez: puntu luzea:

Ume eder bat ikusi nuen  
Donostiaya’ko kalia.

puntu motxa:

Emanda zabal zazu  
munduan frutua.

Metrika klasikoak ordea —Grekoen eta Latinoen Metrikak— bertsoa ez du neurtzen silabaz; oñez neurtzen du. Metrika klasikoarentzat, puntu luzeak lau oin ditu: lenengo errenkadan, lau oin, amar silabatan, eta bigarren errenkadan beste lau oin, zortzi silabatan. Lau oin: tetrapodio bat.

Entsaia dezagun oñezko azterketa :

Ume e- / -der bat / ikusi / nuen  
Donosti- / yako / kali- / -an.

*Ume e-*, iru silabako oin bat da : oin *daktiliko* bat ; *-der bat*, bi silabako beste oin bat : oin *espondaiko* bat. *Ikusi*, oin daktilikoa ; *nuen*, oin espondaikoa. Guzitara, lau oin : *tetrapodio* bat.

Jarrai dezagun.

Donosti- / -yako / kali- / -an.

*Donosti-*, oin daktiliko bat da ; *-yako*, oin espondaiko bat ; *kale-*, beste espondaiko bat ; eta azkeneko *-an* ori, oin trinkotu bat da, silaba baten barruan, biren balioa duana, oin "trinkotua". Guzitara, beste lau oin : *tetrapodio* bat.

Lenengo errenkadan, amar silabatan *tetrapodio* bat ; bigarren errenkadan, zortzi silabatan beste *tetrapodio* bat. Silabaz, ez-berdin ; bañan oñez, berdin. Dantzan ere ola gertatzen bait da. Eta eskuz ritmoa markatzen danean ere, berdin...

Oar bat egin bearra emei : *Kalian'*go azken *-an* ori, oin *trinkotua* dala, oin-erdi izanik, oin oso baten balioa duana : *a-(a)n* bait litzan : *kalia(a)n*.

\* \* \*

Entsaia dezagun azterketa bera, puntu motxean :

Emanda zabal zazu  
munduan frutua...

Silabaz ez baño, oñez aztertu ezkerro, troxu au ola gertatzen da :

Emanda / zabal / zazu  
munduan / frutu- / -a...

*Emanda*, oin daktiliko bat ; *zabal*, oin espondaiko bat ; eta berdin, *zazu*, oin espondaiko bat ; guzitara, iru oin : *tripodio* bat.

Berdin, baita, *munduan*, oin daktilikoa ; eta *frutu-*, berriz, oin es-

pondaiko bat; eta, bukaerako -a, oin trinkotua, oin-erdi izan arren, osoaren balioa duana : -a(a) : *frutu-a(a)*.

Oarra.—Oin “trinkotuaren” izaera ori, errenkadaren bukaerako silaba izateak ematen dio, errenkadaren bukaera, bukaera zorrotza danean; ez, bukaera amutsa danean (adibidez, bertso ontan *zazu bezela*). Oin trinkotua izateko, bukaera zorrotza izan bear du, ez amutsa : eskuak beian markatzen duana, alegia...

\* \* \*

Ikusi dezagun beste eredu, bat, bera ere oso ezaguna : “Ikusten duzu goizean?”.

Ikusten duzu goizean,  
 eguna asten danean,  
 menditto baten gañean,  
 etxe ttipitto aitzin-xuri bat  
 lau aitz andiren artean  
 iturriño bat aldean  
 txakur xuri bat atean?  
 An bizi nuzu pakean.

Orrekin batean, berdin aipa bait dezakegu, beste ezagun-exagun ura ere :

Uso txuria, errazu,  
 norat yoaiten ziren zu?  
 Espaiña'ko portuak oro  
 elurrez beterik dittuzu ;  
 gaur gaberako ostatu  
 gure etxian ba duzu.

Bi oiek ere, “Ume eder bat” bezelatsu, “lau oñekoak” ditugu, Tetrapodioak. Errenkadarik geienetan, zortzi xilabakoa; tartean bat, amarrekkoa...

Neur ditzagun :

Ikusten / duzu / goize- / -an :

*Ikusten*, oin daktilikoa ; *duzu*, oin espondaikoa ; *goize-*, oin espondai-

koa; *-an*, oin trinkotua. Guzitara, lau oin: daktoliko bat, bi espondaiko ta trinkotu bat.

Berdin neurtu bait litezke, bigarren eta irugarren errenkadak ere.

Laugarren errenkadan azaltzen zaigu, *Ume eder baten* antzeko amar silabakoa —daktilo-espondeo, daktilo- espondeo— bera ere lau oindun tetrapodioa :

Etxe tti- / -pitto / aitzin xu- / -ri bat...

(Berdin neurtu bait liteke —bear bada, obeto— beste ola :

Etxe / ttipitto / aitzin / xuri bat...).

Berdintsu neurtu dezakegu, “Uso xuria, errazu” ere :

Uso / xuria / erra- / -zu  
norat/ioaiten / ziren / zu?

Ots: espondaiko, daktoliko, espondaiko, eta trinkotu bat; guzitara, lau oin, tatrapiodio bat. Berdintsu bigarren errenkada ere.

Irugarrenean azaltzen zaigu, berriz ere, “Ume eder baten” antzeko amar silabako errenkada :

Espaini-/-ako / portuak / oro

daktoliko-espondaiko, daktoliko-espondaiko.

Oarra.—Orren segirako troxuak, bai, ba du zerbait aipagarri: zortzi silaba izan bearrean, bederatzi silaba dituala —asieran “daktilo-espondeo” egin bearrean “daktilo-daktilo” egin bait du :

elurrez / heterik,

bañan ritmoaren joaierari kalterik egin gabe. Gauza orrek beste gauza bat esan nai bait du bertsoaren neurritzat silabak artzen baditugu, ezin izan liteken gauza bat: silaba bat geiago gora-beera bertsoa berdín izan ditekeala, oñak berdín badira; lege ori, orde, klasikoen legean bakarrik betetzen bait da: klasikoen legean, iru silabako daktiloa bezain oin osoa da, bi silabako oin espondaikoa; eta alderantzira, bi silabako oin espondeikoa bezain oin jatorra, iruko daktilikoa :

elurrez *beterik*

dion formula, “elurrez lertzen” esango balu bezain legezko formula da-la : daktilo, espondeoren ordez.

Erderazko metrikak ez luke ontzat emango, trukada ori; ez bait du ezagutzen oiñen elkarren arteko berdin-balio ori...

\* \* \*

Eta jarrai dezagun, gure bertso-ereduak aztertzen.

Urrengo eredutzat, Xenpelar'en bertsorik ezagunena aztertuko degu : “Betroyarena” esaten zaiona. Bertsolarientzat zallena esaten dana : “Bederatzi puntukua”. “Puntua” zer dan, ta nola erabiltzen dan ikusteko bidea, bertso orrek emango bait digu ederkitxo.

\* \* \*

Gure bertsolariak, *puntua*, erderaz *rima* esaten danari esaten diote, errenkadaren bukaeraen berdintasunari.

Oarra.—Bizkai'ko trikiritetan, berriz, *puntua* bertsoen “oñari” esaten diote. Ola dio arako trikiti-kopla polit ark :

Arin-arin eiten dau  
solan erbiek;  
utsean eiten dituz  
“punturik” erdiek.

Gure bertsolariak, ordea, “puntua” *rima*'ri esaten diote. Puntu luzea ta puntu motxa, rimaren aurreko oñak geiago edo gutxiago luzatzen dituztelako esan bide zaie...

\* \* \*

“Puntuak” gure bertsolarien artean, beti ere, garrantzi aundia izan du. Gipuzkoan batez ere. Eta gai ontan Xenpelar'ek jarri zuan benetako neurri ta eskola. Bertsotarako zuan grazi arrigarriaz gañera, punturako zuan eskola ederrak izen aundia eman zion Xenpelar'i Euskalerrri guzian : “Bertso berriak, Xenpelar'ek jarriak” dion esaera, Euskalerrri guzian entzuten dan esaera da...

Gogora ditzagun orain "Betroyarenak":

Ostegun juan danian  
 amabost Ernani'n,  
 betroi baten tratua  
 genduen egin.  
 Saltzalle Inazio,  
 erostuna Premin,  
 emeretzi ezkutu  
 genion eragin...  
 Sabelian du min;  
 iñork ase ezin;  
 artuari muzin;  
 ez du nai edozin...  
 atzetik bear dittu  
 zazpi medezin.

Ikusten danez, bederatzi puntuak, naiz-eta zallenetakoak izan, ziazta eta estu egiñak dira.

Metroz, bertsoa, "puntu motxekoa" da, iru oñekoa.

Puntua, "puntu motxean" oin paretan etorri oi da. Xenpelarrek maizago —askoz maizago— egiten ditu Kanta ontan: bigarrenean, laugarrenean, seigarrenean, zortzigarrenean... eta gero errenkadan, bederatzi, amar, amaika, amabigarrenean; eta aizkenik, amalagarrenean.

*Oarra.*—Bertsoaren laugarren errenkada —puntu motxeko legearen kontra— bost silabakoa da: "genduen egin"; berdin, baita, bertsoaren bukaerakoa ere: "zazpi medezin".

\* \* \*

Ikus orain, bertsolariaren grazia —grazia ikaragarria— betroiaren bentajak abonatzen:

Burruka ari dala,  
 juan zaizka adarrak  
 ezin sujetaturik  
 bere indarrak.  
 Talentu onak dauzka  
 gure betroi xarrak:



lurrera botatzen du  
 euli baten kargak...  
 Jendiaren farrak  
 ez dirade txarrak;  
 ganadu elbarrak  
 juntura igarrak;  
 burrunzuya dirudi  
 aren bizkarrak.

\* \* \*

Egin dezagun neurketa :

Burruka / ari / dala  
 juan zaizka / ada-/-rrak  
 ezin / sujeta-/-turik  
 bere / inda-/-rrak.

Ikusten danez, bertsoaren ritmoa, daktilo-espondeo, daktilo-espondeo da (edo-ta espondeo-daktilo); bañan laugarren eta azkeneko errenkadan, daktilorik gabe, dana espondeo da: *bere / inda-/-rrak*; *aren / bizka-/-rrak*; eta bukaerako *-rrak* oiek, oin trinkotu.

#### ZALDIZURIYARENA

Xenpelar'ek "Betroyarenak" bezela, Bilintx'ek "Zaldi zuriyarena" kantatu zuan. Metroz eta umorez berdiña. Olerkitasunez, Xenpelar'ena ohea.

Ikus :

Orra sei bertso, kale-  
 -garbitzalleari,  
 zeña bere izenez  
 dan Joxe Mari.  
 Erreza lezazkike  
 iru "Abe Mari"  
 indarra etortzeko  
 zaldi zuriyari;  
 animala ori

erruki zait neri;  
 falta du ugari  
 egoteko guri...  
 Kartoyakin egiña  
 dala diruri.

Egin dezagun neurketa :

Orra / sei bertso / kale-  
 -garbi / -tzallea-/ri,  
 zeña / bere i-/zenez  
 dan Jo-/xe Ma-/ri.

Puntu motxekoak dira bertsoak: iru oin: espondeo-daktilo-espondeo (edo alderantzira); eta laugarren eta azkenak, espondeiko garbiak: *dan Joxe Ma-/ri*, dala diruri; *-ri* au, oin trinkotu.

PRANTXIXKU, ZER DAKARREK?

Metrikaz berdin-antzekoa da beste arako "Prantxixku, zer dakarrek?" dion ura. Laburtxeago izatea, eta umorez ez berdín.

Ikus :

Prantxixku : zer dakarrek  
 ik, gure erritik?  
 Aspaldiyan ez diyat  
 ango berririk,  
 Zerbait jakin nai nitek  
 alderdi artatik;  
 aserria niagok,  
 ez dek milagrorik...  
 Ez diyat egunik,  
 ez eta arratsik,  
 sinista nazak ik,  
 pentsamentuz etxera  
 juan gabetanik.

Neurketa errexu dute: daktilo- espondeo, daktilo-espondeo (edo alderantzira): puntu motx.

Prantxixku / zer da-/-karrek  
 ik gure / erri-/ tik ;  
 aspaldi-/ yan ez / diyat  
 ango / berri-/rik...

\* \* \*

“NAGUSI JAUNA : AUXEN DA LANA !”

“Betroyarena” bezela, bertso arrunten errenkadiatik kanpora ateratzen dan bertso-parea, oso ezaguna eta eredutzat artzea merezi duana, “Juana Bixenta Olabe” da, eta arekin batera, “Kontzezi’ri” deritzana : ura Bilintz’ena, eta au, Iztueta’rena.

“Nontzezi’rena” lau oñeko errenkadiatik zearo ateratzen da, eta bost oñekoen errenkadan sartu. “Juana Bixenta’rena” lau-oindunetakoa da ; bañan ba du bereizgarririk asko bere errenkadan : oso *daktilikodun* izatea, eta oin *trinkotuduna* ; eta, orretaz gañera, “oin etena” (*pie quebrado*) eta *anakrusis* esaten zaion ritmo-detallea.

\* \* \*

Asi gaitezen “Juana Bixenta”tik :

—Nagusi jauna :

Auxen da lana !

Amak bidaltzen nau berorregana.

—Ai ! bidaliko bazinduzke maiz !

Zu ikusita kontsolatzen naiz.

Sinista zazu :

oso txoraturik nadukazu,

orren polita nola zeran zu.

Neurtu dezagun :

Na-/-gusi jau-/-na :

Au-/-xen da la-/-na !

A-/-mak bidal-/-tzen nau be-/-rorenga-/-na.

Ai bida-/-liko ba-/-zinduzke / maiz;  
zu iku-/-sita kon-/-tsolatzen / naiz.

Xi-/-nixta za-/-zu :

oso txo-/-raturik / naduka-/-zu,  
orren po-/-lita no-/-la zeran / zu.

Ikusten danez, bertso au, lenengo-lenengo, oso daktilikoa da; dana irunaka-irunaka dijoa: *Ai! bida -/-liko ba-/-zinduke / maiz! Zu iku-/-sita kon-/-tsolatzen / naiz...*; bigarren, oin trinkotu asko ditu: errenkadaen bukaera guzietan; irugarren, iru oin eten: *Nagusi Jauna: auxen da lana!... Xinixta zazu*; eta laugarren, *anakrusis* batzuek errenkadaen asieratan: *Na/ (gusi); Au/ (xen da); A/ (mak); Xi/ (nixta).*

#### “ANGO SUKAL-BAZTERRAK”

Jarrai dezagun Iztueta'ren “Kontzezi'rekin”; obeto, gerrateko “Ango sukal-bazterrak” astintzen dituan bertso jator-jatorrakin (“Kontzezi'ren” neurri berekoak bait dira).

Ango sukal-bazterrak, ikustekuak :  
labatzik bat-ere ez, palta auspuak ;  
alki senduak,  
iru edo lau arri kintalekuak ;  
ango zokuak  
ezkondu ezkeroztik garbitzekuak :  
ezkontu ezkeroztik garbitzekuak.

Neurtu dezagun :

Ango su-/-kal bazte-/-rrak i-/-kusteku-/-ak  
labatzik / batere / ez; pal-/-ta auspu-/-ak  
al-/-ki sendu-/-ak  
iru e-/-do lau a-/-rri kin-/-taleku-/-ak  
an-/-go zoku-/-ak  
ezkondu / ezkeroz-/-tik gar-/-bitzeku-/-ak...

Daktilo-izaera, garbi ageri da bertso guztian (*Ango su-/-kal bazte-/-rrak i-/-kusteku-/-ak...*); berdin baita, oin *trinkotu* ta oin *etenak* (*al-/-*

-*ki sendu-/ak*; *an-/go zoku-/ak*); anakrusisak, berriz, ez bait dira ain zallak agertzen. Ritmoak berak, bere izate jatorrez markatzen ditu. Zenbait bertsotan asiera ez bait da eskuz beia markatuaz egiten, goia markatuaz baizik. Orixe da *anakrusis* esaten zaion ritmo-detallea... *al-/ki sendu-/ak*); *an-/go zoku-/ak*)... *al-* ori eta *an-* ori, *anakrusis* dira; eskuz goian markatzen diranak. Zergatik? Ez dakigu; ritmoak ala eskatzen dualako. Besterik ez da errex esaten... Bañan ala dala, bai...

#### IPARRAGIRRE'REN DOÑUKOA

Oso ezaguna da au ere; eta aztertzea merezi duana.

Ikus:

Iparragirre abilla dala  
askori diyot aditzen;  
eskola ona, eta musika,  
ori orrekin serbitzen...  
Ni ez nazu ibiltzen  
kantuz dirua biltzen,  
komeriante-moduan;  
debalde pesta perparatzen det  
gogua dedan orduan.

Neurtu dezagun:

Iparra-/girre / abilla / dala  
askori / diyot / adi-/tzen;  
eskola / ona / eta mu-/sika,  
ori o-/rrekin / serbi-/tzen...  
Ni / ez na / zu i-/biltzen  
kan-/tuz di-/rua / biltzen  
komedi-/ante / modu-/an  
debalde / pesta / perpara-/tzen det  
gogua / dedan / ordu-/an.

Lau oñekoa da; daktilo-espondeo, espondeo-daktilo; tartean kor-teazko iruko bat sartzen duala: (Ni) ez na'zu i(biltzen); (kan)tuz dirua (biltzen).

*Oarra.*—Iruko joku orrek grazi berezi bat ematen dio bertsoari, eta, dudarik gabe, legezko gauza da bertsoaritzan.

#### GURE AITAK AMARI GONA GORRIA

Gure kantarik geienak oso daktolikoak ditugu. Ala ere, aldian bein, ba degu, espondeo geldiz kargatuxeagorik ere. Ikus “Gure aitak amari”.

Gure aitak amari  
 gona gorria ekarri.  
 Berriz ere maiteko dio  
 gure amak aitari...  
 Gure aitak amari  
 gona gorria ekarri.

Neurri dezagun :

Gure / aitak / ama-/-ri  
 gona / gorria / eka-/-rri.  
 Berriz / ere / maiteko / dio  
 gure / amak / aita / ri...

Bertso au ere, lau oñekoa da, tetrapodia. Espondaikoa dala ezik, espondaikoz asko zamatua.

Lenengo errenkadan zazpi silaba ditu (puntu motxakoa balitz bezela); bañan lau oin, ez iru.

Bigarren errenkadak, ordea, zortzi silaba ditu (“Ume eder bat”ek bezelaxe).

Irugarreanean, herriz, amarrekua bearrean, bederatzikoa du (bi espondaiko, daktoliko bat eta espondaiko bat: lau oin garbi-garbi): “berriz ere maiteko dio...”.

### III IKASGAIA

#### MUSIKAREN INDARRA EUSKAL-METRIKAN

Asitako bidean pausu batzuek geiago eman ditzagun. Ritmoaren bidean, alegia.

Argi ageri danez, orain arte aztertu ditugun ritmorik geienak —denak, bear bada— tetrapodioak eta tripodioak izan ditugu: dala “puntu luze”, dala “puntu motx”, eta baita bestelako zenbait ere, adibidez “Betroyarena” eta “Zaldi zuriyarena” edo-ta “Juana Bixenta Olabe’rena”.

Bañan oien artean aipatu degu beste bat ere.

#### KONTZRZI’RI

deritzana, beste oien aritik ateratzen dana: Iztueta’reñ “Kontzeri’ri”; au ez bait da tetrapodio lau oiñekoa, bostekoa baizik, “pentapodioa”.

Beste itz batzuekin ikusi degu: gerrateko itz batzuekin; ikusi ta azter dezagun Iztueta’reñ itz jatorrakìn, “Kontzezi’ri”ren itzekin.

Maite bat maitatzen det maitagarria;  
begi ederra du ta guztiz argia.

Daukat urruti;  
bañan ezin kendu det buruti  
aren itxura;  
saldu al baliteke pisura,  
urrien truke  
nork erosi faltako ez luke.

Bi gauza berezi arkituko dizkiogu bertso oni, orain arteko besteen aldean —luxe-antxa izateaz gañera eta aldian bein oin etenak eta anakru-sisak izatea gañera— ez dala tetrapodio (lau oiñekoa) bostekoa baizik, “pentapodioa” baizik, eta rimaren erabilkera oso mudakor-saltariña duala, eta, gerratekoak baño puntu-errenkada bat geiago duala.

Neurtu dezagun:

Maite bat / maitatzen / det mai-/-tagarri-/-a;  
begi e-/-derra du / ta guz-/-tiz argi-/-a;  
dau-/-kat urru-/-ti;  
bañan e-/-zin dendu / det buru-/-ti  
a-/-ren itxu-/-ra;  
saldu al / balite-/-ke pisu-/-ra,  
u-/-rrien tru-/-ke  
nork ero-/-si palta-/-ko ez lu-/-ke.

Rima, biñaka darabil; eta biñako bakoitzean aldatu egiten du —oso Iztueta'ren oiturako gauza; ortan zaldibiarra oso maisu bait zan...—.

### FESTA-BIARAMUNA

Ikustagun beste eredu bat, neurri arrunt oietatik puska bat bazartzen dana; eta bazartu, musikaren indarrez; musikaren indarra ritmo-kontuan oso gogoan euki bearreko gauza bait da —musika, musikaren konpasa, naiz-ta bere izaeraz, musikaren kunpasa ta bertsoaren ritmoa, beti-beti ta oso-oso alkarrekin *a dos* ez ibilli—.

Nolanai dala, zenbait kantaen ritmoa, asko aberastu izan da musikaren indarrez, musikaren ritmoaren konpasaren indarrez. Dana dala, gure ritmozko sail aberatsean, sallahen aberastasuna musikatik dator asko.

Arritzeko gauza da, izan ere, gure olerkarien eta gure bertsolarien artean dagon ez-berdintasuna gai ontan: zenbatez aberatsago dan bertsolarien ritmo-salla, idatziz ari izan diran olerkarien aldean, zenbat aberatsago, musikari jarraituaz ari izan diran bertsolariena. Iñungo olerkariri, adibidez, etzizaion sekulan ere buruan jaioko, Bilintx'en "Nagusi jauna"ren ritmoa, Bilintx'i, musikari jarraikiz, jaioko zitzaion bezela, eta berdin "Kontzezi'ri"ren ritmoa, Iztueta'ri...

Ikusi besterik ez dago, A. Onaindia'ren "Milla olerki ederre"tan, nolako ritmozko pobrezia azaltzen dan "eskribusko olerkarien" artean, ritmo-kontuan... Izan ere, bertsolariak maizago ibilli dira melodiaren bidetik —gure melodi aberatsen bidetik— olerkariak baño. Olerkariak, nai gabe ere, zortziko aundi ta zortziko txikira jo izan dute geien-geien; "Milla olerki ederren" bilduma, da orren testigu...

Bertsolariak eta antziña-antziñako Kopla Zarrak dira ritmo-kontuan aberatsenak —azken-gizalditako olerkarien aldean benetan aberatsak—.

Gero ikusiko degu, antziñako Kopla Zaarren-sailtxo bat. Bitartean ikustagun, musikaren indarrez ritmoa aberastu duan kanta-pare bat; eta lenengo, "Besta-biaramuna" deritzan, Elizanburu'rena:

Iragan besta-biaramunian  
berek dakiten  
xoko batian



lau andre, iru mutxurdirin, bat alarguna  
 jarririk itzalian,  
 arri xabal bat belaunen gañian,  
 ari ziran, ari ziran trukian.

Agiri danez, kanta oso espondaikoa da; ia dana espondaikoz dabil,  
 biñaka-biñaka :

Ira-/-gan bes-/-ta bi-/-ara-/-muni-/-an  
 berak / daki-/-ten  
 xoko / bati-/-an...

Ondoren datorren puntuan daktoliko biurtzen da, zati batean :  
 lau an-/-dre iru / mutxur-/-dirin bat a-/-largu-/-na  
 bereala biurtzeko herriz ere betiko espondaikora :

jarri-/-rik i-/-tzali-/-an  
 arri / xabal / bat be-/-launen / gañe-/-an etab.

Oin-kontuan, berriz, austen ditu orain arteko neurri guztiak; ez da ez puntu motxeko, iru-oindun, tripodio; ezta puntu luzeko, lau-oindun, tetrapodio ere; ezta, "Kontzezi'ri" bezela, bost-oiñeko pentapodio ere; sei-oiñeko da ia danean; "berek dakiten" artan egiten zaigu iru-oiñeko, bañan ez puntu motxeko, beste zerbait baizik; eta "jarririk itzalian" artan, lau-oiñeko, bañan ez "Ume eder batean" bezela daktoliko, oso espondaiko baizik :

jarri-/-rik i-/-tzali-/-an...

Agiri danez, naiko naasia metrikaz; musikaren indarrez guk uste...

#### SAN IGNAZIO'REN "MARTXA"

Musikaren indarrez, ritmo-eredurik nabarmenetako bat gertatu dana, dudarik gabe, gure "San Ignazio'ren martxa" da. Kanta oso ezaguna. Ritmo bizi-bizia duan kanta. Merezi bait du, orretxegatik, azterketa on bat egitea.

Daktilo ta espondeo-bidetik dabil; ederkitxo naasten bait ditu bi oiñ oiek, musikak, batez ere, eskatzen duan neurrian :

Begira :

Igna-/-zio  
 gure / patroi / aundi-/-a :  
 Jesus-/-en Kon-/-pañi-/-a  
 funda-/-tu  
 eta / dezu / arma-/-tu ;  
 ez da ez / etsairik / jarriko / zaitzunik  
 iñolaz / aurrean / gaurko e-/-gunean,  
 naiz be-/-tor  
 Luzi-/-fer de-/-abru-/-a  
 utzi-/-rik in-/-fernu-/-a.  
 Zure sol-/-daruak / dirade ain-/-geruak  
 zure gi-/-daria / da Jesus / aundia.  
 Garai-/-tu di-/-tu zu-/-re Kon-/-pañi-/-ak  
 atsa-/-yak.  
 Ez dauka / Fedeak / ez kristau / nereak,  
 ez dauka / bildurrik / iñungo / aldetik.  
 Ignazio/or dago / beti er-/-nai dago,  
 armetan / jarria / dauka Kon-/-pañia  
 txispaz ar-/-maturik / bandera / zabalik  
 gau t'e-/-gun  
 guk  
 guztiok / pakea / deza-/-gun  
 beti / gau e-/-ta e-/-gun.

Ageri danez, oin eten batekin asten da kanta: espondaiko bat, eta trinkotu batekin (Igna-/-zio); ondoren, bi tetrapodio, lau oin espondai-kodun datoz: (gure / Patroi / aundi-/-a etab.); ondoren, beste oin eten bat (funda-/-tu); eta ondoren, beste tetrapodio espondaiko bat (eta / de-zu / arma-/-tu). Ondoren, bi tetrapodio daktoliko (ez da ez / etsairik / jarriko / zaitzunik // iñolaz / aurrean / gauko e-/-gunean), ondoren oin eten bat (naiz be-/-tor) eta ondotik bi tetrapodio espondaiko (Luzi-/-fer de-/-abru-/-a // utzi-/-rik in-/-fernu-/-a).

Ondoren asten da oin daktoliko-illara: bi tetrapodio daktoliko (Zu-re sol-/-daruak / diradeain-/-geruak // zure Gi-/-daria / da Jesus / aundia). Eta tartean —gauza ez-oitua— sei oin espondaikoizko illara

(Garai-/tu di-/tu zu-/re Kon-/pañi-/ak); eta ondoren oin eten espondaiko bat (etsa-/iak).

Ondoren dator, zaldizkoak diruditen, beste oin daktilikozko illara luzea, bost tetrapodio daktoliko (Ez dauka / Fedeak / ez kristau / nereak etab.) azkeneko “bandera / zabalik” arte; aren ondoren, berriz ere, gauza baretzen bait da bi espondaikotan (gau t'e-/gun) laister, beste bi daktilikoren ondoren (guztiok / pakea) berriro espondaiko otxanetan dana bukatzeko (deza-/gun // beti / gau e-/ta e-/gun).

Tartean, ezik, ba dago or beste gauza nabarmen-nabarmen bat: izan liteken “punturik motxena” silaba bakar bateko puntua, silaba bateko oin etena: “guk” (gau t'e-/gun // GUK // guztiok / pakea / deza-/gun).

Olakoxe gauza nabarmenak bait ditu gure “San Ignazio'ren martxak” musikaren indarrez...

#### KANTA ZAARRETAN

Aztertu ditzagun orain, leen aipatu ditugun kanta zaarretatik bat edo beste, gure metrika onen arabera, espondaikoz eta daktilikoz baliaturik.

Gauza jakiña da, kanta zaar oien puntuak ez dirala gertatzen berdiñak alkarrekin, silabaz neurtzen baditugu. Gertaera orrek problema garratza sortzen bait die, gure bertsoak silabaz neurtzen dituztenai.

Artu dezagun eredutzat

#### BERETERRETXE'N KANTORIA

Altzak ez dik biotzik;  
ez gaztanberak ezurrik...  
Enian uste erraiten ziela  
aitunen semek gezurrik.

Silabaz neurtzen dutenentzat, lenengo puntuak zazpi silaba ditu; bigarrenak zortzi; irugarrenak amaika; laugarrenak zortzi.

Bañan, silabaz ez baño, oiñez neurtu ezkeru, bereala ikusiko degu, bertso au, tetrapodio bat dala, lau oinduna beti ere lau oin, naiz-ta batzuetan zortzi silaba izan, naiz zazpi edo amaika: beti lau oin... bertsoaren “itzuli” guzian beti berdin...

Ikustagun :

Altzak / ez dik /bio-/-tzik

(iru oin espondaiko, eta oin trinkotu bat)

ez gaztan-/-berak / ezu-/-rrik

(daktoliko bat eta iru espondaiko ; azkena trinkotua)

Enian / uste e-/-rraiten zi-/-ela

(iru daktoliko ta espondaiko bat —amaika silabaten—)

aitunen / semek / gezu-/-rrik

(daktoliko bat eta iru espondaiko ; azkena, trinkotua).

Berdin-berdin neurtu bait litezke gañerako bertsoak ere :

Ikus :

Andoze'ko ibarra,

ala ibar luzia !

Iruretan ebaki zaitan

armarik gabe biotza.

Andoz-/-eko / iba-/-rra

ala / ibar / luzi-/-a!

Iru-/-retan / ebaki / zaitan

armarik / gabe / bio-/-tza.

...biko oiñak eta irunakoak elkarrekin naasiaz...

Ikustagun beste eredu bat kanta zaarretan

## ALOSTORREA

Alostorrea, bai Alostorrea!

Alostorreko zurubi luzea!

Alostorreatan

nengoanean

goruetan,

bela beltzak

kua, kua, kua, kua

leyoetan.

Neur dezagun :

Alosto-/-rrea bai / Alosto-/-rrea!

Alosto-/-rreko zu-/-rubi lu-/-zea!

Alosto-/rrean  
 nengoa/-nean  
 gorue/-tan  
 bela / beltzak  
 kua, kua / kua, kua  
 leioe/-tan.

Ageri danez, bertsoan oin daktilikoak eta espondaikoak txandan dabiltza; daktiliko geiago espondaiko baño. Espondaikoak bukaeran azaltzen dira, batez ere (bela / beltzak / kua, kua / kua, kua); gañerakoan daktilikoak ugariago...

Oin-kontuan, asierako bi errenkadak bi tetrapodio dira, bi lau-oiñeko; puntua, ordea, ez puntu zorrotz, amuts baizik (to/-rrea... lu/-zea).

Gañerakoan, azkeneko *gorue/-tan* eta *leioe/-tan* oiek, grazi aundia ematen diote kantu onen metrikari.

\* \* \*

Ikustagun orain, Kantu Zaarretatik

ATARRATZE-JAUREGIKOA

Ozaze Jaurgañian  
 bi zitroin doratu;  
 Atarratze'ko Jaunak  
 batto du galdatu.  
 Arrapostu ukan du  
 ez direla untu;  
 untu direnian,  
 batto ukanen du.

Atarratze'ko iria  
 iri ordoki;  
 ur andi bat ba dizu  
 alde bateti,  
 errege-bidia  
 erdi-erditi;  
 Maria Madalena  
 beste aldeti.

Neur ditzagun bi bertsuok :

Ozaze / Jaurga-/ñian  
 bi zitroin / dora-/tu ;  
 Atarra-/tzeko / Jaunak  
 batto du / galda-/tu.  
 Arrapos-/tu u-/kan du,  
 ez dire-/la un-/tu ;  
 untu / dire-/nian,  
 batto u-/kanen / du.

Atarra-/tzeko / iria  
 iri / ordo-/ki ;  
 ur andi / bat ba / dizu  
 alde / bate-/ti ;  
 erre-/ge bi-/dia  
 erdi-/erdi-/ti ;  
 Maria / Mada-/lena  
 beste / alde-/ti.

Ikusten denez, bertso oiek, "puntu motxekoak" dira, iru-oin-dunak, tripodioak; bañan oiñak ez datoz beti oitutako eran. Orain arte, ia beti, puntu motxean, oin-illara, "daktoliko bat eta bi espondaiko" ikusi izan degu; bañan "Atarratze'ko" ontan ba ditugu iru espondaikodun errenkadak (untu / dire-/nian; iri / ordo-/ki; alde / bate-/ti; erdi-/erdi-/ti); sei silaba bearrean, bost; eta berdin baita bi daktilikodun bat ere (Atarra-/tzeko / iria); zazpi silaba bearrean, zorzi; silabaz neur-tu nai dutenezat estropozo aundi, bañan oinka neur-tu ezker, oso neu-rriko.

Faint, illegible text, possibly bleed-through from the reverse side of the page.

## ARKIBIDEA

Aozko Literatura (Literatura oral) .....	1
Ume-kantak .....	29
Ume-kantak .....	57
Ume-kantak .....	67
Bertsolaritza .....	73
Bilintx eta Xenpelar .....	89
Bertsolariak Testamentu Zaharrean .....	117
Métrica Vasca .....	131
Bertsoa Jakintzaren argitan .....	159



## KARDABERAZ LIBURUXKAK

- 1 **KARDABERAZ, 1**  
(Zenbait idazle) ... .. 1971. 34 of
- 2 **UME TXIKIENTZAKO SOINKETA**  
(Marrezki ugariz ornitua) ... 1973. 19 "
- 3 **EUSKALERRI ZARREKO JAINKO TXIKIAK**  
(A. Arrinda) ... .. 1973. 19 "
- 4 **KARDABERAZ, 2**  
1973. (Zenbait idazle) ... .. 1975. 110 "
- 5 **KARDABERAZ, 3**  
1974. (Zenbait idazle) ... .. 1975. 147 "
- 6 **AMEZKETA'KO PERNANDO**  
(Albizu ta Ayerdi'tar Anastasio) 1975. 77 "
- 7 **KARDABERAZ, 4**  
1975. (Zenbait idazle) ... .. 1975. 84 "
- 8 **"PAKEAREN-ERREGIÑA" - MEZA**  
(Pildain Araolaza'tar Joakin) 1974. 43 "
- 9 **20 IPUI ETA... antzerkitxo bat ikastolarako**  
(A. Albisu) ... .. 1975. 145 "
- 10 **KARDABERAZ, 5**  
1976. (Zenbait idazle) ... .. 1977. 109 "

## KARDABERAZ BAZKUNA

1924'an sortua, Gazteiz'ko Apolzigaitegian. Euskeraren alde.

1936'an birrindua. 1970'an berpiztua.

Zertarako? Euskera jator batean, kristau-burubide barruan (esi zabalak) lan egiteko.

**Bazkideak** (gizon ala emakume): bazkide-tza irixteko sarriera-sariz, milla peseta ordaintzen dute. Iru bazkide-mota dira gero:

- A) Urteko milla pesetako bazkide-saria ordaintzen dutenak. Kardaberaz "urterako" liburuxka, utsean-duan jasoko dute. K. B.'k irarriak dituan eta irarriko dituan idazkietatik, ala nai izanik, nai dituztenaz erosteko eskubide dute, irar-sariaz ordaindurik.
- B) Urteko bi milla pesetako bazkide-saria ordaintzen dutenak. Kardaberaz "urteroko" liburuxka, utsean-duan jasoko dute. K. B.'k irarriko dituan idazkiak, irar-sariaz ordaindurik, urteko milla peseta bitarteko kopuruz ditezkenak jasotzeko eskubidea dute, ezer gelago ordaindu gabe.
- D) Urteko bi milla pesetatik gorako bazkide-saria ordaindu nai dutenak, Bazkunari guzizko ordaintzetan bereziki lagundu nairik. Idazki banaketan ongi go-goan izango ditu mota ontako bazkideak K. B.'k.

**Arpidedunak.** Irartzen jungo diran idazkiak jasoko dituzte ajdiko aldian, jaso ala, arpidedun-sariaz ordaindurik.

## KARDABERAZ BAZKUNA

San Francisco, 1 - Apdo. 83 - Tel. 55-11-40 - **TOLOSA**

